



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GERNIKA-LUMO • 2011 URTEA • X.IK - 10. Idazlan Koaderno • DBH eta Batxilergoa



GERNIKA-LUMO
2011 urtea

10. idazlan
koaderno

DBH eta BATXILERGOA

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.
- HHI Gernika-Lumo.

Portadaren egilea:

- Onintze Pablogorran eta Iratxe Bereziartua (DBH 4. mailako ikasleak)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

- Graficas Amorebieta.

2011ko edizioa.

Hitzaurrea

Iñaki Gorroño Etxebarria
Hezkuntza Arloko Zinegotzia

Handwritten signature of Iñaki Gorroño in black ink.

Idoia Fernández Antia
Euskera Arloko Zinegotzia

Handwritten signature of Idoia Fernández Antia in black ink.

Aurkibidea

Jon Onaindia Meabe	DBH 1. maila	<i>“Felix eta Ameriketa”</i>	6
Iranzu Barandika	DBH 1. maila	<i>“Hemendik hara eta handik hona laguntza”</i>	9
Maddi Petralanda Undabarrena	DBH 1. maila	<i>“Berriñondotik Parisera”</i>	13
Naroa Ares Ortuzar	DBH 1. maila	<i>“Zubia da nire teilatu”</i>	18
Oier Orue	DBH 2. maila	<i>“Baserri zoologikoa”</i>	21
Joane Aberasturi	DBH 2. maila	<i>“Inoiz ez baztertu berria eta ezberdina”</i>	25
Ainhoa Zarrabeitia Zabala	DBH 2. maila	<i>“Txalupa bat itsasertzean”</i>	29
Olatz Goiriena Goikoetxea	DBH 2. maila	<i>“Bizi itxaropen apurrak”</i>	32
Olatz Arrizabalaga Munduate	DBH 2. maila	<i>“Zenbaki odoltsuak”</i>	36
Lourdes Ondaro Mallea	DBH 2. maila	<i>“Gorria zurian”</i>	40
Maidier Bilbao Ozamiz	DBH 3. maila	<i>“Latza bezain ederra”</i>	43
Irati Asategui	DBH 3. maila	<i>“Bidaia ez hain luzea”</i>	47
Maria Alberdi	DBH 3. maila	<i>“Barrote arteko berba isilduak”</i>	51
Pablo Unceta Barrenetxea	DBH 3. maila	<i>“Otsoaren oihuak”</i>	54
Harriet Zabaleta Cobanera	DBH 3. maila	<i>“120 ordu”</i>	58
Angel Larrabeiti Zarrandikoetxea	DBH 4. maila	<i>“Itxaropenezko bizitza bateko aztarnak”</i>	61

Irati Oria	BDH 4. maila	<i>“Egun batetik bestera”</i>	69
Bittor Rodriguez Monllor	DBH 4. maila	<i>“Urdaibai, begirada bat”</i>	74
Maialen Basterretxea Zubia	DBH 4. maila	<i>“Pauso bat besterik ez”</i>	78
Sara Abaunza Urionabarrenetxea	DBH 4. maila	<i>“Zatoz”</i>	84
Jone Irigoien Romanillos	BATX. 1. maila	<i>“Bihotzak gidatzen gaituen honetan”</i>	86
Ane Abascal Alberdi	BATX. 2. maila	<i>“Maitasuna”</i>	91
Josu de la Mar Etxabe	BATX. 2. maila	<i>“Zorointasunaren prezioa”</i>	94
Mikel Gandarias Ispizua	BATX. 2. maila	<i>“Buruz-buru, guduz-gudu”</i>	101
Iker Miret Atxikallende	BATX. 2. maila	<i>“Bizitza berri bat”</i>	107
Usue Kortadi Mejias	BATX. 2. maila	<i>“Itsasoak daramana tsasoak dakar”</i>	113
Irene Ortiz Terez	BATX. 2. maila	<i>“Ez dago zer begiratu”</i>	118
Lexuri Gabiola Aranguena	BATX. 2. maila	<i>“Nola liteke...”</i>	125
Lander Madariaga Agirreamalloa	BATX. 2. maila	<i>“Gau bakarti bateko poesia”</i>	129
Mikel Retolaza Etxebarria	BATX. 2. maila	<i>“Doinu bako kantak”</i>	133
Maria Isabel Uriarte	HHI-EPA	<i>“Gabonetako bidaia”</i>	137
Josebe Villa	HHI-EPA	<i>“Sagutxo talde makala”</i>	140



Jon Onaindia Meabe

DBH 1. maila

“Ohean etzanda irakurtzen dut”

FELIX ETA AMERIKETA

Bazen behin, 24 urteko gazte bat Felix izenekoa. Felix Mendatakoa zen, baserri batean bizi zen bere guraso eta neba-arrebekin, guztira zazpi neba-arreba ziren, eta bera zen zaharrena. Felix eta bere familiakoak txiroak ziren, hortaz, soldaduska egin bezain pronto Ameriketara joan behar izan zuen lanean, ardiak zaintzera. Felixek ez zuen joan nahi, baina bere gurasoek behartu zuten, ezin baitzuten aitaren soldatarekin bakarrik familia aurrera atera, amak ez baitzuen etxetik kanpo lanik egiten. Etxekoandrea zen.

Idahoko ardien enpresa-gizonarekin tramitazioak egin ostean, bost urterako lan kontratua lortu zuen.

Udako arratsalde sargori batean, etxekoak belar metak egiten ari ziren bitartean abiatu zen Felix hegazkinez Ameriketarantz.



Heldu zenean, aireportuan itxaroten zeukan ugazaba, mendira artaldearengana eramateko prest.

Hilean irabazten zuen diru apurra gutun azal batean etxera bidaltzen zuen, berarentzat soilik pare bat txanpon hartuta. Mendian karro-kanpoan egiten zuen lo bere artzain-lagun batekin eta tramankulu horretan ibiltzen ziren hara eta hona.

Larrerik larre ibiltzen ziren, bertan zegoen belarraren arabera. Larre batean beharbada bi egun egiten zituzten, ondorengoan bost egun... Negua oso luzea egiten zen, sarritan bakardadean egon behar izaten zuten, bakoitzak bere artaldearekin larre ezberdin batetara joan behar izaten zutelako.



Udaberrian jaisten ziren herrira, jada egunak luzeagoak eta beroagoak baitziren eta ardiei ilea moztu beharra izaten zuten. Felix ere aritzen zen ilea moztzen oso zaila izan arren, ilea oso lodia baitzuten eta ardiak gehienetan ez baitziren gelditu egoten. Artaldeak ikaragarriak ziren, mila ardi ere egon zitezkeen artalde berean eta zaintzen zituztenek oso ondo zekiten zenbat

ardi zituzten, eta baten bat galduz gero, berehala konturatzen ziren, nahiz eta hainbeste izan. Ardiak kontatzeko oso metodo erraza erabiltzen zuten, bi zuhaitz edo hesiren artetik igaroarazten zieten ardiei eta banan-banan zenbaitzen zituzten eta ehun pasatzen ziren bakoitzean, eskuan makilatxo txiki bat hartzen zuten, zenbat zihoazen ez ahazteko.

Idahon euskaldun asko zegoen, beraz, udan euskal jai bat antolatzen zuten Boisen. Ikaragarrizko jendetza biltzen zen bertan, herri-kirolak eta hainbat eta hainbat ekintza egiten ziren jai giro atsegin hartan. Jaiek hiru egun irauten zuten, ostiralean hasi eta igandera arte.

Felixi oso azkar igaro zitzaizkion bost urte, igarri bezain pronto bere Ameriketako azken urteko udako jaiak iritsiak ziren. Felixek jada 29 urte zeuzkan, oso gizon indartsua zen eta herri-kiroletan parte hartzeko eskatu zioten diru apur bat eta bazkari baten truke. Felixek ez zien ezetzik esan, zeren eta herri-kirolak asko gustatzen zitzaizkion, eta gainera dirua eta bazkaria emanez gero ezin esan ezetzik. Herri-kirolak egin ostean, izerdituta zegoen eta dutxa eder bat hartu zuen aspaldiko partez. Egarrituta zegoenez, tabernara joan zen zerbait hartzera, bere taldekideekin. Felix lasterka zihoan, bere taldekideak jada tabernan baitzeuden, baina bidean bere adin inguruko neska batekin tupust egin zuen nahi gabe eta hain bizkor zetorren, ze lurrera bota zuen. Neska lurrean etzanda geratu zen. Oso ederra eta liraina zen, eta Felixi asko gustatu zitzaion. Altxatzen lagundu eta barkatzeko eskatu zion. Neskak ingelesez hitz egiten zuen eta ez zion ezertxo ere ulertu, baina berari ere Felix gustatu zitzaion. Nahiz eta elkar ez ulertu, biak konturatu ziren elkarrentzat eginak zeudela eta elkarrekin irteten hasi ziren, oso zoriontsuak ziren, uda bukatu zen arte, Felixi etxera bueltatzeko ordua iritsi zitzaion arte. Ez zuten elkarrengandik banandu nahi, hezurretaraino maiteminduta baitzeuden.

Felixek gutuna bidali zien etxekoei esanez bikotekidea aurkitu zuela eta berarekin ezkondu nahi zuela. Horretarako, Euskal Herrira etortzeko asmoa zeukatela. Udazkenean iritsi ziren Felix eta bere bikotekidea, Mary, Ameriketatik Mendatara. Felixek bere familia aurkeztu zion Maryri eta oso ondo hartu zuten. Felix eta Mary zemendian ezkondu ziren, Mendatako San Migel elizan. Eta handik aurrera oso pozik bizi izan ziren elkarrekin, eta Felixen familiakoez ez zuten gehiago diru arazorik izan inoiz.



Iranzu Barandika

DBH1. maila

“Orainaz gozatzea gustuko dut, etorkizunean pentsatu gabe”

HEMENDIK HARA ETA HANDIK HONA LAGUNTZA

Maite nauzue. Oso neskatila arrunta naiz. Goizero autobusean joaten naiz ikastetxera; nire gosaria amaitzen dut bertan eta afrikarren bizitza nolakoa den pentsatzen dut bitartean. Afrikarrak gogoko ditut; udan nire larruazala beltzaran jartzea gogoko dut, afrikarrek bezala. Nire txirikorda luze eta beltzak haien antzekoak izatea gustuko dut. Beraien gona eta jantzi koloretsuak maite ditut gehien. Oso kolore alaiak dituzte eta nik ere urtebetetze egunean dendako jantzi biziena eskatzen dut.

Ni, aitatxo, amatxo eta Serafinekin bizi naiz. Serafin nire arrain arrosa da. Oso maite dut, nire Serafintxo! Asko miresten dudan beste gauza bat nire amaren lana da: nire ama moda diseinatzaile oso famatua da. Ia Euskal Herrian ezagutu den famatuenetarikoa. Bertako jantzi ederrenak berak diseinatu ditu. Egia esan, oso ondo doakio lana.

Nire bizitzan falta ez den pertsona bat andereñoa da, beti munduko mapari begira. Ikastetxeko mapan Afrika laranja margotua dago eta horregatik beti imajinatu izan dut Afrika sabana hori, zabalekin. Dena dela, beti nago bidaiazten eta nire andereñoaren iritsiz nire leku gogokoena ilargia da. Ilargia borobila eta hutsa da. Harri distiratsu batzuk ere badaude, baina nik ez ditut gogoko. Karibeko uharteak askoz ere ederragoak dira. Harea fina eta zurixka dute eta itsasoak kolore urdin eta freskoa du. Palmondoak altu-altuak dira. Baina beti pentsatzen dut Afrika dela dudarik gabe lekurik hoberena. Afrika-rekin amets egitea da nire gogo.

Beste egun zoriontsu bat zen hura. Altxatu eta leihotik begiratu nuen. Goiz gorria zen. Zerua kolore gorri eta arrosaz beterik zegoen. Laino gorrixka haiek irribarrea eragiten zidaten. Banekien Afrikako ume bat bere etxolako leihotik laino haiek begira zebilela.

Opil prestatu berrien, ogi xigortuaren eta gurinaren usaina zetorren eskaileretatik gora. Nire pijama lodia kendu, kamiseta luze bat eta praka bake-ro estuak jantzi eta eskaileretatik behera joan nintzen nire gosaria gogo biziz jateko prest.

- *Egun on ama!* -esan nion amatxori masailan musu handi bat emanez.
- *Egun on lastana!* -erantzun zidan.- Gogoratzen al zara orain dela hiru hilabete bidali zenuen inkestaz?
- *Nola ez ba! Afrikarako bidaia oparitzen zuten hartan?*
- *Bai! Gaur arratsaldean emango dute irabazlearen izena; zu ikastetxetik irten baino pixka bat lehenago. Baina makina bat pertsona apuntatu da eta ez dut uste irabaziko duzunik. Dena den jakinarazteko dizut.*
- *Ongi. Banoa ama, bestela autobusa galduko dut eta!*

Opil bi eskuan nituela irten nintzen etxeko lorategira eta autobusa hartu nuen. Goiz hartan ez nuen afrikarren bizitzan pentsatu. Nik neure burua imajinatu nuen eskolako mapan zegoen sabana hori, zabaletan ume beltzarran batekin jolasean.

Eguna azkar igaro zitzaidan eta arratsaldeko azken ordua zen. Euria ari zuen ikasgelako leihoetatik behera. Lainoen malkoak ziren beraiek goizean izan zuten kolorea joan zitzaielako. Afrikar batek bere kolorearen gabezia egingo lukeen bezala. Hura zen goiz gorri, arrats euri.

Aterkia ireki eta etxerantz abiatu nintzen korrika. Etxeko atearen aurrean gelditu eta giltzarekin poliki-poliki atea ireki nuen. Sarrera zeharkatu eta aitararen ahotsa entzun nuen telefonoz hizketan.

- *Bai* -zioen aitatzok.- *Maite Agirre. Ongi... Eskerrik asko...Gero arte!*

Arraro xamar egin zitzaidan aitaren ahots tonua eta begirada batez dena ulertu nuen. Afrikara nindoan izeba Paolarekin! Bai! Afrikarekin amets egi-tea kontu zaharra iruditu zitzaidan. Nire paradisura nindoan!

Ama nire logelan zegoen etxeko maletarik handiena prestatzen.

- *Ama! Izebari deituko diot.*

Deia oso laburra izan zen. Izebari gertatutakoa kontatu eta berria baze-kiela esan bezain laster eskegi nuen. Izeba Paola oso andre xelebrea da. Ile kizkur gorrixka du eta beti dago zigarro batekin eskuan. Beti alai.

Arratsaldea oso luzea egin zitzaidan. Dena prestatuta zegoen eta goizean goiz altxatzeko ohera sartzea onena izango zela pentsatu nuen.

Hurrengo egunean izeba eta biok hegazkinean geunden. Orduak igaro ondoren gure ekipaia hartu eta Afrikan geunden. Hura zoragarria zen! Adin guztietako pertsonak zeuden ile apainketa eta jantzi desberdinekin. Zoragarria benetan!



Hiru aste ondoren Togolaren lagun min egin nintzen. Bere ama oso atse-gina zen eta izebarekin igarotzen zuen arratsaldea kafe goxoa hartzen. Goiz eguzkitsu batean amaren dei bat jazo nuen. Arazoak zeuden etxean! Amari

lana txarto zihoakion. Hirira beste diseinatzaile bat etorri eta lana lapurtu zion. Zer egin nezakeen?

Togolari nire arazoa kontatu nion. Hura bai neskato aparta. Izugarrizko ideia eman zidan! Afrikan denek zituzten munduko kolore tonu ederrenak. Nire amak horiek egiten ikasiz arrakasta izango zuen dudarik gabe. Amari deitu nion eta ez zitzaion ideia txarra irudit. Afrikan geratzen zitzaizkidan bost asteak diseinu berriak ikasten igaro nituen.

Nire bizitzako bi hilabete ederrenak izan ziren eta agurtzean Togolari berriz ere Afrikara bueltatuko nintzela zin egin nion, berarekin zorretan nongo-elako. Afrikara bueltatuko nintzen, lagun berriak egin eta bertako sabanako lur zatitxo bakoitza aztertuko nuen!

Orain hemen nago. Nire amari ederki doakio lana, diseinu guztiak ikasi ondoren. Gutxi izango balitz, diseinatzaile berriaren lagun min egin da eta arratsalde guztiak igarotzen dituzte sukaldean beraien ideiak elkar banatzen.

Urte batzuk igaro ondoren Afrikara joango naiz berriz ere eta Togolarekin abentura ezin hobeak, ahaztezinak, izango ditudala badakit.



Maddi Petralanda Undabarrena

DBH 1. maila

*“Bizitzako mina, samina eta tristura, bihotzeko goxtasunak
eta maitasunak suntsitzen ditu”*

BERRIÑONDOTIK PARISERA

Matxalen Berriñondo izeneko baserrian jaio zen, ziur ez zekien ze egunetan.

Berak hamar urte zituenean Euskal Herriaren aurkako gerra hasi zen eta bizirik irauteko era bakarra bertatik ihes egitea izan zen.

Hala, denborarik galdu gabe eta auzokoak ere agurtu gabe, goizalde ilun batetan, ezkutuan atera ziren etxetik gurasoak eta bederatzi neba-arrebak.

Egurrezko maletan arropa batzuk sartu eta astotzaretan ganbarako sagar batzuk eta gatzenozkako urdai zati batzuk sartu eta korrikan atera ziren etxetik mendirantz, askatasunaren eta bizimodu hobe baten bila.

BASERRIKO BIZITZA

Matxalen umea zela, Berriñondo auzoan lau baserri-etxe zeuden eta garai hartan 43 neska-mutiko jaio ziren. Giro aparta zegoen, baina lanari ere gogor ekin behar izaten zioten beheko suaren inguruan esertzerakoan lapikoa beterik aurkitzeko.

Baserrian familiarekin eta animaliekin bizi ziren. Familia aita Patxikok, ama Felixak eta bederatzi neba-arrebak osatzen zuten. Animaliak ere familiakoak zituzten. Gauero etxe barruan zeukaten korta ederrera erretiratzen ziren txerria, astoa, behiak, ardiak, ahuntzak eta eurei esker polito elikatzen ziren. Negu partean gatzenezkan, txerri okela, freskeran, ardi eta ahuntz esnez egindako gaztak eta ezkaratzeko sute gainean behi esne gozo-gozoa.

Txiki-txikitatik goizean goiz jaiki eta gurasoak neba-arreba guztien lana antolatzen zuten: batzuk ortura lurra lantzera eta patatak, indabak, garia... ereitera, jorratzera.... Beste batzuk astoaren trakuluetara txanbilak lotu eta uraren bila, edo Golako errekarara arropak garbitzera... eta baten bat, gehiengotan mutilezkoa, eskolara irakurtzen eta idazten ikastera.

Neska-mutilak koxkorrak egin ahala etxetik ateratzen ziren: bizkorrenak moja-fraideen ikastetxeetara ikasten eta besteak lanera; neskak, aberatsen etxeetara neskame eta mutilak itsasora, atzerrira (Ameriketara, Txilera, Argentinara, Venezuelara...)...



ETXETIK IHESIAN

Etzetik ihes egin bai, baina norantz ote goaz? Galdetzen zioten euren buruari.

Leku segurura iristea bidaia luzea izan zitekeen eta oso arriskutsua ere bai. Nonahi tiroak, bonba hotsak, etsaiak, gaizkileak, bahitzaileak,... ez zekiten bizirik aterako ziren abentura hartatik.

Lehenengo egunean ikaratuta zeuden, elkarren artean hitzik ere ez zuten egin. Inguruan kea, sua, tiroak eta bonba hotsa besterik ez zuten ikusten eta entzuten.

Horrela sei-zazpi gau eta egun pasatu ondoren, jadanik denak gosez eta egarritz, beldurtuta eta hara-hona noraezean zenbiltzatela, Matxalenek familia galdu egin zuen. Oso ahul zegoen eta bere burua aurrera jarraitzeko indarrrik gabe ikusi zuenean, arbola baten azpian eseri zen norbaitek tiro bat eman eta zerurantz bidaliko zuen esperantzaz.

Ez zekien zelan hartu zuen loak baina esnatzerakoan urrunean kamioneta txiki bat beregana hurbiltzen ikusi zuen. Orduantxe bai, pentsatu zuela bere azkena zela!

Berehala etorri zitzaizkion burura, amak txikitxo zela sutondoan kontatutako istorio zahar haietako gudariak, hiltzaileak, gaizkileak, bahitzaileak... Oinak dardarka, bihotza taupada bizian, non ezkutaturik ez eta bakar-bakarririk.

Konortea galdu eta lurrera erori zen. Halaxe ezagutu zituen Mathieu eta Magi bikote frantsesa.

Ez zekien zenbat denbora eman zuen lotan, zelan eraman zuten... baina esnatu zenean, indar berrituta eta seguru sentitu zen horma zuri-zuriak ziztuen gelaxka garden hartan.

Begiak zabaldu eta berehala hurbildu zitzaion aingeru aurpegia zeukan emakume dotore bat.

- *Kaixo neskato, zelan aurkitzen zara?* –galdetu zion.

- *Oso ondo, nor zara zu, zelan iritsi naiz hona?* – erantzun zion.

- *Magi naiz. Itxura eskasagaz noraezean ikusi zintugun eta zugana gindoa-zela, lurrera siku erori zinen. Batere ondo ez zeundela eta, Mathieuk eta biok kamionetan sartu eta medikuarengana eraman zintugun.*
- *Hasieran medikuak ez zekien bizirik aterako zinenik ere. Eta, nongoa zara? - Magik*
- *Matxalen naiz eta Euskal Herriko gerratik ihesian nindoan gurasoekin eta neba-arrebekin, baina galdu egin ditut.*
- *Zure familia? Non bizi zineten? - Magik.*

Matxalen Magirekin hizketan ari zen bitartean gizon bat sartu zen gelara.

- *Mathieu dut izena eta neskatala hau zelan aurkitzen den jakin nahi nuke*
- *aurkeztu zuen bere burua.*

Matxalen gustura zegoen eurekin hitz egiten. Ahal izan zuenean ohetik altxatu, tripa bete-bete egin eta bere familiaren gorabeherak kontatu zizkien.

Hala, medikuak alta eman zionean, Mathieuk Parisera joateko paperak konpondu eta hegazkinerako txartelak erosi zituen. Bitartean, Magik, Matxalen arropa batzuk eta oinetako dotoreak erosi zizkion.

Dena prest izan zutenean, aireportura joan ziren hegazkina hartzera. Matxalenek lehen aldiz ikusi zituen hegazkinak eta bidaia abentura galanta izan zen. Beldur ederra pasatu zuen!

Parisera iristean familiaren hutsunea ere sentitu zuen, baina haiek ondo zeudela jakinda aukera hura derrigorrez aprobetxatu behar zuen!.

MUNDU HARRIGARRIA! Zenbat zeukan ikusteko eta ikasteko! Inguruko gauza asko eta asko zer ziren ere ez zekien. Zelako dendak, etxeak, eraikinak, autoak... Frantzian denak ziren aberatsak! Gehiegi zen beretzako. Aspaldiko aldiz zoriontsu eta libre sentitzen hasi zen!

Iraila aldera, Frantziako ume guztiak bezala, idazten eta irakurtzen ikasteko garaia zela eta eskolan matrikulatu zuten. Hasieran ez zuen ezer ulertzen eta hormen artean pixka bat preso ere sentitzen zen, baina besteak bezalakoa izan nahi eta besteak beste ikasi nahi zuenez hasiera-hasieratik gogor ekin eta asko eta arin ikasi zuen.

Ez zegoen halako aukera alferrik galtzerik!

Handik urte batzuetara, Euskal Herriko egoera hobetu zenean, Mathieuk eta Magik Berriñondora bisitan joateko proposamena egin zioten. Hirurak joan ziren eta han aurkitu zituzten bere guraso maitagarriak. A ze poza!, elkar ikusteko, ukitzeko eta laztantzeko aukera izan zutenean.

Matxalenen neba-arreba bat ere ez zen Berriñondon bizi, baina bera zetorrela jakitean denak bildu eta elkarrekin egun ederrak eman zituzten txikitako bizipenak gogoratzen.

Oporrak bukatu zirenean, Mathieu, Magi eta Matxalen berriz itzuli ziren Parisera, baina geroztik Gabonetako eta udako oporretan beti joaten ziren Berriñondora.



Naroa Ares Ortuzar

DBH 2. maila

“Txikitatik egon naiz bertsolaritzan murgildurik”

ZUBIA DA NIRE TEILATU

Egun arrunta gaurkoa ere, zubipean ezer gabe, ez janari ez urik, erreka ura soilik, lagunak auskalo! familia ez dut inoiz izan, egun batean dena zubitik behera bota nuen, harremanak, gurasoak, atzean utzi eta kalea ezagutzera irten nintzen. Drogak lagun nituen, eta dauzkat. Behin mundu horretan sartzen bazara, ikusezin izango zaizu irteteko atea, ez duzu giltza inondik aurkituko.

Antzina, orain dela urte batzuk, pertsona arrunt eta langilea nintzen. Goizero ondo jantzita, ekiten nion eguneroko lanari, lanbide izugarri ederra neukan, drogekin eta adikzioekin arazoak zituzten pertsonei laguntzen zetzana. Gurasoak maite nituen, nire lagun, maitale eta irakasle ziren. Gaur egun nire lagun eta maitale bakarrak alkohola, drogak eta zubipea dira... Gurasoak zoritxarrez ahaztuak ditut, eta beraiek ere ni... Ez dut inolako

laguntzarik jasotzen, orain ni naiz lanbide horretako laguntza jaso behar duena; etxeko giltzak errekako ur korronteak eraman zituen.

Zubia da nire teilatu baina soilik marea baxatzerakoan daukat non babestu, non nire burua zaindu, non drogekin tratatu eta non nire botilarekin lo egin.

Goizeko zazpiak eta laurden dira, marea igotzeko ordua jada iristear dago, eta ito ez nadin lehenbailehen beste kale batera diru eske joatea izango da hoberena. Nekez, zubiko eskaileretan gora noa, nire botila eskuan eta motxila lepoan daramatzadala, zubiko gainazaletik herritarren begirada maltzurak jasan beharra daukat; nahiz eta ez didan ardura, barrutik sentsazio deseroso bat sentitzen dut. Nire pentsamendu bakarra, nahiz eta drogen munduko parte hartzaile izan, lehen printzipioa gizabanako arrunta eta biziduna naizela da, besteak bezalakoxea nolabait azaltzeko.


Mateo Zabala kaletik noala, pertsona ugarirekin gurutzatu naiz, gehienak lanera doazenak, eta antzina ni nintzen pertsona gogora ekarri dut; ordu hauetan nire lanera abiatzeko prest nengoen, nire janzkera elegante hura soinean neramalarik, amets hutsa da. Orain telefono kabina baten barnean babestuta nago.



Familia franko ikusten dut irribarrea ahoan dutelarik, kalean barre algara artean doaz goizeko ordu hauetan ere, umeak pilotekin jolasten, txakurrak kaleko izkinetan txiza egiten, gurasoak eskutik helduta oinez, eta adinekoak tabernetan lagun artean eserita karta jokoan Ducados paketea mahai gainean utzita dutelarik...eta ni beti bezala bakarrik eta mozkorturik....beste mundu batean murgildurik....

Ustekabean zarata sumatu dut ene belarrian. “EEEEEEHH! Irten hadi hortik! Joan hire zubipeko txerrikortara!” Nik izuturik eta defentsa gabe korrika egiteari ekin diot, lepoko pisuaren ondorioz estropezu egin eta eskuan neraman botila baliagarriak lurrarekin talka egin du, horrela 1013 zatitan txikituz; goizeko 11:12an nire ondoko laguna galdu dut, Don Simon botila.

Triste eta lagun bat gutxiagorekin jauzi batean lurretik zutundu eta bidean jarraitu dut. Zubirako 100 metro soilik falta dira, eta oraindik ez da marea guztiz jaitsi; 12etan helduko da beheko tope-topera, hortaz minutu gutxirako zubirantz jotzen duten eskaileretan jesarri naiz.



Nire pentsamenduak nahasiak ziren, amets gaiztoen multzoa neukan burua zorabiatzen, gurasoak, maitasuna, sexua, lagunak, botila, jeringila, pastillak, teilatu bakarra, segurtasuna, arriskua, eta nabariena, bizia berreskuratzeko desira eta itxaropena...PIIIIIIIIII PIIIIIIIII! Kamioi bozina entzundakoan, begiak bat batean ireki ditut eta segidan nire begirada erreka uraren mailara eta neurrira abiatu da. BAT, BI ,HIRU, LAU eskailera jaitsi ditut eta erreka ur zikinak bustitako belar kutsatuan etzan naiz.

Goizetik ni neu naiz, ez nago drogen menpean, jada ordua da lo pixka bat egiteko eta laguntza moduan zortzi pastilaz baliatu naiz. Berehala lo sakon batean sartu naiz, inoiz esnatuko ez naizen lo batean.

Sei ordutan lo egin dut, eta nahikoa izan da mareak nire gorputza estaltzeko, baita ozeano bukaezin batera urruntzeko. Indarririk eta taupadarik gabe, noizbait nire teilatu izan zen zubia hilerri bilakatu da, mareek eta drogek, nituen lagunak amaierara eraman naute... Behintzat lasaitasunez....



Oier Orue

DBH 2. maila

“Futbolera eta eskupilotara jolastea gustatzen zait”

BASERRI-ZOOLOGIKOA

Bazen behin, Juanito izeneko baserritar bat. Oiz mendi azpian bizi zen bere familiarekin.

Gizon apala eta langilea zen. Nahiko gaztea, 35 urte ingurukoa. Altua, ile beltza sudur zorrotza, begi ilunak eta ongi jandakoa zen. Eguna jo eta ke ematen zuen lanean: belarra moztu ganaduari emateko, kortan zeuden abereei simaurra atera ... baita ortuan ere lan ugari egiten zuen. Huraxe zen Juanitoren ogibidea: nekazaritza.

Emaztea ere bazuen, Juanita izenekoa. Hau ere oso apala eta langilea zen: janaria prestatu eta etxea gobernatu, arropak garbitu, sikatu eta plantxatu, etxea garbitu eta Juanitok zer-baitetarako laguntza behar bazuen, hari ere laguntzen zion. Hiru seme-alaba zituzten, Peru, Eugenio eta Jesusa izenekoak. Hirurak asko laguntzen zien gurasoei lanean .

Nekazaritza zen Juanitoren ogibide bakarra. Ortuko jeneroa barra-barra ekoizten zuen lursail handi eta zabalak zituelako. Gainera lur oso onak eta emankorrak zituen. Bizkaiko ia plaza guztietara joaten zen saltzera: Gernikara, Markinara, Zornotzara, Durangora... Plazako mahaitxoaren aurrean izugarrizko jende ilarak sortzen ziren haien jeneroa erosteko. Bezeroek esaten zutenez, Juanitoren ortuariak kalitate oso ona zeukan eta gainera prezio ekonomikoan saltzen zituen. Horri denari esker, Juanitok dirua arazorik gabe irabazten zuen, bere familia aurrera eramateko .

Egun batean, Juanito ohetik betiko moduan altxatu, dutxatu, gosaria jan eta kortakoa egitera joan zen .

Simaurra ortura eramatera zihoala, ezusteko ikaragarria hartu zuen etxeko gizonak. Ortu guztia suntsituta zegoen. Seguruenik basapiztiak izango ziren, orkatzak, basurdeak eta horrelakoak izango ziren. Emazteari eta seme-alabei kontatu zien gertatutakoa.

Denak penaturik zeuden. Juanito haserre biziz zegoen , haserretzekoa zen, zeren bere negozioa pikutara joan zelako aldi baterako basapizti batzuen erruz. Juanitok berriro erein zuen ortuaria eta haren inguruan sarezk hesi bat ipini zuen. Eta gehitzeko artzain elektrikoa.

Nekazariaren ustez nahikoa izango ziren berak ipinitako gauzak basapiztiak geldiarazteko eta horrek lasaitasuna eman zion. Eguna betiko moduan lanean igaro, afaria jan eta ohera joan zen ikaragarrizko logalearekin .

Handik hilabete batzuetara , ohetik altxatu eta bere betiko egunari ekin zion, baina... oraingoan ere gauza bera : simaurra ortura eramatera zihoala berriro ere ortua deus eginda ikusi zuen Juanitok. Bertan ikusten zen orkatzek hesia salto batez igaro zutela hanka argal eta indartsuez.

Eta basurdeak haien mutur gogorrarekin nola igaro zuten hesia zulo bat eginez.

Bere onetik irtenda zegoen gizona. Beste irtenbide bat aurkitzearren, inguruko ehiztariei deitu zien basapiztiak ehizatzeke. Berak ere eskopeta bat erosi zuen eta gauetan ortua zaintzen geratzen zen etortzen ziren animaliak uxatzeko. Hurrengo asteak ederki joan ziren Juanitorentzat, baina behin eta berriz etortzen zitzaion burura ea zergatik etortzen zitzaizkion basapiztia haiek bere ortura. Batetik bazekien, bere ortuarua oso goxoa zela; baina bestetik ez zekien, zeren normalean basapiztiak basoan geratzen ziren. Horregatik, haiek ehizatzea txarto zegoela iruditu zitzaion eta ehiztariei ez ehizatzeke eskatu zien. Berak ere utzi zion ehizatzeari eta basapiztiak aztertzeari ekin zion. Juanitok aurkitu zuen arrazoia: basoak botatzea. Basoen jabeek bertako zuhaitzak bota eta, apeak eginez, saldu egiten zituzten. Askok ez zituen berriro zuhaitzak landatzen, eta gero, lurralde hark ez zuen balio izaten basapiztien beharrianetarako: aterpea, kamuflajea, habia ...


Juanito irtenbide bat atera nahian zebilen hori ez gertatzeko .

Basoetako jabeekin hitz egin zuen baina ez ziren ondorio batera heldu. Harro zaputuz eta alper batzuk ziren. Zuhaitzak saltzeagatik oso aberats egin ziren eta haiek jende normala pobretzat hartzen zuten; hau da , besteen sorbaldeetatik gora ikusten zuten euren burua. Aberatsak zirenez, ez zuten inolako lanik egiten. Gainera, Juanito ekologistatzat hartu zuten haien lurraldeetan berriro zuhaitzak sartzeko kontuarekin etorri zelako. Muturrak apurtu beharrean ibili ziren iskanbilaka. Azkenean, Juanito kokoteraino jarri zen eta haiengandik aldentzea erabaki zuen.

Etxera iritsi zenean , Juanito egunkaria irakurtzen hasi zen. Gogaitzen hasia zen, baina etxeko lanak eginda zituenez, eta beste zereginik ez zenez, irakurtzen jarraitu zuen. Artikulu bat irakurtzen zebilen, zoologiko bati buruz. Juanitori orduan aurpegia argitu zitzaion . Ideia paregabe bat otu zitzaion: lur zabal eta handiak zituenez, lur zati handi bat basapizti bakoitzaren ekosistemara egokitu eta zoologiko bat bilakatzea eta ondoren bertara eramatera!

Bere familiari kontatu zion dena eta martxan jarri ziren .

Zoologikoa prest egon zenean jende asko joaten zen. Bertako sarrera kontratzean gain bezeroei bere barazkiak saltzen zizkien. "Bi txori tiro batez". Zoologikoa eman beharrean safari baten itxura zuen. Horrela Juanitok bere arazoari konponbide jatorra aurkitu zion.





Joane Aberasturi

DBH 2. maila

“Oso gustuko dut nire lagunekin ahal dudan denbora gehien pasatzea

INOIZ EZ BAZTERTU BERRIA ETA EZBERDINA

- *Maialen, Maialen ...* –garrasika deitu zidan amak.
- *Ama, larunbata da, bost minutu gehiago!* - erantzun nion nik gogo askorik gabe.
- *Altxa zaitez ohetik oraintxe bertan! Gaur, Madrileko osaba-izeba eta lehengusina datoz! Mugi zaitez!* –garrasi egin zuen berriro ere.
- *Banoa ama... lasai!* –erabaki nuen azkenik.

Larunbat hartan asko kostata, ohetik jaiki eta gure Madrileko osaba-izeba eta lehengusina zetozen. Haiek asteburu bat pasatzera zetozen eta ni irrikitan nengoen osaba Pablo eta izeba Gema ikusteko. Baina arduratzen ninduen gauza bat zegoen, beraien alaba berria. Amak, asko hitz egin zidan berataz; Argentinan jaioa zela, bere benetako gurasoak hilda zituela, duela oso gutxi adoptatu dutela, eta nik bezala, hamalau urte zituela.

- *Maialen, zatoz gonbidatuentzat askaria prestatzen laguntzera!* –entzun nuen ahots bat sukaldetik; aita zen.
- *Aita, oraintxe bertan jaiki naiz!* – erantzun nion marmarka.
- *Ongi da baina lehendabizi erantsi pijama eta garbitu aurpegi hori!*

Esan bezala, dutxan sartu, xanpuarekin gorputza igurtzi eta bertatik irteten nintzen. Amak erositako etxeko arropa berriak jantzi nituen, aurpegia eta hortzak garbitu, eta sukaldera joan nintzen.

- *Esandakoa eginda! Prest nago!* –esan nion sukaldera heltzean.
- *Oso ondo, jar ezazu mahaia seientzat-* erantzun zidan.

Aitaren txistu soinuarekin batera, platerak banatu nituen.

- *Zatoz pixka batean* - esan zidan.
- *Zer behar duzu?*
- *Emadazu zure iritzia, itxura gozoa ahal dauka zopak?* –esan zidan oso pozik.
- *Nik ere hori jan behar al dut? Zer da hori?* –garrasi egin nion nik.
- *Argentinako zopa tipiko bat da. Badakizu, Estefaniarentzat gustukoa izan dadin ahaleginak egin behar ditugula.*
- *Putza! Neskata berri horren erruz zopa nazkagarri hura jan beharko nuen* –pentsatu nuen neurekiko- *gaizki goaz jada. Estefania? Estefania? Baina zer izen mota da hori ...*

Etxea ondo apainduta zegoenean eta mahaia oso txukun ipinita, txirrin hotsa entzun zen etxe osoan.

- *Banoa!* - esan zuen amak.

Orduantxe irrika biziz sarrerara korrika abiatu nintzen. Hantxe zeuden izeba eta osaba beti bezala jator eta lirain, irribarre handi batekin eta nik ere

beste batekin bi muxu eman nizkien bakoitzari. Bat-batean atearen ezker-retik, nire altuerako neska bat sartu zen, azal beltzekoa! Oso lotsatia zen. Ni ere izututa, pauso bat atzera eman nuen.

- *Begira Estefania, hau Maialen da. Zure adin berekoa da.*
- *Kaixo!* –esan zidan berak erdi lotsaturik.
- *Kaixo!*- erantzun nion pixka bat geroago, oraindik harriturik nengoen-eta.
- *Beno, etor zaitez gurekin, etxea erakutsiko dizugu* -esan zuten nire gurasoek neska hartaz maiteminduta egongo balira bezala.

Nire osaba eta izeba ere beraien atzetik etxea ikustera sartu ziren. Bazka-lordu osoan berarekin hizketan edo berari buruz kontuak kontatzen eman zuten. Beraz, telebista ikustera joatea erabaki nuen.

- *Nahi al duzu herritik paseatzera joan?* –proposatu zuen aitak.
- *Nola ez, osaba!* – erantzun zuen berak konfiantzarekin.
- *Eta ni, zer? Inork ez dit beraiekin joateko gonbidatu behar ala?* –pentsatu nuen.- *Lasai Maialen, soilik asteburu bat da* - esan nion neure buruari eta bat-batean atearen hotsa entzun zen-.
- *Zeeeeeer? Ni gabe joan direla?* –esan nuen ahots nahiko altuan-. *Ondo da, ba... nire lagunekin joango naiz faltan botatzen ez banaute!*

Arratsalde nahiko dibertigarria izan nuen lagunekin baina nire gurasoek pixka bat arduratzen ninduten eta Estefania delako kanpotar nazkagarri horrek ere.

- *Etxean nago!*-garrasi egin nuen etxeko atea gurutzatzean. Nire mahai joko gogokoenarekin zebiltzan gurasoak, izeba, osaba eta Estefania. Joko hori, urtero Pablo eta Gemarekin jolasten nuena zen! Umore txarrez haiengana hurbildu eta esan zidan amak:
- *Maialen, gonbidatuak etxean lo egiten geratuko dira gaua pasatzeko da-goien ostatua itxita baitago.*

Orduantxe jasan ezin nuen egoera batean nengoenez, korrika nire loge-lara joan, gelako atea amorru biziz itxi eta negar egiteari ekin nion ohean etzanda.

- *Zer gertatzen zaizu, Maialen?* – sartu zen bat-batean ama.
- *Gutxienez gaizki nagoela konturatu zara...* –erantzun nion malko artean.

- Badakit Estefania dagoenetik gutxiago gaudela zurekin baina berarentzat oso zaila da hainbeste gauza berri hain denbora gutxian ikustea, lagundu egin behar diogu! Egidazu kasu, oso neska jatorra da! Zuretzat itxura arraroa izateagatik ez duzu baztertu behar, berarekin gauza asko ikas ditza-kezu!

Momentu hartan, arrazoi zuela kon-
turatu nintzen eta muxu bat eman nion
ohera sartu aurretik.

*- Kaixo Maialen! –sartu zen bat-batean
Estefania.- Eskerrik asko zure logelan
lo egiten uzteagatik!*

*- Ez da ezergatik- erantzun nion ahots
baketsuan.*

*- Oso jatorra zara, nahiz eta asko ez
dugun hitz egin! Gehiago elkar ezagutzea gustatuko litzaidake.*

*- Zu ere oso jatorra zara eta niri ere gustatuko litzaidake zure bizitzaz
zerbait kontatzea, azken batean lehengusinak gara!*

- Noski! Zatoz nire ohera, oso istorio politak dauzkat kontatzeko!



Horrela, gau osoa hizketan eman genuen bere kultura eta herria direla-
eta. Egia esan, gauza mordoa ikasi nituen sekulan imajinatu ez nituenak eta
hainbeste negar egin eta gero bera agurtzean, nire eguneroko bizitzan beste
kulturetatik ikastea ere kontuan hartuko dudala uste dut.



Ainhoa Zarrabeitia Zabala

DBH 2. maila

“Lagunekin egotea dut gogokoen”

TXALUPA BAT ITSASERTZEAN

Mikel gizon bakartia zen, ez zuen lagunik. Baina ez besteek alde egiten ziotelako, bakardadea maite zuelako baino. Etxean geratzea atsegin zuen. Erosketak egiteko irteten zen bere etxetik bi pausotara zegoen supermekatua. Horrelakoa izan arren, abenturazalea ere bazen, asko irakurtzen zuen horietakoa eta liburuetakoa orrien artean irudikatzen zuen bere paradisua.

Halako batean, bere eguneroko monotonia apurtu zuen notizia heldu zitzaion: osaba batek, herentzian utzi zion uharte bat. Agian, piratek itsasoan agintzen zuten sasotik zetorren uharte hura eta, auskalo zelan iritsiko zen osaba horren eskuetara. Mikelek aspaldian pentsatuta zeukana burutu zuen eta hiria utzi eta toki bakarti horretara ihes egin zuen.

Uharte, egia esan, ez zegoen batere gaizki: ur garbiko erreka txikiak eta barazkiak berez hazteko moduko lur aberatsa,... Berak eramandako oiloak ere bazituen eta hori guztia berak bakarrik goza zezakeen!

Egunak joan egunak etorri, Mikel barazkiak batzen zebilela, itsasertzean zerbait mugitzen ikusi zuen eta hurbildu zenean txalupa bat zela ohartu zen. Norbaitekin topo egingo zuela pentsatzean pozik jarri zen. Horrela, bada, uharte arakatzan hasi zen baina gaua heldu eta bilatzeari utzi zion.

Hurrengo egunean, oiloei jaten ematera zihoala, kaiola irekitu zuen eta barruan zeuden oiloak berriz bildu eta gero, ohartu zen oilo bat falta zitzaiola. Bere irlan norbait zegoela eta gainera gose zela pentsatu zuen. Horregatik, berriz bilatzeari ekin zion, baina aurreko egunean bezala ez zuen inor aurkitu. Neke-neke eginda zegoen eta ur-jauzi baterantz abiatu zen ur pixka bat edatera. Bat- batean, itzal bat ikusi zuen bere begien aurretik ziztu bizian pasatzen. Hostoak azkar mugitzen ziren, adarren zaratak entzuten zituen,... Nolakoa ote zen etorri berria? Bera bezalako gizaki bakartia ote zen? Mila galdera etorri zitzaizkion burura segundo erdian, baina zer egiten zuen, han zutik, geldi-geldirik? Eta itzalaren atzetik, segika, korrika hasi zen.

Hostoen artetik, adarren artetik, zelai berdeetatik zehar. Ur txikiko erreketatik zehar. Muinoen gainetik, sasiz betetako bide estuetatik. Uharte osoari bira eman zion, hankaz gora jarri zuen. Ez zitzaion gelditu bazter txiki bat ere arakatu gabe. Txoria izan nahi zuen momentu hartan, horrela zeru goitik irla hartako ikuspegi osoa izateko.

Non sartuko ote zen itzalaren jabea? Honela ibili zen segika berriro, gaua iritsi arte. Une batez, pentsatu zuen agian iluntzerakoan etorri berria berarengana hurbilduko zela bere etxolako argia ikusterakoan. Eta hau guztia buruan zuela, bere etxolarantz abiatu zen. Pentsamendu hauekin guztiekin, zein urrun eta zein nekatuta zegoen ere ez zuen igarri.

Hala ere, nolabaiteko zirrara sentitzen zuen bere baitan. Ez zen beldurra, ez, beste modu bateko sentimendua baizik. Agian, ez zen berak uste zuen bezalako pertsona bakartia. Beharbada, denbora larregi zeraman toki hartan inor ikusi gabe. Dena den, gaua zen, nahiko gau iluna gainera. Zerua seta beltzez egindako oihala zirudien. Izarrek ere ihes egingo ote zuten, ezezagunak bezala? Mikelek bideari ekin zion, hurrengo egunean zorte hobea izango zuen itxaropenarekin.

Etxera heldu, afaria prestatu eta ahalik eta lasterren ohera sartu zen. Hasi-
sieran, kostatu zitzaion lokartzea, baina gero lo sakonean sartu zen. Gau
hartan, bazekien zein izango zen bere ametsa: kanpotarra aurkituko zuela eta
oso atsegina izango zela.

Egun berria argitu zuenean, Mikel nagi barik altxatu zen. Gosalduta eta ez
zuen beste ezertarako astirik izan; arrapaladan abiatu zen txalupa agertu zen
lekuraino. Han zegoen, berak lehenengo egunean aurkitu zuen toki berean.
Itsasoko olatu txikiek dantzan jartzen zuten txalupatxoa, dantzari alai eta bi-
zkor bat izango balitz modura. Eta, txaluparen mugimendu politekin batera,
beste hainbat gauza bururatu zitzaizkion.



Bazitekeen txalupa itsasoak gidaturik, bakar-bakarrik, isil-isilik iristea.
Oiloak kaiolatik ihes egin izana eta ura edaten zegoenean ikusi zuen itzala
zuhaitz batena edo ihes egin zuen oiloarena izatea.

Mikelek, zoratzen hasia zela nabaritu zuen eta orduak eman zituen haus-
nartzen zer egin. Txalupa hura etxera bueltatzeko deia ote zen? Bere bizia be-
rrizatzeko bidea hartu behar ote zuen? Ez zekien benetan zer egin. Herrian
bizi zenean beti zegoen bakardadearen askatasunarekin amets egiten. Orain,
amestutakoa esku artean zeukan eta ez zegoen ziur lortutako bizimoduarekin.

Uhartean norbait zegoela uste izateak sortarazi zion zirrarak zalantzan
jartzen zuen Mikelen bakardade nahia. Agian, txalupara igo eta lehengora
buelatzeko zen onena edo, bestela, bertan gelditu eta leiala izan bere betiko
ametsari.

Benetan ez zekiela zer egin eta horrela gelditu zen itsasoari begira, luzaroan...



Olatz Goiriena Goikoetxea

DBH 2. maila

“Beste herrietan ere, lanean, hemengo arazo berdinak”

BIZI ITXAROPEN APURRAK

Gaur egun, dena ikusten dugu beltz, etorkizunik gabe, itxaropenik gabe. Batzuetan hain bakarrik sentitzen gara, azkenean, burutik edozer pasatzen zaizula... adibidez zure bizia kentzea. Baina badago gauza bat ia inori ere ez zaiona pasatzen, bizitzaren alderdi goxoak, oroitzapenak, bizitzeko gogoak. Horregatik bakarrik sentitzen naizenean, horixe pentsatzen dut, eta milaka oroitzapen datozkit burura.

Txikitan izandako bizipenak, eta batez ere mundu beltz honetara beste bizidun bat ekartzen duzunean, bere esku txikiak ukitzean, berak ematen dizun maitasuna, konfiantza...

Nik badakit zer den hori, ni ere ama naiz eta, bi haur zoragarriren ama, eta gizon langile baten emaztea. Ni Errumanian bizi naiz eta hemengoa bai dela bizitza latza. Jende asko joan behar izan da hemendik, batez ere lan gabe geratzeagatik. Horietako bat nire senarra da, horregatik bakarrik nagoenean hau idazten dut, bizi itxaropenak galtzean, lasaitu egiten naiz, arazoak bazter batean lagaz.

Gainera asko gustatzen zait idaztea, nire amak beti esaten zidan egunen batean idazle aparta izango nintzela nire barnean ditudan sentimenduak arazo gabe kanporatzen ditudalako.

Momentu honetan hain gaizki sentitzen naiz, ez dakidala zer egingo nuen nire semeak ez banituen nire alboan edukiko. Auskalo. Errumanian ongi nago, babestuta, baina hala ere, nire senarrik gabe hutsune sakon bat sentitzen dut nire bihotzean.

Horregatik, diru pixka bat aurreztuta bera bisitatzeraz joango naiz umeeekin ostiralean, iluntzean. Trena hartuko dugu. Horrela esanda hain erraz, zorakeria bat ematen du, baina ez dakit zer egin: Bizitza bera gabe pasatzen ari zaidala nabaritzen dut, batzuetan orduak eta orduak ematen baititut leihotik begira, bera agertzeko itxaropenetan. Baina ez, bera ordeaz ez da inoiz azaltzen: Horregatik, ni azalduko natzaio.



Azkenean, heldu da ostirala, iluntzea da eta dagoeneko trenean gaude, esan didatenez animalia denda txiki batean egiten du lan.

Ez dakit nola nagoen... pozik parte batetik, bestetik oso urduri: Nola egongo ote den galdezka ari naiz neure buruari.

Batzuetan, denbora aurrera doala nabaritzean, urduri jartzen naiz ez baitakit ongi ari naizen aprobetxatzen nire bizitza. Norbaitek galdetuko balit ea pozik bizi naizen, egia esan, ez nuen jakingo zer erantzun, hitzik gabe gera-

tuko nintzateke. Mundu honetan neuk nahiko nukeen gauza bakarra familia osoa batuta egotea izango litzateke.

Baina orduan leihora begiratzean eguzkia ikusten dudanean, kilimak sentitzen ditut neure barruan eta aldi berean goxotasuna, pentsatzean zorte handia duen emakumeetako bat naizela bakarrik bizitzeagatik, egunero altxatzean nire semeen maitasuna hurbil sentitzeagatik. Eta momentu honetan sentitzen dudana da iritsi garela eta denda oso hurbil dagoela.

Bertan sartzean zarata batzuk baino ez ditut entzuten, dendaren kanpoan denda itxita dagoela jartzen du. Baina aurrera egin eta han ikusten dut nire senarra lurrian, lurrian oihuka, negarrez. Berarengana hurbiltzean bere negar tantak sentitu ahal ditut nire eskuetan, eta anbulantzia etortzen, bera berba egin ezinean, zure azken eskaria burutik pasatzerakoan hitzik ez zaizunean geratzen, zure bizitzako momentu guztiak zure begien aurretik pasatzean.

Orain ospitalean gaude, munduko lekurik txarrenetariko bat, falta zitzaidana...

Arratsaldean, erizain bat ikusten dut nireganantz hurbiltzen, beste bat sorbaldatik eusten ari den bitartean. Kitto, bukatu da, badakit zer ari den gertatzen. Orduan nabaritzen nuen milaka oroitzapen neure burura zetozela, milaka negar tanta nire begietatik erortzen ari zirela, nire bizitzako zergatiak pixkanaka gutxitzen ari zirela.

Etixerako bidean berriz ere, baina oraingoan nire semeak ez daude lo, ez, niri begiratzen ari dira tristuraz, nik zer esango zain, nola gertatu den azaltzeko begira, eta nik zer? Nik zer egin? Nola emango diet nire semeei galdutakoa, aitarekin galdutako guztia? Gogoratzen naiz txikitari erortzerakoan, amarenagana joaten nintzela, arazo hori berak konpontzeko eta berak niri behar nuen guztia ematen zidan, maitasuna eta goxotasuna, baina orain ordeak bakarrik nago; beraz, nire amak ematen zidana emango diet haiei ere.

Heldu gara, etxean gaude eta oraingoan ere ni leihotik begiratzen nago, baina oraingoan ez nago ez inori itxaroten, leihorekin azpiko kaxatxoan familiako argazkiak aurkitzen ari naiz, eta orduan eskutitz bat aurkitzen dut, oraindik ireki gabe dago. Eta nire senarrarena da, orain dela gutxikoa, irekitzean, barruan honekin aurkitzen naiz:

“Begira, ez dut hau orain dagoena baino txarrago jarri nahi; beraz, zuzenean azalduko dizut: hemen ez nago ongi, ordaintzen didatenarekin familia elikatzeko justua dago, eta bakarrik pentsatzean nire familia maitea urrun dagoela, zorakeria bat egiteko gogoia ematen dit. Nik ezin dut jasan gehiago eta badakit urte hauetan gogor egin dugula lan hau guztia aurrera ateratzeko, gure bizitza latza dela, baina, amore ematen dut.

Zaindu zure burua eta baita semeena ere, mesedez.

Gogoratu asko maite zaituztedala eta beti izango dela horrela, barkatu horrela uzteagatik.”

Hau bai ez nuela sinesten eta gainera, barkatzeko esaten dit, oso haserre-tuta egon arren negar tanta bat erortzen ari zait, berau eskutitzera eroriz eta boligrafo beltzaren tinta nire besoetan sakabanatuz.

Lehen esan dudan bezala, jendeak bere buruz beste egiten du hainbeste gauza egiteko eduki arren, zure alboan maite dituzun pertsonak eduki arren, sentsazio berriak probatzeko aukera eduki arren. Jendeak amore ematen du eta horietako bat nire senarra zen.

Baina nik ez dut, ordea, horrelakorik egingo, geratzen zaidana topera aprobeixatuko dut, beti egin nahi izan ditudan gauzak egin eta batez ere nire familiarekin galdutako denbora berreskuratu, horixe da nire azken eskaria.



Olatz Arrizabalaga Munduate

DBH 2. maila

“Kirola oso osasungarria eta dibertigarria da”

ZENBAKI ODOLTSUAK

Kotxeko leihotik ikus nezakeen nire inguruko paisaia aldatuz zihoala. Aspaldi zen hiritik aldentzen ez nintzela. Azken urte hauetan kasu bat beste baten atzetik heltzen zitzaidan. Hala ere, Xabatek deitu zidanean koadrilakoe-kin berriro biltzeko proposamenarekin ez nuen duda izpirik izan opor batzuk hartzerako garaian.

Eta hor ninduzuen, ia munduaren beste aldean zegoen hotel galdu batean asteburua pasatzeko intentzioarekin lagun arte ederrean. Bidaia luzea gertzen zitzaidan oraindik nire helmugara heldu aurretik. Musika jarria nuen nire nerbioak lasaitzeko intentzioarekin. Alferrik ordean jaiotzaz bainintzen neska urduria eta.

O, zein edukazio txarra dudan! Ez dut nire burua aurkeztu. Laura Zabalana izenak eta detektibe autodidakta izenak. Ikasketak amaitu nituenean, polizia postu bat lortu nuen. Eta nahiz eta behetik hasi, laster lortu nuen gorantz egitea. Baina jaitsi ere egin beharko nintzen. Eta hala gertatu zen. Nire garai txarren errua ez zen nire lana txarto egiten nuelako izan. Izan ere, nagusien ganako jaramon faltak ekarri zizkidan arazoak.

Ordura arte ondo joan izan arren horrela, laster jabetu nintzen etsai asko eginak nituela leku hartan portaera horregatik. Beraz, nire dimisio orria eskaini nuen eta nire kontura hasi detektibe lanetan. Arlo horretan onena nintzela esan zitekeen.

Hala eta guztiz ere, hori jakiteak ez zidan laguntzen urduritasuna baztertzen. Hamar urte baino gehiago ziren lagunak inolako berririk ez nuela eta berriro batzeko aukera horrek pozez txoratuta nindukan.

Azeleragailua behar baino gehiago zapaldu eta trafiko arau pare bat edo gehiago urratu ondoren bertan nintzen. Nire lagunekin konpartituko nuen hotel txiki baina eder hartan.

Aparkalekuan sartu nintzen denborarik galdu gabe nire kotxea nonbait aparkatu eta lagunekin bildu ahal izateko. Bertantxe ikusi nituen nire beste bost taldekide ohien kotxeak ere. Azkena nintzela zirudien. Txoko bat aurkitu bezain laster joan nintzen hotel barrurantz eta eurei deika hasi nintzen. Ez nuen asko itxaron behar izan agertzen ikusteko. Irribarretsu nituen denak zain barruan. Xabik denok bere hoteleko jangelara eramaten gintuen berehalaxe.

Afaria bikaina izan zen. Kontu kontari ibili ginen gaztetako abenturak gogoratuz alkohola lagun, batez ere Beñat. Eta denok dakigun bezala edanda gaudenean nahi ez ditugunak esan eta egiten ditugu. Xabiri bere tripa horretan ia ez zuen beste pertsona bat gordetzen galdetu zion. Xabati Jasoneren partetik goraintziak eman zizkion, eta orduantxe ulertu ez nuen arrazoiaren batengatik horrek izugarri aztoratu zuen mutila. Zeruari ea bere senarra nola zegoen galdetu zion, nahiz eta jakin hura aspaldi hilda zegoela. Eta Iruneri begirada oso esanguratsua bota zion, baina ahoa irekitzeko aukera izan aurretik neska altxatu egin zen bere eserlekutik eta bere gelara eraman zuen Beñat.

Laster bakarrik geratu nintzen. Banan-banan bakoitzak bere aitzakia esan eta jangelatik irten ziren. Gelan isiltasuna nagusitu zen, nire lagunenean pauso hotsek soilik apurtzen zutena. Ordu laurdenez egon nintzen horrela. Denbora hori igaro eta inor jaisten ez zela ikusita, euren bila igotzea erabaki nuen. Eskaileretako lehen mailan nengoela entzun nuen garrasia. Norbait oihuka zebilen goialdean. Ahalik eta arinen abiatu nintzen oihu horren sorlekura eta han ikusi nuen Zerua, Beñaten gelako ate aurrean garrasika. Beñat hilik zegoen bere gelan.

Denak etortzen hasi zirenean atzean gelditzeko eskatu nien. Gorpurantz urreratu nintzen heriotzaren zergatia aztertzeko. Hor zegoen. Urdaila egon behar zen lekuan zirkulu txiki eta oso sakona zuen. Hurrengo ordua, heriotzaren orduan bakoitza non zegoen eta hildakoarekin zuten harremana aztertzen eman nuen. Izan ere, denak ziren susmagarri, denek zuten arrazoiren bat bera hiltzeko.

Zirudienek Zerua, bere gelatik bueltan, Beñaten atea erdi zabalik ikusi zuenez, zerbait gertatu ote zitzaion jakiteko atea zabaltzeko omen zuen. Horrela aurkitu zuen hilotza. Xabi eta bere arteko harremana betidanik zen traketsa. Ez ninduen asko harrituko hark hil izana bere irainek nekaturik. Beste aldetik, Xabat genuen, Beñatek bere emaztea kendu omen zion orain dela hilabete gutxi. Eta gainera, bera izan zen bategite honen ideia izan zuena. Hala ere, berari hori esan nionean erantzun zidan Zerua zela bera hiltzeko arrazoirik handiena zuena, Beñatek txantajea egiten baitzion. Baina Zerua dena ezeztatu zuen eta, gelara igo zuenean, Irunek zeukan urduritasuna gogorarazi zidan.

Orduantxe ikusi nuen. Beñaten gorpuaren alboan, bere besoak erdi ezkutatuta zuen irudi moduko bat ageri zen. Froga hura hobeto aztertzeko hurbildu nintzen.

- Badakit nor den honen guztiaren erruduna. Hemen dago frogak – jakinarazi nien –. Nahikoa guri pista bat utzi ahal izateko. Ikusi arretaz irudia. Gogoratuko duzuenez, Beñatek beti zioen bera zela bere izenean zenbaki bat ez zuen bakarra. Bada, zenbaki bat erabili du hiltzailea nor den markatzeko.

Egia zen. Lurrean odolez margotutako zenbaki baten zirriborroa ikus zitekeen: 3 zenbakia zen. Irune, hori ikusirik, lurrera jausi zen negar zotinka.

- *Engainatu egin ninduen. Berarentzat gauzarik garrantzitsuena nintzela esan eta beste batekin joan zen niri ostikoa emanda. Ezin nuen utzi, ezin nion barkatu. Ulertu egin behar duzue...*

Handik ordu batzuetara poliziak agertu ziren Iruñe eramateko. Oso gogorra izan zen nire lagun bat kartzelaratzeko. Nire bizitza osoan egin nuen gauzarik latzena. Baina inork ez zidan esan sekula detektibeen bizitza erreza izango zenik, ezta gutxiagorik ere. Nork esango zidan asteburu zoragarria odolez tindatuko zenik!

Burumakur kotxean sartu nintzen eta etxerantz abiatu nintzen. Kasu berrien bila, arrisku berrien atzetik, gaizkileak harrapatzera ...





Lourdes Ondaro Mallea

DBH 2. maila

GORRIA ZURIAN

Goizeko zazpiak bueltan jo zidan iratzargailuak. Loguraz oraindik, jagi eta leihoa zabaltzera joan nintzen, pixka bat itzartu guran. Ingurua zelan zegoen ikustean, ostera, eskolara ezingo nintzela joan ondorioztatu nuen, gutxi gora-behera belaunerainoko elur kapa zegoela zirudien eta. Horrela, berriro sartu nintzen izara artera, apur bat gehiago deskantsatzeko asmoarekin.

Hamarrak inguru izango ziren bigarrenenez altxatu nintzenean. Oraingoan, etzanda geratu nintzen apur batean, nagituta nengoelako, oheko epeltasun hartan. Jagi nintzenean, (kostata, ez pentsa) leihoa zabaldu eta neguko egun hotz horietakoa zela ikusi nuen, dena elurtuta, eguzki zuritan distiratsu. Naturak soineko zuria jantzia zuen gauean zehar, oraindik sasoi hartan zuhai-

tzek mantentzen zituzten hosto arreen artean tartekatuz. Oiz mendia ere zuri-zuri zegoen, tontor aldean lainopean. Han goian ez zela giro izango oldoztu nuen, elurra mara-mara eta haize errotek sortzen zituzten aire zurrumbiloe-ekin, eta babestuta sentitu nintzen etxeko goxotasunean.

Egunean zehar egingo nituen gauzak pentsatzen hasi nintzen ondoren, janzen nintzen bitartean. Gosaldu eta gero, basoan ibilaldi bat ematea pentsatu nuen, naturaz gozatzeko. Desiratu nuen bakarra elurra kentzeko makina ez etortzea izan zen, paisaia eder hura eta bide batez nire egun libre-a ez hondatzeko.

Hala ba, sukaldera joan eta gosaria prestatzeari ekin nion. Lehenengo, laranja-zukua edan nuen, egunkaria irakurtzen nuen bitartean. Bertan, azalean, krisi ekonomikoaren gorabeherak zetozen, barnealdean, aldiz, Ipar Koreako armada Estatu Batuetakoarekin batera egitera zihoazen maniobren berri ematen zuen. Pentsatze hutsarekin hotzikara sentitu nuen bizkar hezur-rean gora, eta esnearekin batera hartzeko tostadak egiten hasi nintzen, pentsamendu haiek burutik kentzeko asmoz. Horretan nengoela, lagun-en bati deitzea bururatu zitzaidan, goiz hura nirekin pasa zezan. Estiri deitu nion.

Gosaltzea bukatu nuenean, kanpora atera nintzen elurretako arropak jan-tzita. Botak ipini eta Motroilorantz abiatu nintzen. Dena zuri-zuri zegoen, eta tenperatura zeropetik, nire kalkuluen arabera. Paretik orkatz puska bat pasatu zitzaidan, txikiago bat atzetik zekarrela goizean paseatzera atereak.

Estirekin geratua nintzen lekura heldu eta oraindik ez zegoela ohartu nintzenean, izkina batean eseri eta inguruari so geratu nintzaion. Leku hura basoaren ondoan zegoen, eta pago eder baten adarre-i begira nengoela, ka-tamixar bat ikusi nuen bertan, guztiz izututa niri begira. Isats luze iletsua zuen, gorri-gorria, gorputzaren luzeraren erdia baino gehiago bera. Ni zer motatako izakia nintzen galdetuko zion bere buruari. Animalia zoragarri hari begira nengoela, Esti atzetik hurbildu zitzaidan, isil-isilik, susto bat emateko asmotan, eta baita lortu ere. Ia erori nintzen elurtzara arineketan hasi nint-zenean zer zen ez nekien gauza harengandik ihesi.

Estualdia pasatzean eta ongi segurtatu ostean atzetik hurbildu zitzaidana Esti zela eta ez munstroren bat, biok batera jarraitu genion bideari, noizean behin izotz plakak saihestuz, gauean egin zuen hotzak leia ekarri baitzuen.

Abenduaren hasieretan, natura erretiratzeko prestatua zegoen jada, neguarekin batera lokartzeko. Halaxe, puntarantz hurbiltzen gindoazen heinean, gero eta elur gehiago zegoela konturatzen ginen, jada belaunen pare-raino heltzen zitzaigunez boten barruraino sartuz. Laster geneuzkan hankak guztiz blai.

Tontorrera heltzean, paisaia eder hura bistaratu genuen, eta bokadiloak jaten genituen bitartean ez genuen ia hitzik ere egin, gure inguruarekin liluraturata.

Horretan geundela, gu konturatu orduko ekaitza gainean geneukan. Dena ilundu zuen, eta laster jo zuen trumoiak ere, oinaztuaren ondoren. Berehala hasi zen elurra mara-mara.

Ahal bezain bizkor beherantz jo genuen, etxera heltzeko gogoz, ordurako nahiko hoztuta geundelako. Pare bat ordu lehenago geratuak ginen lekura heltzerako, busti-bustita geunden, elurrak, lehorra izan arren, busti egiten baitu.

Orduantxe, tximistak zuhaitz zahar bat jo eta su hartu zuen. Ikaragarria izan zen, gure gain aldean zegoen zuhaitz lehortuaren adarrak alde guztietatik erortzen ziren sutan. Berotasun gorri haren erdian, lehenagoko katagorriaz oroitu nintzen, eta zer nolako sustoa hartuko zuen pentsatzen hasi nintzen. Horretan nengoel, a atzera begiratu eta... “kontuz Esti!” lagunari esateko denbora izan nuen, sutan zegoen enbor zati bat ondora erortzean. Segundo batzuk zer egin ez genekielarik geldi, elkarri begira egon ostean, libre zegoen alderantz abiatu ginen korrika, hau da, nire etxerantz, beste aldea sutan zegoen adar batek oztopatzen zuelako.

Arineketa batean gindoazela, buztan gorri luze eta eder bat zuhaitz artean ezkutatzen ikusi nuela iruditu zitzaidan. Lasaitu makala hartu nuen!



Maider Bilbao Ozamiz

DBH 3. maila

“Goza dezagun euskaraz idatziz”

LATZA BEZAIN EDERRA

Irudimena, iritziak, pentsamenduak, ametsak, eskubideak...beti gorde behar izan ditut neure buruko kaxa ezkutu batean edo inork ikus ez zezakeen toki ilun eta baztertu batean. Neure ideiak munduari zabaltzea debekatuta neukan, hau guztia hitz batzuekin laburbil dezaket: Emakume txinatarra.

Hiromi deitzen naiz eta hemen duzu neure istorioa.

Yamei zuen izena nire aitatxo maiteak. Beno, ez dakit maitetxoa zela esan dezakedan, izan ere, egin nahi ez nituen gauza asko egitera behartu baininduen. Dena dela, oso gizon jakintsua eta zenbait gaixotasun arraro sendatzeko gai zen. Baina, benetako meritua bere aitarena eta aitonarena izan zen, dudarik gabe, haiek izan baitziren sendagaiak asmatu zituztenak.

Edozein txinatar arrunt bezala, alaba bakarra nintzen, legeak zioen bezala eta nire ama nire aitaren menpe zegoen, ni bezala. Horregatik, berak zioen gizon ezezagun eta aberats batekin ezkondu behar nintzela. Dena dela, hori gerta aurretik nire aitak inoiz barkatu ez zidan gertaera batekin gogoratuko naiz neure bizitza osoan.

Dena hasi zen hogeit hamar urte nituenean. Urte bat soilik gelditzen zitzaidan ezkontzeko eta zoriontsua izango ez nintzen pertsona preso bat bihurtzeko.

Baina, bat-batean, Estatu Batuetako gizon bat iritsi zen gure herrixkara. Zirudienez, botika txikitxo bat zeukan non belar sendatzaile batzuk soilik saltzen zituen. Nire aitari buruz hitz egin zioten eta Yameien bila etorri zen.

Gizon hura Txinako bazter galdu batera heldu zen hurrengo egunean, gure etxe txikian azaldu zen, erle bat bere lore xarmangarria aurkitzen ibiliko balitz bezala. Hara joan nintzen atea irekitzera, zurezko zutabe horren beste aldean zerbait ikusgarria zegoenaren esperantzarekin. Horrelaxe izan zen; gizon ile hori, gihartsu eta begi argiduna. Hasiera batean, edonor maitemindu zitekeen, gazte azkar eta pixka bat misteriotsua zela iruditu zitzaidan. Hori gustuko nuen. Sartzeko esan nion ezer jakingo ez banu bezala. Oraindik gogoratzen dut izan genuen hizketaldia:

- *Kaixo! Nor zara zu?*
- *Bai, ni Taylor naiz. Zu al zara Yameiren alaba?*
- *Bai, ni naiz. Hiromi dut izena. Zer dela eta zure bisita??*
- *Zure aitaz oso ongi hitz egin didate eta berarekin hitz egitea gustatuko litzaidake, ahal bada.*
- *Noski, berehala etorriko da. Bitartean zerbait nahi al duzu? Te bat, zerbait jateko...*
- *Zure konpainiarekin nahikoa dut.*

Nire masailak gorritzen hasi ziren, ez nuen neure aurpegia ikusten, baina bere alkandora baino koloretsuago nengoela nabaritu nuen. Hura izan zen bidali zidan lehen lorea eta azkena ez izatea espero nengoen. Bost minutu haiek nire bizitzako onenak izan zirela iruditu zitzaidan, batez ere ni neu izan nintzelako, neure ideiak eta pentsamenduak azaldu nizkiolako eta bera, ume bat bezala bere gaueko liburua irakurtzen diotenean, arreta batean egon zen niri entzuten. Berak ere gauza asko kontatu zizkidan, beno bost minututan gauza askori buruz ezin daiteke hitz egin. Dirudienez, txinatarrez hitz egitea

bere osaba txinatarrari eskertu behar zion, berak irakatsi baitzion. Gure etxetik bi kilometrora etxetxo bat zeukan bere osabarekin eta han igarotzen zituen udak haurra zenean.

Bat-batean nire aita agertu zen eta ordu bat baino gehiago egon ziren hizketan. Ez dakit zergatik igaro zuten hainbeste denbora, ezta zergatik utzi zuen nire aita hain pozik. Baina afarian geunden bitartean, nire aitak aitortu zigunez, akordio arrakastatsu batera iritsi omen ziren. Zirudienez, gazteak Yamei zaharraren belarrak Estatu Batuetan saldu nahi zituen. Izan ere, bere negozioa oso ongi zihoan, baina saltzeko produktu gehiago balitu, hobe.

Azkenik aitak baietza eman zion eta zenbait errejeta erakutsiz eta emanaz, zaharrak ere diru pixka bat atera zezakeen, askorik ez, baina dezente.

Egun hartatik aurrera Taylor egunero egoten zen nire etxean, nire aitaren ikasle bezala eta nire lagun onena egin zen. Horregatik, larunbat zoragarri bat berarekin igarotzera gonbidatu ninduen. Belardi zoragarri batera joan ginen, askari izugarria prestatu zidan... txori aske bat sentitu nintzen, baina momenturik kuttunena eta gehien espero nuena iritsi zen.

- Nire bizitzako momentu gehiago zure ondoan igaro nahi ditut.-esan zidan.

- Niretzako oso pertsona garrantzitsua bihurtu zara eta... m..ma...maite zaitut!-erantzun nion.

Horrela igaro genituen egunak eta gauak, baina noski, inork ezer jakin gabe. Izan ere, nire aita enteratu izan balitz... ez nuen inoiz gehiago ikusiko, bizitza osoan zigortua egongo nintzen.

Maitasunez beteriko gau izartsu eta liluragarriak igaro genituen, non benetako protagonistak geure garrasi leunak eta izerdiz bustitako bizkar distiratsuak ziren.



Haietako batean haurdun geratu nintzen.

Taylorrek herritik alde egin behar izan zuen haurdun nengoela inork jakin baino lehen. Izan ere, Txinan hain lege gogorrek edukitzeak ondorioak zekartzan. Harrapatu izan balute, izugarrizko zigorra leporatuko zioketen.

Lau hilabete igarotakoan, nire sabela gutxika-gutxika haziz zihoan eta nabaritzen zitzaidan ez zela kilo pare baten kontua.. Horregatik egun batean, aitak galdetu zidan ea bere irudimena zen edo bere alabatxoa haurdun zegoen. Burumakur, buruarekin keinuak eginez baiezkoa aitortu zion. Nire aita zoro baten pare jarri zen, esanez ea norena zen eta nola izan nintzen hori egiteko gai. Hiru hile besterik ez zitzaizkidan gelditzen neure senargaia ezagutu eta berarekin ezkontzeko. Baina ni kexaka azaldu nintzen nire aitaren aurrean, beti egin behar bainuen aitak esaten zuena eta derrigortu egiten ninduen nahi ez nituen gauzak egitera. Aitak jipoi gogorra eman zidan eta nire aurpegia more koloreko kolpe nabarmenekin geratu zen. Taylor haurraren aita zela aitortzean, aita bera ere aurkitzen saiatu zen, baina arrastorik ere ez zuen utzi hark. Egunak geroago, etxetik alde egitera eta bere familia berriro ez ikustera behartu ninduen..

Nire bizitzako beste momentu xarmangarri bat nire alabatxoa jaio zenekoa izan zen. Momentu hartan gehien faltan bota nuena Taylor izan zen. Bere beroa nabaritu nahi nuen eta igande arratsalde haietan bezala lore txikitxo bat nire belarri atzean jartzea gustura hartuko nuen, beti bezala.

Urteak aurrera zihoazen eta haur eder hura bere aita gabe hazi zen. Nik ez nion inoiz kontatu ezer bere aitari buruz; ez nekien zergatik, agian beldurragatik.

Berrogeita hamar urterekin hil zen Hiromi bihotzekoak jota. Aurretik gutun bat idatzi zion bere printzesari. Gutun horretan dena kontatzen zion: nor zen bere aita, nola ezagutu ziren...

Horregatik alabak lurrak eta zeruak mugitu zituen bere aita topatzeko eta egindako ahaleginaren ondorioz aurkitu zuen. Familia eder bat zeukan osatua hark. Zenbait ordutan berarekin hitz ondoren, aitaren begiak distira batean zeuden, negar malkoak noiz erortzeko zain. Aurrerantzean elkarrekin bizi izan ziren Kaliforniako etxetxo batean.



Irati Asategui

DBH 3. maila

“Lagunekin egotea eta paseatzea gustatzen zait”

BIDAIA EZ HAIN LUZEA

1782ko maiatzaren 5a:

Non dago bakea? Non dago poza? Biak joan al daitezke nire askatasunarekin? Familiaren falta sumatzen dut. Non egongo ote dira? Eta, garrantzitsuena, bizirik edo hilik, nola daude? Agian, ondo joan zaie. “Ihes egin ahal izan dute” dio nire barruan ahots batek. Jada ezin dut gehiago eta konturatu gabe negarrez hasi naiz. Ondo daudela esaten didan ahots hori gero eta ahulagoa da eta buruan, haiek hilda daudenaren pentsamen-
duak kendu ezinik, ez naiz konturatzen kanpoan gertatzen ari denaz.

Duela hiru egun nago preso; nire familiarekin ekialdeko harresia zeharkatzen saiatzen nengoenean harrapatu ninduten, baina beraiek harre-

sitik kanpora iristeko denbora eman zien. Horregatik ditut orain tortura gelak uzten dituen markak gorputzean. Baina beraiek salbu daude orain, salbu egon behar dute!

Beste preso batzuekin nago gela batean. Dirudienez, matxino izate-agatik eraman zituzten preso. Zerbait esaten ari dira, baina ez ditut entzuten, nire pentsamenduetan galduta eta ia lo bainago. Bat-batean zerbaitek errealitatera itzularazten nau. Soldadu batzuek janaria ekarri digute, betiko berdina: ogi errea eta ura. Baina egunean behin bakarrik ekartzen digute janaria eta nik bizirik iraun nahi dut, egun batean ihes egiteko matxinatuekin. Isiltasunean jaten hasi gara; pentsatzen nuena, ogia errea dago, txakurrek ere ez lukete jango. Jaten amaitu, nire manta hartu eta alde batera joan naiz. Lo egiten saiatzen ari naiz, esnatzean etxean egoteko itxaropenarekin. Agian esnatzean etxean egongo naiz, hau guztia amesgaizto bat baino ez da izango eta amak gosaria prestatuko digu. Gogoan dut familiarekin egindako azken gosaria. Aita txisteak kontatzen hasi zen eta neba txikiena negarrez hasi zen hortz bat jausi zitzaiolako. Denon barreak txikiaren minengatik eta amak neba-arreba nagusiei ikaragarritzko oihuak eta protestak beraien portaera dela eta. Txikiena du berak begikoen. Hain urrun egiten zaizkit orain... Hiru egunetan ikaragarri aldatu naiz. Jada ez naiz duela hiru eguneko neskatxa tuntuna. Bizitzak dena kendu ahal dizu edozein momentutan eta hobe da daukazuna galdu baino arinago aprobeztatzea.

Bihar matxinoekin ihes egiten saiatuko naiz eta nire askatasuna berreskuratuko dut. Plana nahiko sinplea da, matxinoek soldadu arropak lortu dituzte guztientzako eta jatekoa ekarriko digun soldaduari aurre egingo diogu.

1782ko maiatzaren 6a:

Plana behar bezala doa. Pista faltsua bidali dugu, preso batzuk men-debaldetik ihes egingo dutela esanez. Planaren lehen fasea bukatutzat eman dezakegu. Bigarren fasea, zailena, martxan jartzeko ordua da.

Bihar ez gara preso batzuk izango, iheslariak baizik. Badakit ez dela asko, baina ahal dena da. Pasilloan hotsak entzuten dira, janaria dakarte. Gure gelako atea irekitzen hasi da, denok gaude geure postuetan soldaduz jantzita. Michelek ahoan zerbait sartu dio eta burua apurtu diote kolpe lehor batez. Jausi baino arinago alde batera eraman dugu.

Seinalea eman didate eta korrikan hasi naiz. Hurrengo irteeran ezkerre-rantz hartu behar dugu eta gero dena aurrerantz.

Oraindik ez dugu soldadu gehiagorik aurkitu bidean. Beste irteera batzuk zaintzen arituko dira. Ideia ona izan da pista faltsu hori bidaltzea. Kanpoan gaude baina ekialdeko basora jo baino lehenago zalditegi-ra goaz korrika zaldia hartzera. Aurkitu eta hartu. Jada zaldi gainean goaz, kanporantz. Ai, ene! Ikusi egin gaituzte. Zaldia arinago joatera behartu ditugu eta basoan sartu gara. Atzetik ditugu, baina, abantaila dugu, lortuko dugu;

1782ko maiatzaren 7a:

Ibaiari segika herrixka batera heldu gara. Arropa eskegita ikusi dugu eta hartu egin dugu. Orain leku seguru bat bilatu behar dugu lo egiteko. Soldaduak atzetik izan ondoren galdu egin ditugu, baina horrek ez du esan nahi bide ona aurkitzeko gai ez direnik. Kobazulo bat aurkitu dugu eta matxinoen kapitainak basurde bat ehizatu du, beste bat egur bila joan da; dirudienez, lehen ehizatik bizi ziren denak bi izan ezik: Michel lehen soldadu izan zena eta William medikua izandakoa. Willamek gure zauri eta gaixotasunak sendatu dizkigu.

Ezin dut familia burutik kendu. Seguru anaia txikienari hortz gehiago erori zaizkiola. Hori bizirik baldin badago. Hobe burutik pentsamendu horiek kendu eta festaz gozatzen dudan! Bihar iparraldera joango gara Nabeli herriko portura heldu arte.

1782ko maiatzaren 8a:

Goizean goiz altxatu eta bidaiari ekin diogu. Baso batzuk zeharkatu ondoren herri txiki batera heldu gara. Soldadu arropak kalitate handikoak dira eta diru mordoxka on bategatik saldu ditugu. Diru horrekin ostatu bateko gela bat alokatu dugu. Janaria lasaia izan da eta arratsaldean bost zaldietako lau karabana bategatik aldatu ditugu. Orain soldaduekin aurkitzen bagara ez dute jakingo gu garenik iheslariak. Familia Nabelin daukat eta bi egunetan helduko gara. Gaur Willamek prestatu du janaria eta ez dugu inor aurkitu bidean. Gidari izateko txanda aldatu dute eta ordu batzuk geroago berriro. Gauean karabana barruan lo egin dugu bidetik hurbil.

1782ko maiatzaren 9a:

Martxan geundela esnatu naiz eta lo ez nengoela ikusita, gosaria eman didate. Umore onean goaz eta bihar Nabelira helduko gara, baina, lehenago beste herri batean gelditu gara janari gehiago erosteko. Soldadu batzuekin aurkitu gara, hau izan da probarik zailena. Zerbait txarto joan da. Soldadu batek ez dio Micheli begirik kendu. Beldur izan naiz. Williamek hitz egin du. Dirudienez, zirko baten zerbitzariak gara eta janari bila bidali digute. Hori entzun bezain laster preso eramango gintuztela pentsatu dut, baina soldadu hauek tuntunak dirudite. Bidaiari berriz ekin diogu, baina, egun oso bat galdu dugu.

1782ko maiatzaren 10a:

Bidaiariak datoz Nabelirako bidean. Abisua eman didate eta atzeko aldera joan naiz. Ahotsak entzuten hasi naiz. Bidaiarietako batek dioenez, Nabeli konkistatu dute. Baina, momentu bat! Karabanatik korrika batean irten eta bidaiariengana joan naiz negarrez. Ni ikustean haiei aurpegia aldatu zaie eta neskak negarrez hasi dira. Haietako batek besarkatu egin nau.

- Ama! Aita! Denok ondo zaudete.

- Alaba maitea, bizirik zaude!

Denok azkenean baturik, ezerk ez gaitu berriro banatuko.



Maria Alberdi

DBH 3. maila

“Ez amestu bizitza, bizi ametsa”

BARROTE ARTEKO BERBA ISILDUAK

Burdinazko kaxa bat dirudi. Iluna, goibela. Begirada batez soilik, hotzikarra ematen du. Eguzki-izpiek barrote gogor eta lodi batean islatzen dute esfortzu handiz sartutako argi apurra. Zorrien antzera gaude, ilez korapilatuta, milaka neska errugabeak garenak.

Oraindik buruan bueltaka daukat irudi hura, askotan bala batez hilko nukeena. Gogoan dut bere ile beltza, maltzurkeriaz betetako aurpegia eta bihotza.

Miren naiz, 26 urte ditut eta ia nire bizitzaren erdia hementxe daramat, barrote artean ezkutatuta. Nire gurasoak hilean behin datoz ni bisitatzerara eta beste familia kideak orain dela lau urte etorri zirela uste dut.

Atzo, eskulanetan genbiltzala, paper sorta bat hartu eta liburuxka bat egitea bururatu zitzaidan. Bertan, nire bakardadea, malkoak eta nire hitzak gorde nahi ditut.

18 urte nituenetik nago hemen, baina bizitza osoa pasatu dela ematen du. Garai hartan, institutuan nenbilen batxilergoko bigarren mailan. Neska arrunta nintzen, denen laguna, arazorik gabea... orain arte. Institutuko klasea, egia esan oso alaia zen, irribarreka geunden beti baina ikasi ere egiten genuen. Bazegoen neska bat, Andrea, guztietatik ezberdinena zena. Akas dun ikaslea zen, gizona. Bere akatsak ezkutatzeke besteenak ateratzen zituen.

Gure gelan bazen beste neska bat, denetatik ederrena, liluragarriena eta jatorra guztiz. Mutilek gogoko zuten eta ikasketetan trebea zen bera. Maitane, neska guztien inbidia zen. Andreak, beti kritikatzten zuen Maitane. Egia esan, denentzako zeukan zer bait eta mutilen aurrean neskekin oso zirina zen.

Zorigaitz hura gertatu zen eguna malkoz beteta ikusten dut. 1992ko azaroaren 28a. Egun iluna, triste eta euritsua. Ostirala zen. Ohi bezala institutik atera eta etxera bueltatu nintzen, lanak egin eta ordenagailuan ibiltzera. Ordenagailua piztu eta Andrearen mezu bat jaso nuen: ‘Gaur 20:00etan elkartu behar naiz zurekin, lan batzuk egiten lagundu behar didazu. Gasolin-degi zaharrean ikusiko dugu elkar.’

Gasolindegia herriko gunerik baztertuenean zegoen, industria-gunea has ten zen tokian, eta oso arraroa egin zitzaidan leku hartan aurkitu behar izana. Baina ni han joan nintzen nire motorrean, lasai- lasai. Heldu nintzenerako, bertan zegoen Andrea, bere motor gorriarekin. Albora hurbildu eta nire motoa ukitzen hasi zen era arraro batean, laztantzen egongo balitz bezala. Nik harrituta jarraitzen nuen, eta zertan lagundu behar nion esan eta motorrean bere atzetik joateko eskatu zidan. Kale ilun hartatik bide luzea egin ondoren, herriko putzura heldu ginen. Nire begiak aurpegitik irteteko zorian zeuden. Ez nuen ezer ulertzerik lortu putzura hurbildu ginen arte. Irudia kentzen saiatu arren ezinezkoa da. Putzua izan zena, odol bihurtu zen. Maitane hila zuen, ezin nuen ezer sinistu, negar egitea bakarrik otu zitzaidan. Andreak, maltzurkeriaz beterik, ahoa ez zabaltzeko eskatzen zidan. Baina ezin nuen hori egin, ezin nuen Maitane hil zuela inori esan gabe gelditu. Beraz, tapauka tik heldu eta mehatxatu egin ostean putzura bota zuen apaingarri hura.

Ez nintzen egoeraren jabe, ez nekien zergatik niri tokatu behar zitzaidan arazoaren erru guztia izatea. Neskak alde egin zuen eta egun hartatik ez dut bera ikusi eta gogorik ere ez dut. Nik urduritasunak ia janda, poliziari deitzea lortu nuen. Etorri zirenerako, jada, gaua zen eta ez zen batere erraza, begi- nia handitu arren, gauzak fundamentuz ikustea. Dena aztertzen hasi ziren baina nire motorra behatu zutenean hasi zen arazo guztia. Maitaneren odo-

laren arrastoak aurkitu zituzten, baita bere arropetako zuntzak ere. Orduan gogoratu eta ulertu nuen Andrearen motorrarekiko lastankeraren zergatia. Poliziari dena azaltzen saiatzea denbora galtzea izan zen, froga guztiak nire kontra zeuden eta nire errua zela pentsatzea zen errazena. Beraz, atxilotu ninduten eta gau osoa pasatu nuen zuloan. Gurasoek ezin zuten sinistu gertatutakoa. Ez nekien zer gehiago esan sinistu nintzaten. Hortaz, dena gelditu zen polizien esku.

Hile asko eman nituen epaiketetan eta dena nuen kontra. Une haietan ez nekien zer zen bizitzeko gogo. Gurasoak nirekin haserretuta, herria bera ere nire aurka. Egoera hura bizitzea ez zen batere erraza.



Orain hementxe nago, 26 urterekin eta erruduna ni neu naizela uste dute. Jada, heldua naiz eta beti aurrera egitea dela egokiena konturatu naiz. Burua tinko mantenduz eta Maitanek behintzat egia dakiela pentsatuz, urte hauek aurrera eramatea lortu dut.

Bost urte geratzen zaizkit infernu honetan baina irteten naizenean Andrea bilatuko dut eta egiaztatuko dut bera izan zela erruduna, berak hil zuela eta nire motorrean arrastoak utzi zituena izan zela. Nire bizitza osoan eragin didan sufrimendua ordainduko du, Maitaneri egindakoa... Denetaz damutuko da.

Bizitzaren zati handi bat alferrik galdu dut. Maitanerekin pasatu beharreko momentuak ahaztu behar izan ditut. Familia bat osatzeko aukera ere urrun dago. Uste dut hau ez dudala merezi izan. Umetatik jokatu izan dut era egokian, inori minik egin gabe eta ez dakit nola pentsatu ahal izan duten ni hori dena egiteko gai naizela. Orain helburu bakarra leku honetatik ateratzea da, eta askatasunez bizitzea.

Argia ikusi nahi dut, benetako eguzkia sentitu, haizea masailetatik igarotzen dagoela hauteman, libre sentitu; aske naizela amestu beharrean, amets hura bizi, gurasoen maitasuna eta konfiantza zutik mantendu, lagunak inguruan izan eta barroteei agur esan.



Pablo Unceta Barrenetxea

DBH 3. maila

“Mendian bezala, inon ere ez”

OTSOAREN OIHUAK

Hegoaldetik zetorren haize epelak leunki laztandu zuen Gorkaren aurpegi iluna. Balkoi ondoan zegoen, atek parez pare irekita. Bertatik itsasoaren handitasun guztiaz goza zezakeen. Olatuen apurtze basatiak, haitzek osatutako horma gogorrek zeharkatu nahian; kaioen hegaldi dotoreak; surflarien abilezia. Baina ez. Begirada galduta zuen Gorkak, zeruak eta itsasoak bat egiten duten lekura begira. Pentsakor. Txikitako gertaerak gogora ekartzen. Zenbat ordu pasa ote zituen bere lagunekin hondartza ondoko haitzetatik uretara saltoka! Salto egiten ez zuena kakatia zen.

Gogoan zuen nola behin, gauetz, herriko gazte batzuk haitzetara joan ziren bainu bat hartzekotan. Ilargi bete-beteak gaua argitzen zuen. Begirada bat

baino ez zioten bota urari. Oso baxu zegoen. Inor ez zen salto egitera ausartzen. Denak zeuden bata bestearen zain. Halako batean Gaizkak aurrera egin zuen. Gaizka taldeko zaharrena zen. Eta ausartena. Denak geratu ziren uretara begira, Gaizka ausartiari zer gertatu zitzaion jakiteko nahian. Gutxira, burua atera eta oihuka hasi zen:

- *Ura oso ondo dago ! Zergatik ez duzue salto egiten?*

Esaldia bukatu bezain laster denek salto zuten tropelean. Denak... Gorkak izan ezik. Uretatik barreak eta garrasiak entzuten hasi ziren: “*Kakati! Kakati!*”. Baina bera ez zen salto egiten ausartzen. Ur gutxiegi zegoela iruditzen zitzaion. “*Kakati! Kakati!*” Orduan zeruan argitzen zuen ilargi bete handi hari begiratu zion.

Gizaki orok basapizti bat gordetzen du bere barnean, une konkretuetan azaltzen dena eta behin azaltzean gorputza eta burua guztiz aldatzen dituen. Ilargi bete hark Gorkaren barneko otsoa piztu zuen. Eta pentsatu barik kakatiak abiadura hartu eta salto egin zuen. Justu momentu hartan, olatu bat etorri berria zen eta uraren maila gehiago jaitsi zuen. Gorkak ura eta lurra ia batera jo zituen. Erabat geldirik geratu zen. Kakati oihuak isildu egin ziren.

Bat-batean mugimendua sumatu zen Gorkaren gorputzean. Lagunak hurbildu zitzaizkion. “*Ez ditut hanka sentitzen*” oihukatzen zuen Gorkak. Uretatik atera eta bazter batera eraman zuten. Bertan, masaje batzuk eman zizkieten. Denbora gutxira hankak mugitzen hasi zen. Denek hartu zuten arnasa lasai, bereziki Gorkak. Eta, noski, salto egiten jarraitu zuten. Gorka kakatiak ere bai. Bazekien ia elbarri geratu zela, baina gaztea zen. Sustoak ahaztu egiten dira.

Eta orain han zegoen bere etxean, balkoitik itsasoari begira. Bizitzak ironia ugari ezkutatzen dituela otu zitzaion. Eta irribarre hits batekin bere gurril-aulkiari eragin zion gelara iritsi arte.

Bere logelako egutegira begiratu zuen. Azaroak 26. Boligrafoz markaturiko eguna. Bere beso gihartsuekin lagundurik gurrpilei bultza egin eta armairura arte joan zen. Ateak zabaldu eta arropak aukeratu zituen. Beltzak. Urterro bezala. Egun hark eskatzen zuen bezala. Beltza da sentimendu tristenak eta mingarrienak ondoen adierazten dituen kolorea. Egun hartarako aproposena. Bost urtetan eskuratutako trebeziaz baliatuz, jantzi egin zen astiro-astiro. Giltzak hartu, atea itxi eta igogailuan jaitsi zen. Ehun bat metrotara

zuen autoa. Ehun metroko sufrimendua. Bere autora heldu zen. Txikia bere beharretarako. Baina dirurik ez dagoenean ezin da gehiago eskatu. Kontu handiz gupil-aulkia autoaren atzean utzi, gidariaren jarlekuan eseri eta bere helmugarantz abiatu zen. Bidean loradenda batean gelditu zen. Arrosa sorta bat erosi eta aurrera jarraitu zuen. Minutu batzuetara bidegurutzera heldu zen. Autoa izkina batean utzi eta irten egin zen. Kartelaren azpitik pasatzean oilo ipurdia jarri zitzaion:

“*Cementerio. Hilerria.*” Negarren putzua. Poliki-poliki hurbildu zen Gorka hilarri hartara. Arrosak hartu eta hilarri ondoan utzi zituen: “*Nerea Puentes. 24 urte. Bizi izaten hasi orduko, hila*”. Eta hilarriari begira bere hiltzaillea. Edo horrela sentitzen zuen behintzat bere burua. Iraganeko istripu triste hura buruan zuen. Bizitza loteria antzeko zerbait da. Baina batzuek bestee baino zorte gehiago dute. Eta noizean behin gertatu egiten da. Saria. Egun batean ezkontzean dauden bikote alai bat izatetik, hurrengoan neska hilda eta mutila elbarri geratzera pasatzen da.

Gau argia zen. Gorka Nerearen bila joan zen. 10 kilometro ingurura bizi zen. Autoa erosi berria zuen eta ondoko herriko jaietara joatekoak ziren, batez ere auto berrian buelta bat emateko. Nerea jaso eta abiatu ziren. Etor-kizuneko gertaera berri batzuetaz ziharduten. Ezkontza. Umeak. Zazpi urte zeramatzaten batera. Bide bihurtu zen. Gorka azkar zihoan. Aurrean Seat hori bat. Intermitenteari eman eta aurreratu egin zuen. Baina zirudie-nez Seatekoari ez zitzaion gustatu. Argiak piztu eta bozina jo zion. Eta handik gutxira abiadura bizian albotik pasa zuen, erdiko atzamarra aterata. Nereak kasurik ez egiteko esan zion. Une hartan, ordea, txikitako gogorapenak etorri zitzaizkion burura: “*Kakati! Kakati!*”. Zerura begiratu zuen. Ilargi bete-be-teak kolorea ematen zion gauari. Une hartan bere barnean zerbait esnatu zela sumatu zuen. Otsoa uluka hasi zen. Azeleragailuaren pedala gogor bult-zatu eta Seatari jarraika hasi zen. Gorkak, bere auto berriarekin, aukera zuen bakoitzean aurreratu egiten zuen eta beste horrenbeste Seat horiak. Nereak astiroago joateko eskatzen zion. Eta orduan iritsi zen bihurtu madarikatua. Bihurtu estua, ez zen ikusten beste aldetik inor ote zetorren. Seatak balazta zapaldu zuen. “*Inozo kakatia!*” pentsatu zuen Gorkak. Eta albotik pasa zuen. Zoritarrez ez zuen ikusi beste aldetik bazetorrela norbait. Autoa airean irten zen, Gorkari bukaezina egin zitzaion hegaldia eman zuen eta lurreratzean metro ugari jarraitu zituen arrastaka. Otsoaren uluak isildu egin ziren. Isiltasuna nagusitu zen. Gorkak albora begiratu zuen eta Nerea ikusi zuen, begi zuri-zuriak zabalik zituela, aurpegian espresio tristearekin. Hori izan zen Gorkak, Nerea ikusi zuen azken aldia.

Han zegoen Nerea Puentesen hilarria, lore azao dotore bat ondoan jarrita. Eta han zegoen alboan elbarri bat, negarrez, bere gurpil-aulkiaren gainean. Otsoa ehiztariaren tranpan eroria zen. Ez zuen gehiago ulurik egingo. Oroimen latz hauek buruan zituela, gurpil-aulkiari autora arte eragin zion. Beste auto bat heldu berria zen. Gizon bat eta bere emaztea irten ziren auto barrutik erramu eder batekin. Begirada zuzena bota zioten elbarriari.

Senar-emazteak hilerrira sartu ziren eta Gorkaren arrosen ondoan eurenak jarri zituzten, hilarriari begira elkarri besarkatuz. Nerearen gurasoak ziren.

Gauetz balkoira irten zen Gorka, haize pixka bat hartzera. Lasaitzera. Azken urteetan benetan jasangaitza egiten zitzaion egun hura. Zerura begiratu zuen. Ilargi betea zegoen. Bat-batean beheko errepidean bihurtune bate-tik bi auto atera ziren abiadura betean, elkarri jarraika. Lehia bizian. Gorkak balkoiko ateak zarratu eta etxera sartu zen. Ez zuen begiratzerik ere nahi; nahikoa zuen berari gertatu zitzaionarekin. Geroago, urrunean otso basati baten ulua entzun zen.





Harriet Zabaleta Cobanera

DBH 3. maila

“Heriotzak aske bihur gaitzake muturreko egoeretan”

120 ORDU

Gizaki orok dauzkagu ametsak, ilusioak eta hil baino lehenago egin nahi ditugun gauzak; edozein pertsonak bizitzan zerbait egin nahi du, batzuk gauza txikiekin konformatzen dira, baina beste batzuk zerbait handia egin nahi dute; gustatzen ez zaien zerbait aldatu, eta askotan, amets horrengatik hilda edo espetxean amaitzen dute.

Oraindik gogoan daukat berdez jantzitako hiru adarreko polizia haren ahotsa, lau gau horietan, erdi biluzik, gela txiki hartan sentitu nuen hotza eta beraien kolpe bakoitzak nire gorputzaren aurka talka egiten zuenean entzuten zen hotza.

Pertsona normal batek imajina ezin ditzaken gauzak gertatzen dira inkomunikatuta egoten zaren denbora horretan.

- *Atea ireki, polizia!!!* -entzuten da nire etxeko atearen kanpoaldean.

Harrituta eta beldurtuta, ez dakit zer egin, ez dakit zergatik datorren polizia nire etxera, ez dakit zer egiten duen polizia batek goizeko lauretan nire etxean. Geldi geratzen naiz, baina kanpotik datozen zaratak gero eta handiagoak dira. Atea kolpe batez irekitzean entzuten den soinu hori entzun eta ez dakidan arrazoi batengatik ihesari ematen diot. Leihora joan eta behera begiratzen dut. Lehenengo pisua denez, hiru metro baino ez direla izango pentsatzen dut eta segituan salto egiten dut.

Korrika hasten naiz, baina polizietako batek tiro egin eta zauritu egiten nau, ez da zauri larria, bala ez baita nire larruan sartu, baina, hala ere, erre egiten dit eta min handia sentitzen dut. Poliziak, heltzerakoan hau esaten du *“ETako kide den Jon Agirre Mendizabal, ihes egiten saiatu da, bidean pistola batekin polizia bat jo eta tiro egin du; zorionez ez du inor larri zauritu, baina poliziak behartuta, tiro bat egin behar izan du eta zauritu egin du”*. Beste polizia batek dena idatzi eta atxilotu egiten nau.

Ni harrituta geratu nintzen, ez nuen ezer ulertzen, argi zegoen polizia haiek gezurretan zebiltzala. Ni ez nintzen ETako kidea, ni idazle bat baino ez nintzen. Nire bizitzan esku artean eduki dudana arma bakarra euskara izan da, hori erabili izan baitut beti pentsatzen ditudan gauzak egiteko, baina horrek ez zuen axola, guardia zibil haiek nire eskubideak lerro batean jarri eta fusilatu egin baitzituzten.

4x4 berde hartan sartzean hasi zen 120 orduko iraupena zuen beldurrezko pelikula hura. Ni nintzen protagonista, eta ez zeukan bukaera alaia edukitzeko itxurarik.

Guardia zibilen koartelera heldu nintzenean, gela txiki eta ilun batean sartu ninduten, bertan ez zegoen ezer ere; ez oherik, ez aulkirik, ezta argitasun izpirik ere. Orduantxe konturatu nintzen ez nintzela inora joango beraiek nahi zutena esaten ez banien. Baina, zer nahiko zuten galdetzen nion etengabe nire buruari. Momentu hartara arte, ez ninduten jipoitu, ez kotxean, ezta gela hartara sartzean, baina ondo nekien zer gertatuko zen; polizia haiek bost egunez han egotera behartuko ninduten.

Lehenengo, polizia bat sartu eta nire lagunak non zeuden galdetu zidan. Nik, ea zertaz hitz egiten ari zen galdetu nion eta, ezer egiteko aukera izan baino lehen, aurpegian ukabilkada bat eman zidan; lurrean nengoela, beste

bi pertsonari deitu eta ostikoka hasi ziren. Min handia ematen zidan, baina oraindik min handiagoa ematen zidan pertsona haiek gobernuaren legeak betearazten zituzten pertsonak zirela pentsatzeak.

Ondoren, nire gorputza mindu eta aulki batean jesarri zuten. Lehengo gizon bera zen, uniforme berde eta garbi batekin, eta aurpegi itsusi hartan nabarmentzen zitzaion beltz koloreko bibote harekin. Porra elastiko bat atera zuen, eta mahai gainean utzi zuen. Nik, izututa, ezer ez nuela egin eta bertatik ateratzeko eskatu nion, baina ez zidan kasurik egin eta berriro galdera berdina egin zidan. Nik, erantzun bera eman nion, eta asko haserretu zen. Porrarekin kolpe bat eman, aulki hartan lotu, eta hurrengo goizera arte han gelditu nintzen.

Gau osoan ezin izan nuen lorik egin, amesgaizto hura noiz bukatu zain nengoen, baina ametsetan ez da mina sentitzen; han, ordea, mina benetakoa zen, benetakoa eta handia.

Ez zegoen alde handirik, goizaren eta gauaren artean, leihoak zarratuta zeuden, baina argi-izpi gutxi batzuk sartzen ziren leihoaren saretik. Argi-izpi haiek ziren nire esperantza mantentzen zuten argia, momentu hartan ni iluntasunean bainengoen, eta iluntasunetik ateratzeko, askotan nahiko izaten dira argi-izpi batzuk.

Goizean, berriro etorri zen gizon hura, baso erdi ur eta gaileta bat eman, eta joan egin zen. Ni gose nintzen, eta dena jan nuen, formula bateko ferrari bat bide zuzen batean doan abiaduran. Gelaren kanpoaldean, barre algarak entzuten nituen. Zer ote zen galdetzen nion nire buruari, baina nire buruak ez zeukan erantzunik eta horrek amorruez betetzen ninduen.

Ordu bete pasatu nuen gela ilun horretan, eta pixkanaka buruko mina etorri zitzaidan, gero eta min handiagoa sentitzen nuen, azkenean buruak eztanda egingo zidala uste nuen eta oihuka hasi nintzen. Orduantxe gogoratu nintzen ur baso harekin; nola edo hala, droga antzeko bat bota zidaten uretara, eta buruko min ikaragarria sentitzen nuen. Guardia zibilak, barrez leheritzen sartu ziren inkomunikazio-gela deitzen zioten kartzela txiki hartara, eta lurrera bota ninduten. Lurrean nengoela, bost bat galdera egin zizkidaten, denak nik erantzun ezinezkoak, eta lehenengo ukabilkadarekin, droga hura efektua egiten hasi zen: aluzinazioak edukitzen hasi nintzen. Jende ezaguna ikusten nuen nire alboan, poliziek lehen baino askoz beldur handiagoa ematen zidaten eta ezin nintzen zutik jarri. Poliziek gero eta galdera gehiago eta gero eta kolpe gogorragoak ematen zizkidaten.

Bibotedun gizonak, saihets-hezur bat apurtu zidan ostiko batekin; nire bizitzan sentitu izan dudana min handienetarikoa izan nuen; bibotedunak berriz, barre egin, eta hil egingo nindutela esan zidan. Ondoren, atea itxi eta joan egin zen.

Nire bizitzako edozein momentutan pertsona bat polizien eskutik torturatuta hil dela esan balidate, asko kostatuko zitzaidakeen sinestea. Momentu hartan, berriz, konbentzitutako nengoen hil egingo nindutela.

Gau hartan lo egin nuen. Ez nuen nahi, baina drogaren efektuarengatik edo, nire gorputza fisikoki nekatuta zegoelako, lokartu nintzen.

Hurrengo goizean, gorputz osoan min nuen, saihetsetan, ikaragarritzko mina neukan, ezin nintzen ia mugitu, eta ordura arte sentitu ez nuen balak egindako zauri hark ere min ematen zidan. Jada, 48 ordu pasatu ziren, hau da, 72 ordu gehiago pasatu behar nituen han, nire etorkizunari buruz kezkatzen, gero zer etorriko den imajinatzen, zer egingo zidaten pentsatzen.

Ez zidaten gauza askorik egin lehengo orduetan. Jatekoa eman zidaten, baina ez nintzen usaintzera ere ausartzen. Niretzat, janari hura bonba bezalakoa zen eta dastatu izan banu, eztanda egingo zukeen.

Oso nekatuta nengoen, eta ordu batzuk geroago, trajez jantzitako gizon bat etorri zen. Honek ere ez zeukan jator itxurarik, baina hala ere, zerbait ona zela pentsatu nuen. Maleta bat atera zuen, eta barruan karpeta bat zegoen. Dei bat egin ahal izango nuela esan zidan. Askok poztu nintzen, baina telefonoa eman baino lehen, karpeta hura irekitzeko esan zidan. Bihotzaren taupadak gero eta azkarrago zihoazen, ezin nuen arnasa ondo hartu. Karpeta hura zabaltzean, nire seme txikiaren eta nire andregaiaren argazkiak ikusi nituen.

Telefonoa hartu nuenean trajedun poliziak esan zizkidan hitzez gogoratu nintzen “Kontuz”. Sei letrako hitz bat zen, baina ondo nekien zer esan nahi zuen. Telefonoa hartu eta zenbaki bat markatzen hasi nintzen. Nire abokatuarena zen. 69723412... ezin nuen azkeneko zenbakia markatu, zer esan behar nion?. Azkenean, leihotik zetorren argi-izpia ikusi, eta... 8.

-Bai??

-Aupa Andoni, Jon naiz -esan nion arnasestuka-. Badakit ez didazula sinetsiko, baina Donostiako guardia-zibilen polizia-etxean nago. 48 ordu daramatzat hemen eta ...

Hor bukatu zen deia. Nik negarrari eman nion. Beraiek berriz, barrez lehertzen hasi ziren.

Egun hartan ez ninduten jo, baina kezkatuta nengoen, ez nekien nola heldu zen ni bezalako idazle normal bat egoera tamalgarri hartara. Egia zen libururen batean gizaki batek eduki behar dituen eskubideak aipatu nituela eta eskubide horiek urratzen direnen adibideen artean, euskal herriko biztanleak agertzen zirela, baina nire liburu gehienak euskarazko kontakizunak ziren. Baina pertsona horientzat euskara erabiltzea da egin ahal dugun gauzarik okerreina.

Beste egun bat pasatu zen eta beste gau bat pasatu nuen ia lo egin barik.

Hurrengo egunean, nire bila etorri ziren; gizon batek arropak kendu, eta lurrera bota ninduen. Ondoren argazkiak atera zituzten eta porra batzuekin saiheuts-hezurretan jo ninduten pare bat biderrez. Beste bi gizon etorri ziren, eta bala galdu hark eman zidan lekuan gogor sakatu, eta berriro galdetu zidaten; oraingoan galdera errazak ziren. *“Zenbat urte dituzu?”*, *“Non egiten duzu lan?”*... galdera horiek erantzun nituen eta betiko galderekin jarraitu zuten: *“Non gordetzen dituzue armak?”*, *“Nork erreklutatu zintuen?”*

Azkenean, nire familiako kideen eta nire lagunaren izenak esaten zituzten altuan, nik berba egin nezan, baina ez nekien ezer ere, eta ziur nago; zerbait jakin izan banu, dena esango niekeen. Izen-abizenak, jaioterria eta guztia; horregatik, momentu hartan pozik nengoen ezer ez nekielako, bestela euskaldun askori gertatuko zitzaiekeen niri gertatzen ari zitzaidana.

Jipoiak ez ziren gelditu hurrengo egunera arte. Gauean, lo gelditzen baintz, segituan etortzen zen norbait ni esnatzera, ni jipoitzera, edota ni mehatxatzera.

Esperantza guztiz galduta zegoen, ez zegoen argi-izpirik iluntasunean. Ilunpearen barruan nengoen, iluntasunean bizi nintzen, kanpoko zarata txikienek ere izutu egiten ninduten, norbait ni jipoitzen etorriko zela uste bainuen.

Goizean, nire eskuineko eskutik heldu eta pistola batekin, kolpeka hasi ziren, eskua hautsi arte. Eskua mugitu behar nuela pentsatzeak min ematen zidan, zutunik jartzeko ere indarrik ez zitzaidan gelditzen, gose handia nuen baina ez nintzen jaten ausartzen.

Arratsaldean, mediku antzeko bat etorri zen. Nire egoera ikusi nahi zuela esan zidan, nire egoera fisikoa aztertzeko, eta ea torturarik jaso nuen jakiteko. Nik, leihoko sareetara begiratu, eta esperantza atxikitzen nuen, baina esperantzak ihes egin zidan medikuak bukatzerakoan. Hauxe esaten entzun nion: *“Autolesion”*. Ezin nuen sinetsi, ez zen medikua, gehienez sasi-medikua!

Ni, gelditzen zitzaidan indar guztia bildu eta zarataka hasi nintzen. Bat-batean, polizia talde bat agertu, eta ostikadak eta ukabilkadak ematen hasi ziren. Nire odola nonahi ikusten zen; nik geratzeko eskatu nien, baina ez ziren gelditzen.

Jada gaua zen, eta ni hilzorian nengoen, hurrengo goizean amaitzen zen inkomunikazio denbora, baina argi zegoen ez nintzela handik bizirik aterako.

Goiza baino minutu batzuk lehena-go bibotedun gizona agertu zen, paper batekin eta boligrafo batekin. Paper horretan, kolpe denak nik neure buruari egindakoak zirela eta koartelean ondo tratatu nindutela onartzen nuen. Nik ez nuela paper hura firmatuko esan nuen. Beraiek, nire semea hilko zutela esan zidaten eta bere argazkia erakutsi zidaten. Ezin nuen hura sinatu, baina bibotedun gizona azkarra zen, eskuineko eskutik heldu ninduen; ikaragarritzko mina ematen zidan eskua apurtuta baineukan, eta eskua mahaiaren aurka jo zuen. Oihuka hasi nintzen. Berak, berriz esan zidan firmatzeko. Azkenean, firmatu egin nuen. Barezka hasi zen orduan. Nik, berriz, altxatu eta buruan kolpe bat eman nion; bat-batean polizia asko etorri ziren eta niri jotzen hasi ziren.

Astiro-astiro, nire bizitza itzaltzen hasi zen, baina hala ere, argi bat ikusten nuen ortzemugan, argi ahula, eta minutu gutxi batzuetan argi hura itzali eta iluntasuna etorri zen.

Orain nire gorputza ikusten dut, lurrean odolez bustita, ez du arnasarik hartzen, geldi dago, baina askatasuna mugatzen duten gizon horiek gorputza jotzen dute. Lehen gogoz beteriko gorputza zena, orain gorpua besterik ez da, baina askea. Agian, heriotza izan baitaiteke guztiz aske izateko modu bakarra.





Angela Larrabeiti Zarrandikoetxea

DBH 4. maila

“Sasoian sasoikoa”

ITXAROPENEZKO BIZITZA BATEKO AZTARNAK

1975eko apirilaren 22a:

Tik-tik. Euri tanten hotsa heltzen zait leihotik. Tik-tik. Ohe gainean etzanda nago, begiak itxita eta beso bat aurpegi gainean dudala. Besoa alde batera baztertu eta sabaia arakatzen dut zehaztasunez. Burua oroitzapenez betetzen zait, bata bestea baino argitasun handiagoz agertzen da. Bat-batean burua leihorantz zuzentzen dut eta imajinazioak kanpoko eguraldi kaskarra zehar-katzen du. Lainoek atzera egin eta eguzki-izpiak ageri dira, zuhaitzetako adar biluziak kolorez janzten dira eta hainbeste miresten ditudan txorien kant-uak iristen zaizkit. Zuhaitz handi baten azpian eta lurrean kokatutako mantel txuri-gorri baten gainean eserita daude nire bakardadearen errudunak.

Zenani eta Zindzima eserita daude elkarrekin hizketan. Winnie janaria kokatzen ari da mantel gainean, patata purearen usaina heltzen zaidala sumatzen dut. Winniek burua altxatu eta bere begirada sakona nirearekin elkartzen da; bere ezpainak atzera egiten dute eta irribarrea marrazten zaio aurpegian. Keinu bakar horrekin bihotza gelditu egiten zaidala sumatzen dut, arnasa ez zaidala biriketara iristen. Pixkanaka hurbiltzen nakio...

TAN-TAN-TAN-TAN!!!

Paisaia desagertu egiten da, nire familia urrunean galtzen da eta eguraldi kaskarra berriz bilakatzen da jaun eta jabe bakarra. Begiak leihotik aldentzen ditut eta logelaren beste aldeko burdin trangetan kokatzen zaizkit. Bat batean Terry agertzen da, kartzelarietako bat, bere borraz burdin trangak kolpatuz.

TAN-TAN-TAN-TAN!!!

- *Denok jangelara!*- bere hitzak burura sartzen zaizkit. Hankak jaisten ditut ohetik eta eskuen laguntzaz bultzatzen naiz zutik jartzeko. Burdin trangetara hurbiltzen naiz, Terry beste aldean dago. Irribarre batekin agurtzen dugu elkar; betidanik sentitu izan dut Terry pertsona ona dela.

- *Egun on*- hitzak naturaltasunez irteten zaizkio. Hori seinale ona da, zeren hemen igaro nuen lehen egunean ez zidan ezta begirada zuzentzen. Beno, ezin diot errurik atxikitu horregatik, txikitatik irakatsi diotelako arraza beltzeko pertsonak beheragoko maila batean gaudela

- *Egun on Terry, zer moduz zaude gaur?*

- *Oso ondo, eskerrik asko*- bai, bakoitzean naturaltasun handiagoz zuzentzen zait.

Irribarre berri bat eskaintzen diot eta berak modu berean erantzuten dit. Terryk eskuak eramaten ditu gerrira eta eskegita dituen milioika giltzen artean nire atea irekitzen duena aurkitzen du. Atea ireki egiten da eta zeharkatu egiten dut. Terryk oraindik beste presoan ateak ireki behar ditu, beraz buruko keinuaz agurtu eta jangelako bidea hartzen dut. Bidetik tristeziaz janzten zait arima. Ezkerraldean borrokan ari dira kartzelari bat eta preso bat, baina borrokak gutxi irauten du kartzelari gehiago hurbiltzen direlako eta borraz eraisten dutelako presoak. Beno hori gutxi balitz, eskuinaldean ageri den ikuspegiak bihotza txikitzen dit. Jantokira sartzeko ate aurrean

presoen bi ilara begiztatzen ditut, alde batean arraza zuriko pertsonak eta bestean arraza beltzekoak. Tentsio labanaz ebaki daiteke. Birritan pentsatu gabe, zurien ilaran jartzen naiz. Denen begiradak sumatzen ditut gorputzean baina horrek ez nau kikilduko. Arraza desberdinen arteko ezberdintasunak kokoteraino naukate.

Atzetik sakakada bat datorkit. Buelta ematen dut.

- *Aizu, ilaraz erratu zarela uste dut*- gizon erraldoia da, sudur fin eta begi urdinak dituena. Tatuajeaz josia du gorputza, eta horietako batean honako hitzak irakurtzen ditut: Zurien Erreinua.

- *Ez gizona, ez naiz erratu*- bere begiak marra fin batzuk bihurtzen dira eta goitik behera arakatzen naute.

- *Kontuz zeure hitzekin, argi izan beti gu zuen gainetik gaudela*- zurien artean barre algaraz sortzen da.

- *ONGI ESANA! Jajaja!*

- *Zergatik? Guztiok gara pertsonak eta eskubide berdinak ditugu, errespetuzko gizarte bat proposatzen dizuet, elkarren arteko adiskidetasunahitz horiek algaraz mututu dituzte.*

- *Hori ez da inoiz gertatuko, eta argi geratzen zaizula ikusi nahi dut.*

- *Ongi da, gizabanako bakoitzak sozietatearen ikuspuntu desberdina du eta zeure iritzia errespetatuko dut nahiz eta konpartitu ez.*

Berriz buelta eman eta jangelarantz zuzentzen naiz. Oraingo honetan ere, zuriekin jesartzen naiz, baina gaurko honetan ni zirikatzea alde batera utzi dutela ikusteak irribarrea eragiten dit. Gizartean pausu garrantzitsu bat eman dela sentitzen dut.

1981eko abuztuaren 13a:

Eguzkiak kokota laztantzen dit. Segundo batzuez aske naizela sentitzen dut, baina kartzelarien oihuek errealitatera bueltatzen naute.

- *Aizue andereñoak, jarraitu lanean!*

Gogo txarrez burdinazko xafla hartu eta aurrean dudan harria kolpatzen hasten naiz. Hemen sartu nindutenetik, eguneroko ekintza bilakatu da. Kartzelariak harri bloke berdinak egitera behartzen gaituzte, ondoren bloke horiekin itsasotik baztertzen gaituen harresi bat eraikitzeko.

Izugarrizko mina sentitzen dut eskuetan. 18 urtetan zehar lan berdina egitearen ondorioz eskuetan geratu zaizkidan aztarnak begiratzen ditut. Aztarna horietaz guztiz harro nago zeren kartzela honetako preso izatera bultzatu ninduen ekintzaz guztiz harro nago.

1962ko egun euritsu bat zen, lanerako bidean nindoala autobus batera igotzea erabaki nuen. Garai hartan zuriak beltzen gainean zuten botere eta gehiagotasunak bultzatuta autobusaren aurreko jesarlekuetan esertzea erabaki nuen, nahiz eta hori legearen aurkakoa izan. Gidariak ikusi ninduenean kentzeko agindua eman zidan, baina firme jarraitzen nuenenez poliziari deitzea erabaki zuen. Hauek ziztu bizian agertu ziren eta hainbat kolpe jaso ondoren, atxilotu egin ninduten. Aske irtetea lortu nuen baina mehatxu batekin, berriz edozein autobusen aurreko jesarlekuetan jesartzen banintzen preso hartuko ninduten eta ez gau bakarrerako.

Hurrengo egunean atxilotu ninduten bigarren aldiz. Bai, asmatu duzue, jesarleku berdinean eseri nintzen. Hil-arteko kartzela zigorra atxikitu zidaten horregatik. Izan ere, beltzen eskubideak defendatu izan ditut beti eta momentu hura iruditu zitzaidan gure eskubideak adierazteko momenturik egokiena.

Orain, ezagutzen duzue lan hau egitera bultzatu nuen kausa, eta horregatik diot guztiz harro nagoela. Ez naiz hiltzaile ezta lapurra, nire delitu bakarra beltzen eskubideak aldarrikatzea izan da.

1990eko otsailaren 11a:

Inoiz ahaztuko ez dudan eguna. Egunero bezalaxe, patioan nago, dudan denbora librea aprobetxatzen. Beste kideak zelaian daude, baina oraingo honetan begiratze hutsak poztasuna sortzen dit. Futbol partida jokatzen ari dira, eta taldeak pertsona zuri eta beltzez osatutakoak dira. Noizbehinka, golen bat sartzean adibidez, elkarri eskua kolpatzeko joera ere dute, eta horrek txaloak ematera bultzatzen nau. Nola aldatu diren gauzak; lehen ezinezkoa zen horrelako ikuspegia imajinatzea, orain aurrean dut eta inoiz pentsatu izan dezakedana baino askoz hobea da errealitatea.

Nire pentsamenduetan murgilduta nagoela, kartzelari bat hurbiltzen zait.
 - *Koronelak bere despatxuan ikusi nahi zaitu.*
 - *Ongi da, eskerrik asko.*- kartzelariak buruaz keinu egin eta alde egiten du.

Azkeneko begirada zuzentzen dut zelairantz eta irribarre handi batekin despatxurantz abiatzen naiz.

Despatxuko atea bigarren aldiz zeharkatu dudanean, ez dut barruan entzundakoa ezta sinistu ere egiten. Minutu batzuk behar ditut informazio hura barneratzeko... libre naiz!

Logelara abiatzen naiz hankak ia sentitzen ez ditudala. Sartu eta ohean esertzen naiz, begirada leihora zuzendu dut eta oraingo honetan eguzkia begiztatzen dut kanpoan, badirudi eguraldi onak ere egun honetan lagundu nahi nauela. Malkoak sentitzen ditut aurpegian zehar irristatzen... libre naiz. Ingurura begiratu eta nirekin eramango ditudan ondasunak aukeratzen hasten naiz, ez dago askorik, zenbait liburu eta idazki hartuta berriz zuzentzen naiz aterantz. Burdinazko trangak azkeneko aldiz zeharkatu ditut... libre naiz.

Korridorean barrena poztasuna tristeziarekin tartekatzen da, libre naiz, bai, baina berriz ikusiko ez ditudan kideak, hobeto esanda "lagunak", bertan daude niri begira eta irribarre aurpegian marraztuta dutelarik. Eskuaz keinu egiten diet, noizbehinka hurbildu egiten dira eta besarkadaren bat ematen didate; malkoak gero eta erraztasun handiagoz irristatzen dira ene aurpegian.

Azkeneko atea. Zeharkatu bezain laster eguzkia sentitu dut aurpegian, baina oraingo honetan, disfrutatzeko aukera dudala pentsatzeak zoriona sortzen dit. Itsasontzi bat dago nire zain, izan ere, hori da Robben Island-etik irteteko modu bakarra. Terry ere zain daukat. Hurbildu bezain laster bere besoak inguruan ditut. Besarkada bueltatzen diot.

- *Guztia ondo joan dakizula espero dut*- malko gehiago.

- *Eskerrik asko Terry, zure bidea ere oparoa izan dadila espero dut.*- eskua astindu eta itsasontzira igo egiten naiz.

Itsasontzian noala, askatasuna gero eta hurbilago sentitzen dut. Nahiz eta libre izateko irrikaz egon, atzera zuzentzen zait begirada. Bertan daude kideak, den-denak, eskuekin agur esaten. Keinu berdina egin eta irribarre batekin aldentzen naiz, iragana gero eta urrunago doala...

Nelson Rolihlahla Mandela

**Irati Oria**

DBH 4. maila

“Bizitzeko gauza txikiez gozatzea gustoko dut”

EGUN BATETIK BESTERA

Berak zeukana ez zen pertsona baten gustuko bizitza, baina hala tokatu zitzaiola onartu zuen. Beste pertsona batzuk ikustean ez zuen gorrotoa, ezta inbidia sentitzen. Desberdinak zirela besterik ez zuen uste. Ez zen munduko pertsonarik onena, ezta txarrena ere. Zubipean lo egiten zuen, mila eta bostehun herritar zeuden herritxo batean, Europa ekialdean.

Goizetik altxatzen zen eta bertan hasten zuen eguneroko bizimodua. Kar-toizko kaxatik hankak ateratzen zituen, zazpiak inguruan. Herriko andre zahar batengana joaten zen egunero. Hark ogi zati bat eta esne beroa ematen zion. Ez zeukan diru askorik, baina bai bihotz ona.

Gosaldu eta gero, eliza aurreko banku batean eseri, eta bertan pasatzen zuen goiz osoa. Jendeak ez zion diru askorik ematen, baina jatekoa erosteko



nahikoa zeukan. Zortzietan, bere kar-toizko kaxara berriz sartu eta hurrengo eguna heldu arte itxaroten zuen. Egia esan, berak nahiago zuen loak hartu eta inoiz ez altxatu.

Zazpi urte, lau hilabete, bi egun eta hamabi ordu zeramatzan jada bere bizi honekin. Oso ondo zenbatu zituen. Lehen, bere bizitza ez zen horrelakoa, guztiz kontrakoa zen. Beti amesten zuen gauza berberarekin, gaba guztietan: bere antzinako bizi-moduarekin.

Aspaldi, hamaikak eta erdietan ohetik altxatzen zen. Txirrina jotzen zuen, eta bere langilea zen andrea etortzen zen presaka. Andre honek etxe guztia garbitzen zion egunero, baita janaria prestatu ere. Fruta mota asko, nahi adina kafea, txokolatea, arrautza frijituak... Dena zuen mahai gainean. Ez zuena nahi zakarrera botzatzen zuen. Berehala, bainura joaten zen, ur bero eta xaboiarekin bainatzera. Lanera ordu batean joan. Bera zen buruzagia, eta ez zuen lan askorik egiten, baina bai ondo kobratu. Hiruretara arte lan egin, eta herriko jatetxerik onenera joaten zen bazkaltzera.

Horrelakoxea zen bere antzinako bizia, baina egunekoa guztiz kontrakoa zen, zoritxarrez. Bere erruz aldatu zen dena. Enpresak porrot egin zuen, besteengan ez pentsatzeagaitik. Beti zen bere burua lehena, besteak nola zeuden edo zer sentitzen zuten ez zitzaion axola. Langileek soldata oso baxua zeukaten, eta hori ulertezina zen, berari leku guztietatik ateratzen zitzaiolako dirua. Soberan zeukan, eta gainera ez zuen behar beste diru. Nahi adina diru etxea ordaintzeko, kotxeak, ura, janaria, argia... Ez zeukan familiarik, bakarrik etxeko neskamea. Zertan xahutu diru hori?

Gauero irteten zen luxuzko jatexe batera. Bertan afaldu, eta tabernetatik ibiltzen zen edan eta edan. Horretan besterik ez zuen xahutzen soberan zuen diru guztia.

Berarentzat lan egiten zutenak ez ziren kexatzen. Bazekiten kexu batekin kalean egongo zirela. Ezin zuten hori egin. Beraiek familia zeukaten: seme-

alabak, emaztea, janaria, argia, ura... Gauza batean bakarrik lagundu zion gauza txar honek. Beste pertsona bat zirudien orain. Denekin adeitsua, lagun on bat bezalakoa.

Nola bueltatu bere antzinako bizitzara? Beti zegoen berdinean pentsatzen. Baina, aldatzen bazen, lehengo pertsona berriz izatera itzuliko zen: jendearengan ez zuena pentsatzen. Bizitzan aurkitu nahi zuen bakarra, emaztea zen, eta berarekin familia bat osatu, baina hori ezinezkoa zen. Ez zeukan dirurik, zubipean bizi zen: nork nahi izango zuen berarekin ezkondu?

Azkenik iritsi zen itxarondako une hura. Dena aldatu zitzaion berriz ere. Gabonak heltzear zeuden. Kaleetatik jendea opariekin zihoan, elkar zoriontzen. Argiz beteriko kaleak, gabon kantak leku guztietan...

Mari zen bere izena. Kaletik poz-pozik zihoan gabonetako erosketak egin eta gero. Gauean familia osoarekin geratu zen bere etxean. Gogo handia zeukan, gaua noiz helduko. Opari guztiak erosita zituen, eta janaria ere bai. Laster sukaldara sartu eta bertan eman beharko zituen ordu batzuk, baina ez zitzaion axola. Bere ilobak ziren munduan gehien maite zituenak. Gizona hil egin zitzaion auto istripu batean bi urte lehenago. Horregatik munduan gertatzen zitzaion bakarra semeak eta ilobak ziren. Eurentzat munduko amonarik onena zen: eskatzen zuten guztia erosten zien.

Loteria ere erosi zuen seme bati oparitzeko. Bakarra erosi zuen. Agian urte honetan zortea izango zuen, eta euren izango zen zenbaki irabazlea. Urtero esaten zuen berdina, guzti-guztietan. Denek esaten dugu hori egia esan. Ezin gara geratu loteria zenbaki bat erosi gabe. Tokatzen bada zer? Ezin gara arriskatu.

Egun hartan hotz izugarria egiten zuen. Egun bitxia zen herri hartako herriarrentzat. Urteko egunik hotzena, baita urte batzuetatik ordura artekoa ere. Batzuentzat zoritxarrekoa izan zen beharbada. Hotz hari esker bizitza osoa emango zuen damututa. Mariri gertatu zitzaion hori. Eskuak hoztuta zeuzkan, eta bertan zeraman loteria. Konturatu barik lurrera erori zitzaion, eta haizearen laguntzaz asko aldendu zen. Konturatu ere ez zen egin. Bera izan zen zoritxarreko andre hura.



Nork esango zion berari gertatuko zitzaioala? Berak egiten zuen guztia ondo zegoen, besteengan pentsatzen zuen, munduko amonarik onena zen...

Gure gizonak bi bide zituen loteria txartel hura aurkitzean: andreari jausitako papera jabeari bueltatzea, edota berarentzako gelditzea. Buruak andreari bueltatzeko esaten zion, baina bihotzak alderantziz zioen. Alde batetik txarto sentitzen zen, oso txarto gainera. Andre bati lapurtzen ari zen. Hainbat jende berari laguntzen zegoen, eta orain bera... lapurra! Baina ez zuen bi aldiz pentsatu eta hartu egin zuen, paper txiki batek bizia aldatu diezazuke-eta. Bai, horrela izan zen. Gabonetako loteriaren zenbaki irabazlea zen. Kasualitate hutsa edo miraria?

Egun batzuk geroago, kaletik zihoala lurrean botata ikusi zuen egunkari zati bat. Loteria zenbakien irabazleena zen. Aspertuta zegoen, eta ez zeukanez beste zereginik irakurtzen hasi zen. Milaka zenbaki zeuden horri hartan. Atzeko aldean, herri hortako taberna batean tokatu zela ikusi zuen. Harrigarria: urte batzuk lehenago bertara joaten zen gauero tragoak hartzera. Oraingo honetan zegoen egoeran egongo ez balitz, egunkari horretako argazkian irtengo zen, txanpan botila bat irekitzen. Zenbakia ikusi zuen. Ezin zuen sinetsi! Zergatik zuen ezagun zenbaki hura? Beharbada lehenago ikusiko zuen, portal batean, telefono zenbaki batean... Erratuta zegoen. Ezagun egiten zitzaion zenbaki hark zoriona besterik ez zion ekarriko. Loteria zenbakia zen eta poltsikoan zeukan.

Hilabete pare baten ostean, lehengo moduan bizi zen, hobeto esanda, bizimodu askoz hobe zeukan. Maiteminduta bizi zen neska batekin, eta garrantzitsuena: besteengan pentsatzen ikasi zuen. Enpresa berriz ere ireki zuen, langile berdinekin. Soldata igo zien eta lagun moduan tratatzen zituen guztiak. Berdin kargu altuenekoak nahiz garbiketakoak. Lagun asko egin zituen. Denak harrituta zeuden gizon horrekin. Lehen ez zen horrelakoa, denek gorrotoa zioten. Orain, alderantziz, herriko gizon onenetarikoa bihurtu, eta nahiko ospetsua egin zen herritarren artean. Klean botata ikusten zuen pertsona bakoitzari dirua ematen zion. Islatuta ikusten zen haiengan.

Hainbeste lagundu zion andreari, dena itzuli zion. Etxea erreformatu zion eta txakur bat erosi zion esker onez. Andreak hasieran ez zion onartu, berak borondate handiz egin zuelako, eta ez zion kobratu nahi. Gizonak, behin eta berriz eskatu zion, mesedez hartzeko. Eskertzeko modu bat besterik ez zela esan zion. Azkenik ez zuen izan beste erremediorik eta onartu egin behar izan zuen.

Pozik zegoen pobre izatearen esperientziaz bizitakoarekin. Nola liteke berari gertatu izana guzti hori? Berak ez zuen erlijioan sinesten, ez zuen pertsona ontzat hartzen bere burua. Agian orain sinesten hasi beharko zuen, kasualitatea baino miraria izan zelako hura berarentzat.

Orain nahi duen guztia dauka: familia bat. Bere seme-alabei kontatzeko aukera du orain. Hori guri ere pasatzen zaigu askotan, ez pentsatuz, pentsatu gabeko gauzak gertatzen zaizkigu eta eguneko momentu batean dena aldatzen zaigu. Beharbada, egunen baten, bizitza ere aldatuko zaigu.

**Bittor Rodriguez**

DBH 4. maila

“Batzutan asko ez konplikatzea da onena”

URDAIBAI, BEGIRADA BAT

Beno, ba hemen nago, urtero bezala, gabon oro euskarako irakasleak bidaltzen digun idazkia egiteko asmoz, ia guztiz hutsik dagoen kuaderno orri baten aurrean, ideiak bertan nik pentsatu ahala eta boligrafoa mugitu gabe irudikatzea itxaroten edo. Izan ere, bost orriko idazki bat egin behar izatearen txarrena idaztea da, eta ez idatzi beharrekoa pentsatzea. Nik ez dut oso gustuko idaztea, izan ere, jakina da ez dudala oso letra ona.

Egia esan, idazlanaren gaia pentsatzea ere gauza zaila da, eta buelta asko eman behar zaizkio gustuko argumentua lortu arte. Baina, aurtun, nik ez dut buruari buelta asko emateko gogorik. Hortaz, pentsatu dut, ipuin baten argumentua pentsatu behar ez izateko onena, ipuin bat ez egitea dela, eta horixe da egingo dudana, hau da, pixka bat berritzea, nolabait esateko.

Buruan dudana egitekoa hurrengoa da: lehenengo sarrera, orri batekoa gutxi gorabehera. Helburu nagusia: egitekoa orri bat gutxiago izatea. Baina ondoren bai, idazlanaren muina dator, lan honen bihotz eta arima, “la creme de la creme”. Izan ere, aurten ez dut narrazioa erabiliko, deskripzioa baizik. Horrela, nire logelatik ikus ditzakedan bi paisairen deskripzioak egingo ditut, bi leihoetatik zehar: bat, Oka errekaarena, eta bestea, Arteagako larreena. Gainera, paisaia bakoitzari ikuspuntu desberdin bat emango diot. Izan ere, paisaia bakoitza egun bateko aldi jakin batean isladatuko dut. Besterik gabe, deskribitzen hasiko naiz.

Deskribatu nahi dudan lehen paisaia Oka ibaia eta honen inguruak dira.

Paisaia hau egunaren denbora tarte zehatz batean kokatzeko momentuan, arazo bat izan dut. Izan ere, nire hasierako ideia, gauean deskribatzea zen; horrela, izarrak eta inguruko herrien argiak Okan nola islatzen diren adierazteko asmoz; baina modu honetara, gauak dakarren iluntasunak ez zituen agerian utziko baso eta mendiak, hauek Urdaibairen ezaugarri eta erakargarritasun nagusi izanik, gainera. Orduan, gaua eta argitasuna konbinatzea otu zait, ilargi beteko gau bat.

Nire leihotik at begira nagoen gau honetan, benetan paisaia miresgarria ikus dezaket. Paisaiaren erdian, erakarpen zentrala Oka ibaia, zabal eta bare bere bidean aurrera, mantso baina geldiezin. Lehen esan bezala, hainbat argi desberdin isladatuta ikus daitezke ibaian zehar, honen ur hotzetan flotatzen ari balira bezala; bai argi naturalak, izarrak; bai artifizialak, etxebizitzinak diren bezala. Baina errekaaren eskumaldean, handi eta eder, ilargia islatzen da, ikuskizunaren jaun eta jabe. Ikuskizun miragarri eta hipnotikoa.

Ibaiaren inguruan, ikuspegi honetan hain adierazgarriak diren padurak, ibaiertzean zehar hedatuz, Oka bezain luze, baina zabalago. Urtearen aldi batzuetan hainbat txori espezierentzat oasis gisa jokatzeko dute, haien migrazioan atsedean hartzeko leku ezin aproposagoa izanik, baina orain lasai daude, lasai eta hutsik. Gogoratzen ari naiz lehen, udako egun askotan, arreba eta biok hara jaisten ginela karramarrotan, eta nahiz eta gutxitan ezer harrapatzen genuen (eta harrapatzen genuenean gero askatu egiten genuen), primeran pasatzen genuen.

Paisaian gorantz jarraiturik, hainbat herri txiki ikus daitezke, lerrokatuta bezala, argizko bide bat eraikiz edo. Normalean eraikinek paisaia kaltetu egiten dutela esango nuke, baina kasu honetan ez, ez dut inongo kalterik

ikusten, adibidez, Busturia edo Murueta bezalako herri txikiak, paisaiaren oso zati txikia hartzen dutelako, eta gauez haien argiek benetan oso erakargarria egiten zaidan efektua ematen dutelako.

Eta herrien gainetik, berriz ere “basatia”. Batez ere pinuz osaturiko baso handiak, Urdaibairen elementurik esanguratsuenetarikoa, eta lurralde hauetan nagusitzen dena.

Azkenik, eta zeruaren aurretik, mendiak. Mendiak, beheraxuagoko herrien antzera, lerrokatuta daude, mendilerro ez oso altu, baina luzea eratuz, berde bezain luzea.

Paisaia honek transmititzen duen lasaitasunaren erdian, noizbehinka mozolo bat entzun dezaket, ziurrenik hurbil dagoen basoren baten zuhaitzaren adarrean, afariaren bila. Urdaibaik transmititzen duen lasaitasunari misterio puntu bat ematen dio.

Baina atmosfera hain lasaigarri baten erdian, bat-batean, tren baten zarata entzuten dut eta herriek eratzen duten argizko bidearen azpitik, argi lerro bat pasatzen ikusten dut. Txakur baten urrutiko zaunkak entzuten dira. Minutu pare baten ondoren, trena basoaren atzetik galtzen da. Zakurrak zaunka egiteari uzten dio. Lasaitasuna berriro.

Beno, orain, bigarren deskripzioari ekingo diot, Arteagako lautadena. Beste deskribapena gauez izan denez gero, hau goizean goiz kokatuko dut.

Egun oro bezala, oilarraren kantuaz hasi da eguna; beno, suposatzen dut, ni behintzat hura entzuteko ez naiz esna egon eta. Aspaldi esnatu da eguna, eguzkia jada basoko zuhaitzen artetik atera da, eta gogor ari da jotzen.

Auzokoen soroan baserritarra jada hasi da lanean. Belarra moztzen ari da segarekin, eta antza denez, luzerako dauka, soroa handitxoa da eta. Nire logelako leihotik antzeman dezaket ihintzaz bustitako eta moztutako belarraren usaina. Baserritarraren txakurra, bitartean, korrika eta saltoka ari da hara eta hona.

Auzokoen etxeetatik haratago begiratzean, larreak nagusitzen direla antzeman dezaket. Larre berde eta zabalak, batzuk, ia amaigabe, terrenuan sakabanaturiko muinoetan gora eta behera, itsaso baten olatuak balira bezala. Ganadua ere ikus daiteke nonahi bazkatzen libre eta lasai.

Pixka bat urrunago begiratzean, Arteagako herria ikusten dut. Benetan herri xarmanta da Arteaga. Nahiz eta lurralde asko izan, Arteaga eraikinei dagokionez herri txikia da, eta hori da herritxo honek duen onena: berde asko eta adreilu gutxi.

Nire logelatik ez naiz Arteagaren zentroa ikustera iristen, baina bai ikus dezaket gaztelu ospetsua, handi-handia eta oso dotorea. Gaztelua ospetsua dela ez dut benetan famatua delako esaten, baizik eta Arteagako bati non bizi den galdetzen badiozu, ziurrenik hurrengo esango dizulako: “Ni? Ba, Arteagan! Nola, ez duzula ezagutzen? Bai gizona! Kristoren gaztelua duen herria!”

Denok Arteagan oso pozik gaude gure gazteluarekin, baina lehen esan moduan, ni are harroago nago Arteagaren larre eta berdeaz.

Nire begirada are gorago eramaten badut, baso zabal eta berdeak igaro ondoren, beste mendilerro bat ikus dezaket, hau ere oso berdea, baina aurreko deskripzioak zituen mendi garaigokoak.

Oizi begiradatxo bat dedikatzen ari natzaion bitartean, txori aldra bat zerua zeharkatzen ari da, eta niretzako pentsatzen dut, ezin izango nintzela Urdaibai baino lurralde hobeagoan bizi.



Maialen Basterretxea Zubia


DBH 4. maila

“Malkoen artean irribarreak ere egon daitezke”

PAUSO BAT BESTERIK EZ

Bazetorren, nire barnean sentitzen nuen, olatu handi bat, edozein momentutan hautsi eta koloredun zuloetatik irtengo zen urezko horma handi bat, eta azkenean hautsi zen, negarrari ekin nion *“hasiera guztiek amaiera bat dute”* hitzak irakurtzean. Jarraian, ondoan nuen kutxa ireki nuen, paper txiki bat atera eta hiru aldiz irakurri nituen bi izen haiek: *“Enaitz eta Paula”*. Orduan, irribarre bat piztu zen nire ahoan, papertxo horrek tristura guztiak kentzen zizkidan, triste eta bakarrik sentitzen nintzenean nire lagunik onena izaten zen, berak gogorarazten zidan zenbat maite nuen Enaitz. Ordenagailu aurrean nengoen eta zapi batez hizkiak lehortu nituen, teklatuko hizki batzuk negar malkoek busti baitzituzten. Maitasun istorioz beteriko BLOG antzeko bat begiratzen ari nintzen, asko gustatzen zitzaizkidan irakurtzen nituen hitz guztiak, baina azken haiek... *“hasiera guztiek amaiera bat dute”*

behin eta berriz biratzen ziren nire buruan, ez ninduten guztiz konbentzitura utzi. Enaitzen eta nire harremana egunen batean amaituko zela esan nahi ote zuen? Ez nuen hori pentsatu nahi eta, ez nuenez pentsatu nahi, ez nuen pentsatu, baina hala ere, maitasun BLOG-en idazleari e-mail bat idatzi nion, hitz horien esanahia jakin nahian.



Pi-pi ! Pi-pi ! Mugikorraren soinuak esnatu ninduen amets guztietatik, aulkitik jauzi batez altxatu eta mugikorraren bila joan nintzen korrika, ahoan izugarrizko irribarrea neramala. Enaitzen mezua zela uste nuen, baina us-teak erdi ustel, ez zen Enaitz, amaren mezu bat baizik. Deitzeko zioen. Des-ilusio pixka bat sentitu nuen eta gogorik gabe amaren zenbakia markatu eta deitu egin nion.

Urtarrilaren 8a izan zen dena hasi zen eguna. Oraindik urtarrilaren 10a zen, hau da, ikastolara hasteko eguna. Bi egun generamatzan elkarrekin, banekien ez zela asko, baina bi hilabete iruditu zitzaizkidan egun horiek. Pozik nengoen, baina ez nengoen pozik, Enaitz neukan, baina aste osoan ezingo nuen ikusi, eta hori pentsatzearekin batera triste jartzen nintzen, bai ni eta bai nire bihotza. Baina guztiak zuen soluzio bat. Nire lagunik onena nera-

man, poltsikoan sartuta, papertxo; berarekin tristura guztietatik babestuta sentitzen nintzen.

Ettxera heltzean nire ametsen munduan sartu nintzen, larunbata heltzea nahi nuen, ametsak egia bihur zitzakeen egun bakarra baitzen. Pi-pi! Pi-pi! berriz mugikorra; oraingoan ez nintzen pozik jartzera ausartu, ez nuen desilusionaturik sentitu nahi aurreko egunean bezala, eta ongi egin nuen, ez baitzen Enaitz.

Ordenagailu aurrean eseri nintzen, arazo guztietatik deskonektatzen laguntzen zidan lagun bat bezalakoa zen eta, lagunekin hitz egiten ari nintzen bitartean, Enaitz konektatu zen. Han egon ginen ordu pare batez elkarrekin hitz egiten eta webkam-etik elkarri begiratzen. Irakurritako hitz haiena komentatu nion eta esan zidan lasai egoteko. “*Lasai*” hitz horrek benetan lasaitu ninduen, ez zuen merezi burua jateak. Enaitzen hitz batek, edonork esandako mila hitzek baino gehiago balio zuten. Enaitzek erakutsi zidan maitasunaren bidea, zergatik ez zidan erakutsiko nondik jarraituko zuen? Burua asko jan gabe maitasun blog-eko e-maila irakurtzen hasi nintzen; “*hitz horiek biziko....*” ez nuen gehiago jarraitu, mezua ezabatu nuen eta, nahiz eta burutik kendu, bihotzean geratu ziren txintxeta batez josita.




Hitzekin batera hainbeste itxarondako asteburua iritsi zen, Enaitzez aparte, Julene eta Jokinekin ere geratuta nengoen; beraiek gurekin etortzekoak ziren lotsaren gorabehera guztiak zirela-eta. Jokin izan zen plana izorratzen lehena. Ezin zuela etorri esan zuen, eta Enaitz eta ni bakarrik geratu ginen. Lotsaren muga guztiak gainditu nituen. Bera berriz, oso lasai zegoen. Orduak igaro genituen elkarrekin; lotsa alde batean utzi nuen bazterturik eta horri esker oso ondo pasatu genuen elkarrekin. Nire bizit-

zako egun zoriontsuena zela errepikatzen zen nire buruan, baina oraindik hasiera besterik ez zen, gauza asko zegoen bizitzeko.

Ohetik altxatu eta egutegira urreratu nintzen, otsailaren 13a zen. Ez! Ez, ez eta ez! Ezin zuen izan, ez nuen oparia erosi, ez nuen ezer prestatu,...eeeeez

! San Valentin eguna zen hurrengo egunean; Enaitzekin geratuta nengoen, ez nekien zer egin; artaburu hutsa sentitzen nintzen. Nola ahaztu nuen egun hori? Egund bat nuen zerbait egiteko, eta nire lagun Iraiari laguntza eskatu nion; goizean txerritxotik dirua ateratu eta ikastolara joan nintzen. Klase aspergarriak amaitu ziren azkenean; egund luzea egin zitzaidan. Iraia eta ni dendaz denda joan ginen zerbait aurkitzeko esperantzarekin eta aurkitu genuen. Kostata baina zerbait polita aurkitu genuen: bihotz bat zen, erditik mozten zen, alde bat beretzat eta bestea niretzat. “Beti batera” hitzak agertzen ziren bihotz horren alde bakoitzean.



Heldu zen larunbata eta oso urduri nengoen, minutuak orduak bezala igarotzen ziren, astiro-astiro. Han nindoan ni Enaitzengana oparia poltsikoan neramala, ez nion eman nahi; lotsa nire gainetik zegoen, irabazi egiten zidan, baina aurre egin behar nion. Enaitz aurreratu zitzaidan; lepoko bat oparitu zidan, eta nik errazago izan nuen lotsa gainditzea. Ezer pentsatu gabe eman nion; berak lepoko bezala jarri zuen, eta nik, berriz, diru zorroan gorde nuen. Ez nintzen oso argia izan, ordea; galdu egin nuen. Ezin nion negar egiteari utzi, balio handia zuen opari txiki hark. Aste bat barru munduko neskarik zoriontsuena nintzen, nire lagun Miriam-ek aurkitu baitzuen; ez zegoen lehen bezala, marraz beterik zegoen, baina berdin-berdin lepoko bezala jarri nuen. Gauero muxu bat ematen nion; Enaitzi gabon esateko modu bat zen.

Hilabeteak igaro ziren, Enaitzekin gero eta hobeto nengoen, gero eta gehiago maite nuen, neure burua helduago sentitzen nuen, seguruago..., baina bi pertsonen arteko maitasuna ezin zitekeen hain perfektua izan eta, noski, heldu ziren ditxosozko “zeloak”, zeloak sentitzen nituen bere lagun bategatik eta bera konturatu egin zen. Mila aldiz errepikatuko zidan gutxienez, beraien artean ez zegoela ezer, baina nire bihotzak ez zidan uzten hori ulertzen. Egundak igaro nituen gaizki, gure artean haserretzera ere heldu ginen zeloengatik; gauetan musika entzuten jartzen nintzen eta nire oheko burukoak bus-tita amaitzen zuen, negar malkoz beteta, eta guztia maite nuelako. Ez nuen imajinatzen maitasun istorioak horrenbeste gorabeheraz josita zeudenik eta ez nuen imajinatzen maitasun istorio bat Enaitz gabe, baina ez zegoen besterik, maitasunaren zati bat ziren gorabeherak, nahi ala ez, eta gorabeherak gainditzeko ikasi beharra zegoen.

Negua, udaberria eta, azkenean, hainbeste itxarondako uda! Zeloak alde batera uzten saiatzen nintzen eta lortzen nuen askotan. Horrek asko laguntzen zuen eta inoiz baino hobeto egoten ginen elkarrekin. Leku oso politetara eramaten ninduen eta han egoten ginen belarretan etzanda elkarrekin gaua iritsi arte, elkarri estu helduta. Gure bihotzek elkar maite zutela nabaritzen zen.

Oporretan joan beharra zuen gurasoekin, ez zitzaidan gustatzen Enaitz gabe egon beharraren ideia hura, baina beno, izorratzea tokatzen zen. Oporretan joan baino lehen elkarrekin pasatu genuen arratsalde bat. Berak beti esaten zidan *“aprobetxatu egun hau azkena izango balitz bezala”*; hauek ziren bere hitzak eta egun horretan ez nion kasurik egin, triste nengoen hurrengo egunean joango zelako.

Joan zen, eta faltan botatzen nuen, bi aste bera gabe... buuuf!

Pi-pi! pi-pi! gogo gabe hartu nuen mugikorra; ama zela nekien eta ez neukan inorekin hitz egiteko gogorik, baina erratu egin nintzen, Enaitz zen! Faltan botatzen ninduela zioen eta deituko zidala gauean. Horrela izan zen, han egon ginen biok hitz egiten, kokoloak ematen genuen.

Bost hilabete elkarrekin! Eta Enaitz kanpoan zegoen, baina ez zuen ahaztu zer egun zen eta mugikorrak, “pi-pi” ! berriz jo zuen. Egunak poliki-poliki aurrera zihoazen eta nik gero eta gogo handiagoak nituen berarekin egoteko, faltan botatzen nuen.

Azkenean! Enaitz heldu zen, baina oso arraro sumatzen nuen, ez zen nire Enaitz. Zerbait gertatzen zitzaion berak ezetz esan arren. Oso ondo ezagutzen nuen eta ez zidan kontatu nahi. Baina beno, ez nion inportantzia handirik eman; ez zen horrenbesterako izango. Egun batzuk igaro ziren eta Enaitzek mezu bat bidali zidan ordenagailura, ireki nuen, eta... ezinezkoa zen! Momentu horretan, bere hitzak etorri zitzaizkidan burura: *“aprobetxatu egun hau azkena izango balitz bezala”*. Aprobetxatu egin behar nuen azkena baitzen, nire barnetik zihoan olatua berriz apurtu zen eta negar malkoek bete zuten nire aurpegia, ezin nion negarrari eutsi, nire bizitzan egindako negar gehien egin nuen. Lagunak izatea erabaki genuen, baina nik oraindik maite nuen.

Hilabeteak igaro ziren eta gero eta txarrago geunden, ez genuen hitz egiten. Nik edozer egiten nuen bere lagun izateko, baina berak ez zuen ezer egiten bere aldetik, min eman nahi zidan eta ni ez nintzen konturatzen. Zapi bat neraman begietan, ezin nuen kendu eta ez nintzen ezertaz ohartzen, gorro-

to nuen Enaitz maitatzea. Egunero negarrez egoten nintzen, merezi ez zuen arren. Eta bai, HASIERA GUZTIEK AMAIERA BAT DUTE, hitz horiek bizi nituen, esan zidaten bezala.

Ezin nintzen egon bizitza osoan Enaitzi itxaroten eta paso egitea erabaki nuen, Enaitz betirako ahaztea; kosta zitzaidan baina merezi izan zuen, zapia begietatik erori zitzaidan, konturatu nintzen ez zela desberdina, min besterik ez zidala eman nahi, eta konturatu nintzen, baita ere, maitasunetik gorrotora pauso bat besterik ez dagoela, bat baino ez! Gorroto nuen Enaitz, ez zuen ezer merezi. Kosta zitzaidan bera ahazteko modua aurkitzea, papertxo aputzera ere heldu nintzen, baina gauzak ahazteko modurik errazena malkoen artean irribarreak aurkitzea da.

Ez inoiz ahaztu, malkoen artean irribarreak aurkitu.



Sara Abaunza Urionabarrenetxea

DBH 4. maila

ZATOZ

Zelai berdeetan jaiki da behe-lainoa
Estaliz lokartzear dagoen paisaia
Zerua bezain zuri dakusat muinoa
Olatuek eginez etenik gabeko bidaia
Gertu da euri usaina
Hotzak dakarkidan samina
Urrun txorien txorrotxioa
Bero sargoria eta izpien jarioa

Eta orain, nirekin zaitudala
Zergatik ez zoaz?
Izoztu dira jada zelaiak
Negu krudelak sortuz hotzikarak
Hilerrietako zuhaitzak biluzik
Dardarka, hotzez ondoezik
Hotzak harrapa ez zaitzan
Alde egizu maitea
Neguak harrapa ez zaitzan
Zure distiraz bete ezazu kalea

Irristaka dabil zoru bustia
Urez astez zelai guztia
Argia itzali da etxeetan
Beko-suaren azken arnasa behatuz
Errautsak garrasika hizketan
Suaren erosotasunean geldituz
Kea teilatutik ihesi doa
Gaua zeru ilunetik doan bezala

Eta orain, nirekin ez zaitudala
Zergatik ez zatoz?
Hasi dira zelai negartiak urtzen
Udaberriko haize epelak ileak astintzen
Egunsentiak argitu ditu leihoak
Indarrez besarkatuz zuhaitzak
Itzalak harrapa ez zaitzan
Etor zaitez maitea
Udaberriak bero zaitzan
Zure distiraz bete ezazu kalea

Badatoz txoriak beraien kantuekin alaituz
Lasaitasunak itsasoko olatuak baretuz
Eguzki izpiak hondartza bakartiei erantsiz
Ortzadarrak harremanak kolorez bustiz
Ikuspegiari begira gau eta egun
Zatoz berriro nire albora
Biok batera esna dezagun
Etorri berria den urtaroa.



Jone Irigoien Romanillos

BATX. 1. maila

“Guk orain eta hemen sentitzen dugu mina, eta biharkoek bihar”

BIHOTZAK GIDATZEN GAITUEN HONETAN

“Laztana, aprobetxa ezazu ondo inguruan duzun eta noizbait falta daki-zuken guztia, galduz gero berreskuratzeko beranduegi izanen baita”.

Arrazoi osoa zuen nire aitak behin eta berriro errepikatzen zidan esaldi hark; ni, ordea, ez naiz inoiz horrelakoa izan. Nahiago izan ohi dut nire bihotzari erabakiak hartzen uztea, haren nahiek agintzen dute nire barnean eta bularraldean dudak muskulu txiki hau da nire bizitzaren bihozkadetan eta jokabideen errudun; horregatik, askotan zail egiten zait mota honetako esaldiak jaramon egitea.

Hartu nuen azken erabakiak argi islatzen du hau. Bost urte neramatzan Asierrekin, nire mutil lagun ohiarekin; baina azkenaldi honetan erlazioaren

nekeak bere atzaparretan harrapatu ninduen, bistan zen maite nuela; baina errutinaren pisuak, jadanik nire bizitzaren parte bilakatu zen harreman hori, etetera bultzatu ninduen.

Horrez gain, Asierrentzat une latzak ziren haiek, familia, lagun eta arazo sozialek zuen denbora librean buruhaustez betetzen zioten, eta askotan errepikatzen zidan une horretan ni nintzela bere babestoki bakarra. Hitz hauek ez zuten nire barnean behar besteko pisua hartzen ordea, eta nire kontzientziaren traizioak bakardadea eta lasaitasuna sentitzeko premia eragiten zidan, honek, gaizki hartutako erabaki hura hartzera bultzatuz. Seguru asko aurki damutaraziko ninduen eta ondorio larriak izan zitzakeen erabakia, bai Asierrentzat eta bai niretzat ere. Baina, agian, honetaz konturatzen nintzenerrako beranduegi izango zen.

Horrela, izara artean erreflexionatzeari utzi gabe egun argiaren lehen izpiak ikusi ahal izan nituen leihoaren zirrikitu estutik. Argia piztu, eta aurreko egunean begiak zarratzean utzi nituen gisan agertu ziren gauzak ene begien aurrean. Nire betiko gela, betiko ohea, argi apurrarekin ikus zitezkeen hormetako argazkiak... Gauza bakarra falta nuen aldamenean, Asier.

Elkarrekin egiten genuen lo askotan. Erabaki hura hartu nuen unetik, ordea, bakardadea jabetu zen nire logelaren giro lasaiaz. Ez zen aunitz kezkatzen ninduen zerbait, esan bezala nekatuta nengoen eta arinago edo beranduago, bizitzan sarri egin behar izaten dugun legez, oraingoan ere ziur nengoen berehala ohituko nintzela egoera hartara. Oraindik maite nuela egia zen, eta hori berak bazekien, bost urte luzez gure bideek elkarren ondoan eratutako bideak hainbat une izugarri eskeini baitzizkigun. Gaztaroko ilusioen lehena izan zen Asier, nire burua ezagutzeko aukera zabaldu zidan, baita berarekin mundua ezagutzekoa ere, izugarrizko konfiantza genuen elkarrekiko eta elkar babestu genuen gau hotzenetan. Egia da horrelako istorio eta bizipenak jende anitzen desio eta helburu direla, hori dela eta askotan esaten zidaten harreman hura ete izanak ez zuela inolako zentzurik eta kalte egin ziezakedala, zoriontsu ikusten zitzaigula elkarrekin. Baina, ohi bezala, nire bihotzak agindu zuen oraingoan ere, eta horrela erabaki zuen hark, beraz, eguneroko bizimoduari ekitea baino ez zitzaidan lotzen.

Egongelara jaitsi, eta tabako faltan, aita armairuan gordetzen zituen purutxoetako bat piztu nuen, eta honi lehen zupada ematearekin batera nola kontsumitzen zen ikusteak, Asier eta nire arteko maitasuna ekarri zidan oroimenera, zupatzarekin batera kontsumitu zen maitasuna alegia. Hau haut-

sontzian itzali nuenean ere, inoiz ez zela guztiz bukatzen ikusi ahal izan zuen, maitasunarekin gertatu ohi den moduan,ugarra bukatu arren arrastoak bihotzean geratzen dira.

Metafora hark nire buruan bueltaka ziharduela, telebista piztu eta albisteak entzuteari ekin nion, oraingoan ere gezurra lasai zebilen, egia ordea estu, notizietan toki handirik ez zuela. Zoritxarrez egunero entzun beharreko albiste tristeez ere beren minutuak izan zituzten, emakume bat bortxatua, etxe bat kiskalita, lapurreta han, erahilketa bestean... Jarraian zetorren albistea ordea ez zen egunero entzun nezakeen horietakoa. Areago, bihotza estu heldu eta une batez arnasa ere lapurtu zidaten nire belarrietara iritsiko ziren hitzek.

Herriko basoan aurkitzen den etxola txiki eta zahar batean, mutil gazte baten gorpua agertu da gaur goizaldean, inolako biolentzia arrastorik gabe; esan dutenez, bere buruaz beste egin izan ahal duen hipotesia ez da baztertzeko, baina gaur arratsaldean egingo diote autopsia, hori egia denentz egiaztatzeko. Mutila herrian bertan bizi zen gaztetxo bat dela uste da, hala ere xehetasun gehiago emango dizkizuegu arratsaldeko albistegian, eskerrikasko gurekin egoteagatik.

Ondo baino hobeto ezagutzen nuen nik albistegiek aipatutako etxola hura, Asierrena zen hain zuzen ere, hainbat une igaro izan genituen bertan. Nire bihotzak ezin zuen sinestu nahi belarriek entzun berri zutena, ezin zen egia izan. Gainean nuenarekin bertara abiatu nintzen agudo. Iristean, ingurua poliziek eta medikuek betetzen zutela ohartu nintzen, froga bila edo ibiliko ziren eta hasieran gerturatzea debekatu zidaten arren, lehia nire burugogorkeriak irabazi eta segituan sartu nintzen hain gustuko nuen etxola txiki eta egonkorrera. Asierren aldamenean horrenbeste une igarotako sofán jesarri eta honekin bizitako oroitzapen guztiak berpiztu nituen une hartan. Une batez horrela egon nintzen, leihotik harago begira, nire barnean nostalgiak eta malenkoniak Asierrekiko maitasunaren aurka lehiatzen zutelarik. “Aprobe-txa ezazu ondo inguruan duzun eta noizbait falta dakizukene guztia, galduz gero berreskuratzeko beranduegi izanen baita”. Une horretan nire aitaren esaldiak gogor oihukatzen zidan bihotzaren barrenetik, gorputz osoa hartzikara gogorrez astinduz.

Sentimenduek bere horretan jarraitzen zutelarik, elkar lehian nork irabaziko eta nork galduko, hauetako bat nabarmentzen hasi zitzaidan, eta gorki lotu zitzaidan bat-batean, bazirudien lehia hura damuak irabazi zuela.

Nire gorputzaz jabetu zen, eta iragana aldatzeko gogo izugarria piztu zidan, ordurako ordea ez zen atzera bueltarik. Dena betirako bukatu zen, hau zen Asier eta bion arteko maitasunaren azken unea.

Une batez pentsamendu ilunetan murgilduta egon ondoren, nire hontara bueltatu eta jadanik gauaren argiak argizatzen zuen leiho azpiko mahaitxoan Asier eta bion argazki bat ikusi ahal izan nuen, irribartsu, une hartan jesarritan nengoen leku berberean, elkarrekin zoriontsu, beti bezala. Oroigarri haren ondoan boligrafo eta paper bat ikusi nituen. Bertara hurbildu nintzen, urduri, burumakur, eta paper hura eskuetan hartu nuen. Bertan islatutakoa Asierren idazkera zen, dardaren indarrak ozta-ozta utzi zien nire atzamarrei paper hura eusten, eta nire begirada urduriak irakurtzeko ahalegina egin zuen, paperekoak bizitza betirako markatuko zidaten hitzak zirela jakin gabe.

Maite zaitut Ane, bizitzan gertatu zaidan gauzarik politena izan zarela jakitea nahi nuen, besterik ez.

Nire lehen erreakzioaren erantzuna nire begiek jaurti zuten malko eran. ondoren nire buruak Asierrekin igaro ahal izan nuen azken unea ez aprobeztatzearen damua areagotuz. Azkenengo erantzuna aldiz, boligrafoa pape-rean zehar mugiarazten zuten nire atzamarrek emango zuten, bertan idatzi eta sentituko nituen azken hitz hauek islatuz.

Inoiz esan ditudan hitzik lazgarrienak izan daitezke gaurkoak. Zeru infinitua dut babesgarri, dirdiratsu ageri dira izarrak, zure begiradaren ordeztoko. Gaueko haizeak biraka darrai inguruan, kantuz, zure ahotsa niregana hurreratuz. Urrunean, argi distiratsu batek gidatzen nau, bertara abiatzeko ordua seinalatuz. Maite zintudan, eta zuk ere maite izan nauzu, gure bideek bat egin zuten unea atzean uzteko momentua dela erabaki nuen ordea. Hasieran erraza izango zela uste nuen, nire bizitza berreraiki eta ingurukoaz baliatuz aurrera egingo nuela uste nuen. Zer nuen ordea, zutaz aparte? Maitasunak itsutu ninduen, zuk betetzen zenituen nire orduak, poztasunak, arazoak, gauak...Gaur bezalako gauetan nire beso artean izan zintudan, zure beroak babesten ninduen eta zure irribarreak zoriontasuna oparitzen zidan. Baina beste guztiak bezala, amets hura ere bukaerara iritsi zen. Bakardadeak bere besoetan hartu ninduen, nire barnea ezin asetuz. Izara triste batzuek hartu zuten gau hotzenetan besarkatzen ninduten zure beso haien tokia.

Ama galdu nuenean, zure babesak honen gabeziak sortu zidan hutsune hartatik irtetzera lagundu ninduen. Lagunekin auskeak nituenean, ni la-

saitzeko zeneukan erraztasuna atsegin nuen; eta zurekin ez nengoenean, inoiz gehiago entzungo ez dudan eta horren gogoko nuen ahotsik ederrena imajinatze hutsak baretzen zidan barnea.

Orain ordea, zu galdu izanak bizirik nagoen artean izan dudan hutsunerik handiena ireki du ene bihotzean, eta hau, beste guztia ez bezala, ezin dut zure beso artean sendatu.

Zuk erabilitako boligrafo eta paper zuri hauek lagun bakar ditudalarik, leihotik harago so egin eta zu gabe areagotzen den gauaren isiltasunak betetzen du nire ingurua. Nire ahotsak haizearekin bat egiten du, zure belarrietara iritsi nahian. Zureganako maitasun eta itsutasunak eraman naute irteerarik gabeko kalezulora. Erabakia hartua dut, zuk eragindako azken nahigabea izan arren, eta hauek idazten dizkizudan azken hitzak.

Berriro ere, bihotzak gidatzen gaituen hontan, maitasunak honen taupaden oihartzunak hilobira bideratu ditu.



Ane Abaskal Alberdi

DBHO 2. maila

MAITASUNA

Eguntxo batez
banauzu ikusten
zuri begira,
ixil-ixil,
geldi-geldi,
begiak su ta garrez,
nik zu maite.
Eguntxo batez
banauzu ikusten
zuri begira,
espain ertzak,
ile beltza,
hitz bat ere esan gabe,
nik zu maite.
Eguntxo batez
zu eta ni

bagoaz alkarrekin,
geure lagunak ahazturik,
nik zuri begiratu ezin,
maitea izaki.

Eguntxo batez
zure hitzak ez baditut oso atsegin,
bihotzean sartuko zait min
guztiek baitute igarri,
maitea izaki.

Barkatu arren
ez badizut galde
zuri ere ote zaizun gerta
niri bezala
beste hainbeste,
bientzat hainbesteko
maitasuna badut.

Eguntxo batez
banauzu ikusten
zuri begira,
zure gorputza desio,
ez zaitez beldur,
ez naiz inongo gaizto,
nik zu maite.
Eguntxo batez,
ikusten ez bagara,
ez zaitez arduratu,
ez ingurura begiratu,
begira bihotzean,
hor nonbait ezarri dut nire txabolatxoa,
noizbat biok biziko garen leku,
badakizu eta,
nik zu maite.
Eguntxo batez,
ohartu naiz,
fantasia guzti horiek
amets batean geldirik daudela,
ez da erremediorik,
ez dut beste inorekin amodioa konpartitu,
ez zara guztiz hutsa

ez zara guztiz desagertu,
gorputza errauts da,
ukaezin zara,
arima hilezkorra da garaile,
ene bihotzari soinu pizgarri
ezartzen dion horrelakorik.

Eguntxo batez,
ikus dezaket,
entzun dezaket.
usain dezaket,
baina ezin dut ukitu
zure bizia.

Eguntxo batez,
amestu dut,
izar hilezkor bat,
argi amataezina duen izar bat,
gure zain dela,
hor nonbait.
unibertso infinituan,
gu batzeko asmotan,
zazpiki,
negarrez,
izar uxoak jaurtiz,
niri mezu bidaliz.

Eguntxo batez,
bizitzako stop denak semaforo berde bihurtu ditudanean,
nere bizitzako gatzak galdu dudanean,
urteek salatu nautenean,
argi zuriak atea jo nau,
bat-batean ezereza da nire urrats,
baina pozik da ene bihotz,
alajaina!
ene ametsa da,
hiru hitzetan,
ezti diren hiru hitzetan,
zera dizut esan,
maite zaitut laztan.



Josu de la Mar Etxabe

BATX. 2. maila

*“Zenbaitetan denborak alde egiten digula
badirudi ere, ez da beti horrela izaten.*

Denbora da, gure denbora, gure zain dagoena” (Ansel Adams)

ZORIONTASUNAREN PREZIOA

Denbora. Geldi ezin dezakegun erlojua, inoren laguna, gupida gabe aurrerantz azkar egiten duena, ia gu konturatu gabe, atzera begiratu gabe.

Batzuetan, bizi dugun orainaldi honetan egin dezakegun bakarra gure iraganari so egitea da, eta egindako akatsetatik ikastea, edo bizitako uneak gozatzea, orainaldian iragana berpiztaraziz.

Baina zertarako balio du asmatzen dugun orainaldi batek? Zertarako balio du bizitzak hau asmatzen egonez gero? Zer alde dago oraina imajinatuz edo asmatuz gozatzearen eta benetako oraina bizitzearen aldean?

2008ko otsailaren 3a, Londres

Zaila egiten da askotan errealitate gordinari so egitea eta hau onartu behar duzula ulertzea, batez ere bizitzak daukan zentzua galtzen denean.

Hirurogei urte dira jaio nintzenetik eta bizitza honetako berrogei urte igaro ditut Michaelen ondoan, gau eta egun. Beti jakin izan dut nire azken eguna iritsi arte egongo ginela elkarrekin eta inork ez ezerk ez zuela hori saihestuko, eta horrela izango da; nire azken eguna heltzen den arte berarekin egongo naiz, amesten dudana amets bakoitzean, esandako hitz bakoitzean eta isuritako malko guztietan. Ondoan daukadala senti dezaket.

Argazki eta oroitzapen polit asko dauzkat, geratzen zaizkidan egunak goxatzeko modukoak, eta irribarrez oheratzen eta esnatzen lagunduko didatenak, baina nekatu egiten naiz maiz, begiak itxi eta nire bizitza imajinatu behar izateaz pozik sentitzeko. Film bat ikusten ariko banintz bezala, oroitzapenez betetzen ditut astiro igarotzen diren orduak, eta zorionsua naiz behin igaro nituen momentuez gozatzen, nire barnean irauten duten sentimendu goxoez baliatzen aurrera egiteko, baina begiak irekitzean... guztia desberdina da. Batzuetan bizitzari bizkarra ematen ari natzaiola sentitzen dut, nire bizitza bizi beharrean iraganaren preso naizela, bakarrik dagoen amets galdu bat bezala. Ez zait gusatzaten bakarrik nagoela sentitzea, nahiz eta Michael nirekin eduki, ez daukat inor besarkatzeko, ez argazkirik ateratzeko edo gabonetako opariak egiteko.

Ez zait mundu honetan jarraitzeko arrazoirik geratzen, eta inoiz eduki ez dudanaren nostalgia absurdu honek oraindik gehiago nekatzen nau, zailagoa egiten zait begiak irekitzea eta egun “irreal” bati aurre egiteko.

Nekatu naiz kale hotzetatik paseatzeaz norabide gabe, jendearen begiradak eta hitzak saihesteaz; nekatu naiz inoiz eduki ez dudana seme edo alabaren falta sentitzeaz eta edukiko ez ditudan ilobak itxaroteaz, diru apur bat hauei eskaintzeko.

Ezin absurduagoa iruditzen zait une hauetan nire existentzia.

Nazkatu naiz ordulariari begira geratzeaz segundoak, minutuak, orduak eta egunak nola igarotzen diren ikusten.

Ohera joatea izango da onena ea amaitzen ez den amets batean murgiltzen naizen behingoz.

Oraina imajinatuz gozatzea agian hobea da errealitatean zoriontsu ez izatea baino. Prezio altua da, ordea, ordaindu behar duguna gehiegi ames-teagatik, gero errealitatera bueltatzea ez baita beti erreza izaten. Une asko-tan aurrera egiten laguntzen gaituen bakarra itxaropena da.

2008 apirilaren 17a, Tanger (Maroko)

Goizeko 5:30ak dira jada.

Amatxo esnatzera noa baina ahaztu egin zait haurdun dagoenetik ezin duela lanik egin, horregatik, orain ama beharrean Haixa esnatu behar dut nirekin etor dadin.

Hau oso zaila izaten da askotan; izan ere, orain dela gutxi bete ditu bost urte eta oraindik ez dago ohituta lan egitera. Askotan negar batean eraman behar izaten dut, baina lantegira iristen denean berehala isiltzen da, badakielako bestela gure nagusiak asko haserretzen direla eta, bat-zuetan zartakoren bat edo beste jaso duenez, nahiago du isilik geratu eta zintzo-zintzo esaten dioten guztia egin, nik egiten dudana bezala. Nik as-koz arduratsuagoa izan behar dut, amak hori esaten dit beti. Aitona hil zenetik mutil bakarra naiz familian eta nire arreba eta ama aurrera atera behar ditut; gainera, berehala beste arreatxo edo anaiatxo bat edukiko dudanez, nire indar guztiekin egin behar dut lan, ahal dudana guztia lort-zeko, gutxi izan arren.

Asko sentitzen dut aitonaren hutsunea, berak beti esaten zidan “*Nabil ausarta eta indartsua izan behar duzu, horrela bizitza hobea lortuko duzu eta jolasteko denbora gehiago edukiko duzu!*” eta hitz hauek entzuterakoan indartsu izateko eta borrokatzeko grina aurkitzen nuen, nire zoria alda zite-keela sentitzen nuen, itxaropen izpi bat pizten zen nire barnean.

Jolas egitea pribilegio handia da niretzat, oso gutxitan eduki dut hori egi-teko aukera.

Nik ezagutzen ditudan mutiko guztiek ere nirekin egiten dute lan. Lekua ez da batere atsegina, pilo bat pertsona gaude bertan, baina bakoitzak lan desberdinak egiten ditu.

Neskek josten igarotzen dute ia egun osoa; nik, gazteagoa nintzenean, ho-rretan egiten nuen lan eta ez nuen batere gogoko horretan aritzea.

Ez dago ia argirik, ezta aulkirik ere, eta zutik egon behar dugu denbora guztian. Gainera, josteko makinek beldurra ematen didate, hain dira handiak eta orratz luze horiekin...

Egia esateko, zaila egin zitzaidan hauek maneiatzen ikastea, baina zortea eduki dut, nire amari hiru atzamar falta zaizkio. Nahiz eta berari ez esan nazka apur bat ematen dit bere eskua begiratzeak, eta behin baino gehiagotan ikusi ditut gauza okerragoak, besoan eta aurpegian ere zauri ezin itsusiagoak. Gainera, ziur nago oso mingarriak zirela; horregatik, beti esaten diot Haixari kontuz edukitzeko hor behean. Bestalde, horrenbeste denbora hor sartuta igaro ondoren, ia-ia ilunetan, begietan mina sentitzen dut hurrengo goizean eguzkia ikustean. Ez diot nire arrebari horrelakorik opa baina amatxok behar du eta ez daukagu beste irtenbiderik.

Nik, orain, kaxak lekuz aldatzen egiten dut lan, horregatik bizkarreko minenez nabil azken aldian. Aitonak esaten zidan horretan lanik ez egiteko bestela ez nintzela haziko... Baina zoritxarrez ez digute lana aukeratzen uzten. Ezin nekagarriagoa da denbora guztian arropaz edo zapatez betetako kaxak leku batetik bestera eramatea, baina beno entretenigarriagoa iruditzen zait, behintzat eguzkia senti dezaket batzuetan.

Okerrena nagusiak dira. Uneoro dituzu zure ingurutik, paseatzen, begirada handikoiz begiratzen zaituztela, beraien irribarre inozoekin, leher egin arte guri oihuka. Egun batzuetan jo ere egiten gaituzte. *“Azkarrago, alferrrontziok! Ez duzue ezertarako balio!”*, *“Tira, inozo halakook!”*... Pikutara bidaliko nituzke gustura, baina ez naiz ausartzen, inor ez da ausartzen.

Ondo pentsatuta, lana amets gaizto bat bezalakoa da, ez dut gogoko horrela bizitzea, alternatibarik dagoen pentsatu dut askotan. Amari galdetu nion eta honek irribarrez lastandu zidan ilea, ez zuen ezer esan. Gau horretan negar zotinka entzun nuen eta ordur gero ez diot berriro galdetu, ez dut ama sufritzen ikusi nahi.

Alternatibarik balego... Lanean nagoen bitartean, askotan esna amesten geratzen naiz, eta futbolean jolasten nagoela imajinatzen dut, pilota batekin, porteriak eta guzti; mundiala izango litzateke egun oso bat behintzat horrela igaro ahal izatea.

Haixa, ama eta ume berriarekin hemendik urrun joatea gustatuko litzaidake, agian existitzen ez den lekuren batera, hain gogor lan egin behar ez den leku batera; guretzako denbora gehiago izango genuke. Etxe handi bat

ere, eta leku berriak ezagutuko genituzke. Aitonak horrelako parajeez hitz egiten zigun, hodeiertz urdineko tokiez, ur pilo-piloa bilduta zegoen tokiaz, non jendea bertan sartzen baitzen bainatzera, eguzkiak azala berotzen zien bitartean. Ez dakit aitonaren ipuintxoak ez ote ziren haiek, baina, egia izatekotan, sekulakoa litzateke horrelako leku batera joatea.

Gauza guzti hauetan gogoeta egin ondoren gogorra da berriro errealitatera itzultzea eta beste kaxa bat jartzea lepo gainean punta batetik bestera garraiatzeko, baina nire patua aldatzeko borroka egingo dut, egun eta gau, oztopo den guztia gaindituko dut bizitza zoriontsu bat izatera heltzeko, une hauetan itxaropena da gal ezin dezakedan bakarra.

Ezin dut negarrez hasi orain, ze kokoloa naizen batzuetan! Orain ez daukat negar egiteko astirik, gainera, Haixak ezin nau horrela ikusi. Tira, esnatu beharra daukat, ametsak birrintzeko unea da, lanari ekin behar diot. Gaur oso egun gogorra daukagu aurretik, atzokoa eta biharkoa bezalakoa.

Ametsetatik errealitatera itzultzea zaila izaten denez, batzuek nahiago izaten dute ez itzuli eta beraien errealitate faltsuaz ahal duten gehien gozatu, mundu irreal batean betirako galduta, baina agian, kontzientzia baino zerbait garrantzitsuagoa kontserbatuz: zoriontasuna.

2008 ekainaren 12a, Bermeo (zoroetxea)

Hogei urte daramatzat hemen, zoro artean lanean, eta egia esan ez dakit zerk bultzatu ninduen hona etortzera, ez baitut gogoko jendea bere onetik aterata ikustea, oihuka, barre sarkastikoa eginez, negarrez edo, aldiz, espresiorik gabe, begirada galduaz alde batetik bestera dabiltzan pertsonak, barrutik hutsik egongo balira bezala.

Lagun asko daude hemen munduari ezer eskaintzeko ez daukatenak eta mundutik ezer jasotzen ez dutenak, guztiz isolatuta bizi direnak eta honetan pentsatzen dudak bakoitzean korapilo izugarria sortzen zait eztarrian.

Ezin dezaket zoroen istorioetan asko sakondu, izan ere, nire lana hemen garbitzea baino ez da: gelak txukuntzea, kristalak garbitzea... eta horrelako gauzak; baina lan honetan zoroekin kontaktua edukitzen dut. Gainera, garbitzaile soila izateak halako ikusezintasunak janzten nauela dirudi, eta maiz entzuten diet “kasualitatez” mediku eta psikiatrei zoroen kasuei buruz mintzatzen, ni inguruan ibiliko ez banintz bezala.

Orain dela hilabete batzuk gizon berri bat ekarri zuten eta honen istorioa burutik kendu ezinik nabil.

Entzun dudanagatik, bere alaba eta emaztea galdu zituen auto istripu batean bera gidatzen zihoala, eta horrek lur jota utzi zuen.

Hilabeteak eta hilabeteak egon zen lehen aipatutako pertsona horien moduan: ez zuen hitzik egiten, ia ez zuen jaten ezta lorik egiten ere. Ez zuen negarrik egiten, bere sufrimendu guztia asimilatu ezinean edo, bere barne munduan galdu baitzen, guztiz apurturik zegoen barne mundu batean.

Orduak eta orduak igarotzen zituen bakarrik, bere etxean argazkiei begira, hauek laztanduz eta gutxitan, oso gutxitan, hitz batzuk esanez. Etxean zegoenean, ez zuen telefonoa hartzen, ez zuen etxeko atea irekitzen. Bera ere hilik zegoela zirudien.

Bere ama bakarrik arduratzen zen beretaz, amak prestatzen zion janaria, berak garbitzen zion etxea, animatzen saiatzen zen, hitz egiten zion, kalera ateratzen saiatzen zen... baina alferrik! Guztia alferrik.

Egun batean, ama etxean sartu eta gizona inoiz baino pozago zegoela topatu zuen, irribarre zabal bat aurpegian marraztuta. Ama harrituta utzi zuen.

“Itzuli egin dira ama! Begira, itzuli egin dira” zioen, norbaiti besarkada bat ematen ari zitzaiola keinua eginez. Orduan, ama ikaratzen hasi zen. Egun bat baino ez zela izango pentsatu zuen hasieran, hainbeste sentitzen zuen beraien falta... eta bere jarrera ulertzen saiatu zen.

Baina hurrengo egunetan egoerak okerrera baino ez zuen egin. Alferrik zen esatea alaba eta emaztea joan zirela, alferrik zen gizona errealitatera bueltatu nahi izatea, honek ez baitzuen erantzuten, ez zuen jaramonik egiten, bere egian galdurik zegoen eta ez zuen bertatik irteteko inolako asmorik; beraz, aste batzuk beranduago amak zoroetxean sartzea pentsatu zuen.

Ezin dut imajinatu zein egoera zaila zen hori amarentzat: zure seme bakarra zoratzten ikustea ezer egin ahal izan gabe, ezin semeari lagundu. Sentituko zuen inpotentzia, frustrazioa eta atsekabea, seguruenik, mugagabea izango zen.

Gizonaren istorioa entzun nuenean ere hasieran pena handia eman zidan. Lehenengo hilabeteetan sufritu zuena jasanezina zela imajinatzen dut,

hainbeste min eman zion gertatutakoak ze bere subkontzienteak gertaera hori deuseztatu baitzuen eta zoriontsu izateko bide bakarretik jarraitu zuen. Bizitza irreal eta zentzugabe bati ekin zion non bere familiak bere ondoan jarraitzen zuen, eta amaiera hau ez zitzaidan bereziki tristea iruditu.

Beti pentsatu izan dut pertsona zoro baten existentzia zaila eta mingarria izango zela, guztiz jasangaitza, baina gizon honen kasua desberdina da eta mundua eta bizitza ikusteko beste perspektiba bat eskaini dit; izan ere, pertsona honek istripu baten ondorioz bere bizitza negarrez eta atsekabez beteta igaro beharrean nahiago izan zuen zoriontsu bizi. Nahiz eta zoriontasun hau faltsua izan, horrek ez zion axola beretzat errealia baitzen, guretzat gure bizitza den bezalakoa, baina seguruenik askoz politagoa.

Inoiz ez dut ikusi gizon hau oihuka, barre sarkastikoz, negarrez edo espresio gabe, horregatik gogoko dut bere egoera, beti irribarrez dagoelako, erdi saltoka, baina pozik. Egia da dauzkan bakarrikzeta batzuetan inpresio apur bat ematen didatela, baina ondo pentsatuta nik bere lekuan hautatu ahal izan banu, bere erdua jarraitzen saiatuko nintzateke, bizitzan garrantzitsuena bakoitza eta ingurukoak pozik eta zoriontsu sentitzea delako.

Salduko zenuke zure kontzientzia zoriontsua izateko? Amets puska-tuak garaitzeko gai izan gaitezke, horiek amesteak ematen digun pozta-suna lortzeko?

Biderik egokiena orainaldian eta errealitatean zoriontsu izatea helt-zea da, baina lortu ezinean, zer prezio ordainduko zenuke zeure zorion-tasunaren truke?



Mikel Gandarias Ispizua

BATX. 2. maila

“Memoria gure lehena eta geroa da”.

BURUZ-BURU, GUDUZ-GUDU

Txuku-txuku, txuku-txuku, piii-piiiiiii, txuku-txuku, txuku-txuku piii-piiiiiii.....

Ikatzezko tren madarikatuak ez zidan lokuluxkarako baimenik ematen. Bera ere ni, beno gu, bezala esplotaturik. Lan eta lan, trukean gauza handirik (ezer ez esatearren) ez jasotzeko.

Memoriak ez dit askorik laguntzen, baina Terueletik Zaragozarantz gindoazela uste dut. 2700 bat soldadu izan ginen Ebroko batailan Zaragoza aldetik erasotzeko sarjentuak hautatuak. *“Luchad por Franco, por nuestra patria española”* zen harroputz horren esaldi gogokoena. Ze *patria* eta ze miseria!! Espainia defendatzearren bizitza kolokan jartzen ari banintzen, betebeharrak ustelagatik zen. Beno, beno, utz dezagun gai hori alde batera, ildotik urruntzen aritzeaz gain berotzen hasita nago eta!

Kontatzen ari nintzaizuen bezala, 2700 inozo geunden tren zaharkitu eta deseroso hartan. Informazio handirik ere ez genuen egia esan; arinago heltzeko kamioietan joan beharrean trenez gindoazela izan ezik.

Nik, asperraldia uxatu nahian, ingurukoei begiratzeari ekin nion. Nire ondokoa, leihotik begira zegoen, itxaropenaren bila nonbait, kristal zikinek zer-bait ikusten usten bazioten behintzat. Aurreko bi lurrean eserita lo zeuden. A ze inbidia! Hori da hori loak hartzeko erraztasuna! Atzerantz begiratzuz gero ere, antzeko ikuspegia nuen. Baten batzuek berriketarako indarra eta gogoa ere bazuten. Bi ilara aurrerago leiho bat irekita zegoen. Ez zen gauza handirik kanpoaldean. Eguzkia laino artetik irten nahian zebilen arrakasta gabe. Lainoei begira denboratxo bat neramala, logureak bisitatxoa egin eta lo seko gelditu nintzen.

* * *

1938ko otsailaren 12an.

Joxe maitea:

Berrehun eta berrogeita hamar. Horiexek dira zure erantzunik jaso gabe bidali dizkizudan gutunak. Zu berriz ikusteko ditudan esperantza urriak deuseztatzen doazkidala aitortu beharrean nago. Ezjakintasuna, bakardadea eta beldurra zureganako maitasunaren aurka borrokatzen ari zaizkit barnean etengabe. Zeinek irabaziko ote du? Erantzuna eguzkiaren laztanpean, loreekin solasean hel dadin espero dut. Bitartean guretzat erabakita dagoen bidea jarraitzea besterik ez dugu. Egia esan, Jainkoak une latz hau samurtzen duela pentsatzeak asko lasaitzen nau.

Atzo nagusiak zugatik itaundu zidan. Ondo izan zaitezen espero dudala erantzun nion. Ea esperantza hori ziurtasun bihurtzen den...

Bihar arte. Maite zaitut.

Axun

Gutuna berriz irakurri eta ondo dagoela ikusi ondoren, tolestu, gutunazalean sartu eta seilua jarri nion. 20 urte egin berri nituen. Gurasoak aspaldi hil zitzaizkidan, nik 13 bat urte nituela. Ordudanik lanean dihardut bizimodua aurrera ateratzeko, jostun laguntzaile bezala.

Mantala jantzi eta lanera bidean nindoala, postariari gutuna eman nion.

* * *

Hezetasuna, iluntasuna, isiltasuna eta bakardadez inguratuta nago. Egia esan, lorpen handiegirik gabe, baina lasaitasun apur baten bila aritu naiz azken hilabeteotan. Hala ere, ez nuen kartzela espero!

Hainbeste kilometro trenez Zaragozara iristeko egin ondoren, bataila usaindu ere ezin izan nuen egin. Hiriburura iritsi bezain laster, armak banatzen nenbilela, metraileta bat tiroka hasi zitzaidan. Ez dakit nola gertatu zen ere. Kamioian zegoen, eta ukiturik ere egin gabe (beno, beste armek bultzaturik beharbada) tiroka hasi zen. Aitaren egin orduko agertu zitzaidan sua zerion sarjentua eta egundoko erretolika bota ondoren, idazten ari zaizuen tontolapiko hau ezin isildu!! Ezin barneko oihua lotu. Ez nik nahi haina, baina urte guzti bateko amorru zati bat behintzat hustu nuen. Bigarren esaldia botatzera nindoanerako atxilotuta ikusi nuen neure burua. Hori abiada hori! Eta ezer gehiago esaten utzi gabe, ziega honetara ekarri ninduten gatibu. Ez dakit non nagoen. Are gutxiago nirekin zer egingo duten.

Lasaitasuna bai, badago, baina urduritasunez ase; iluntasuna ere nirekin dago, arimez josia ordea eta isiltasuna aldiz, garrasika, irrintzika ari zait gela heze honetako nire buru kiskalian.

* * *

Eroritako jostorratza lurretik altxatzen nenbilen irratian notizi hura entzun nuenean: *“Los soldados nacionales que hayan quedado discapacitados para luchar llegarán mañana a las 18h. en tren a Bilbao.”* Harri bihurtu nintzen, geldi-geldi nagusiak errealitatera bueltarazi zidan arte.

- “Zer zabiltza geraturik daukagun behar guztiarekin?”

- Entzun al duzu irratia esan duena?

- Bai. Zer dela eta?

- Ideia bat otu zait; bihar arratsaldean utziko al zenidake lanera ez etortzen? Gauez berreskuratuko dut lan guztia!

- Ez zaitez aurreratu eta esaidazu behingoz zer demonio bururatu zaizun!

- Bihar Bilbora joan ninteekeela norbaitek Joxean ezagutzen duen galdetzera.

- Bere argazki bat erakutsiz, pistaren bat jaso nahian zabiltza? Ba al dakizu zenbat jende dagoen gerra zibil madarikatu horretan? Zorte handia beharko duzu daramatzazun baino berri hobeekin bueltatzeko.

- *Orduan, joan naiteke?*

- *Bihar arratsaldeko lana errekuferatzekotan, konforme?*

Buruarekin baiezko indartsu bat egin nion eta lanean jarraitu genuen biok. Ni inoiz baino itxaropentsuago nengoen eta nagusia ere, egun osoan zehar deus gehiago esan ez zuen arren, nireganako poztasuna zuritu ezinean zegoen.

Bizkor igaro zitzaidan eguna; lanean. Gauez ere, lo ordu batzuei probetxua atera diet jostorratz eta hariaren konpainian. Ea orain bidai honi ere etekina ateratzen diodan. Bilboko geltokian zain nago jadanik. Ez naiz bakarra. Joxeanen argazkiak poltsatik atera eta lokomotora noiz iritsiko itxarotea baino ez dut. Beno, hori eta...zorte pixka bat.

* * *

Ez dakit nora garamatzaten. 43 gizon (nik neuk banan bana kontatuak) gaude espetxeko autobus honetan.

Orain dela hiruzpalau ordu, polizia batek esnatu nau ziegara etorri zaidanean: *“eh, tú; recoge todas tus pertenencias y mételas en esta bolsa”*. Zakarrago esatea ezinezko litzateke, baina nik badaezpada kasu egin diot. Ordu bete beranduago, kanpora atera eta bertan, kartzelara sartzean kendu zizkiguten jantzi eta bestelakoak eman ondoren, autobusera igoarazi gaituzte. Inork ez zuen hitz egiten badaezpada. Neuk ere horrela jokatu dut bidai osoan, gaua baino mutuago joatea helburu bakartzat harturik. Eta hemen gaude atzetik zein aurretik polizia furgoi bana eskoltatzen dugularik.

* * *

Beharrezkoarekin maleta prestatu eta ihesi noa. Ezin naiteke hemen gehiago gelditu. Jasan ezina da. Barnealdea esplotatu beharrean daukat. Amorrua, beldurra, tristezia eta gorrotoa ditut erregetzat.

Maleta prest dut. Mudak, oroitzapen gutxi batzuk, alkandoraren bat...

Nola uste nezakeen elbarritu haietatik informazioa atera nezakeela? Giza-joak. Ezin izango dira gehiago ibili edota ezingo dute berriz haien kabuz jan. Hankak, besoak, begiak hegan imajinatzen ditut. “BOOOOM” bonba bat eta honekin batera gorputz adarrak euria balira legez eta gorpuk txori zeru-

rantz. Oihuak, negarrak, sufrimendua edonon. Eta nire Joxean maitea, non? Hainbeste kostatzen zaio gutun bat idaztea? Edo telegrama ziztrin bat! Nitaz ahaztuko al zen? (Ez!!) Beso gabe ote dago? Hanka gabe? Hilda?!?! Zoratu beharrean nago!!! Bizitza berri bat nahi dut!!

Ate parera joan, paper zati bat hartu eta auzokoaren postontzian sartzeko ohartxo bat idaztea erabaki dut:

Dolo:

Betirako noa hemendik. Hemen duzu nire etxeko giltza. Egin ezazu aproposena berarekin. Egunen baten Joxean agertuz gero, esaiozu asko maite izan nuela, baina beldurrak maitasuna garaitu zuela.

Izan zaitez zoriontsu eta ez arduratu nitaz.

Eskerrik asko guztiagatik.

Axun

Giltza eta oharra esku batean hartu, maleta bestean eta atea ireki dut, bi bizitzen arteko muga balitz bezala. Atearen beste aldean nagoela, barrurantz begiratu eta oroitzapen pila datozkit burura: Joxean abesten, bizarra mozten ari den bitartean; biok sukaldean goxoki hitz egiten; maitekiro egongelan... Ez!!! “KLANK!!”

* * *

Txoferra, izerdiz blai dago. Ez dago ba berorik... Urduri egongo da; psikopatak edo horrelako zerbait garela esango zioten. Baina orain arte oso lasai etorri da...

Abiadura bizkortzen ari da gidaria. Berandu gabiltza? Ez dakit nora goazen, baina gaueko ordu txiki hauetan norbait zain dugula pentsatzea arraro egiten zait. Aurreko zein atzeko polizi furgoiak ere geroz eta bizkorrago doaz.

Presook elkarri begiratu diogu ezohikotasun hori begirada bidez islatuz.

Arinago, eta askoz arinago. Aurreko furgoiak alde batera egin du eta orain gure atzetik datoz furgoi biak.

Urrunean zubi bat ikus daiteke. Erditik puskatuta dago!! Ez naiz ni izan ohartu den bakarra, autobusa oihu, garrasi eta gelditzeko eskariez ase baita. Hoge bat metro...

- EZ!!Eeezzz!!GELDITUUUUUUUUUUUUUUU!!

* * *

Postontzira hurbildu eta maleta lurrean uzten ari naizela postaria agertu da portalean.

- Kaixo Axun, bidaian zoaz ala?
- Bai. – Maletari begiratzuz eta nire benetako nahia disimulatu nahian –
- Tori, gutun bat duzu. Aio, laster arte!

Gutun bat nik? Hau ustekabea. Ez dakit ireki ala ez... Utzi berri dudan bizitzako gutun bat da... Baina ezin naiteke zer jarriko ote zuen jakinguraz gelditu:

Srta. M^a Asunción Garay:

Sentimos sumamente comunicarle que el soldado José Antonio Aldecochea ha fallecido prestando su ayuda en la defensa de España.

Tememos no poder hacerle entrega del cuerpo, puesto que nos ha sido imposible.

Compartiendo su dolor

El portavoz

Hilik, zendurik. Mundua gainera eroriko balitzait bezala, maleta hartu eta etxerako bidea hartu dut, ezertarako indarrik gabe, aurpegia malkoz busti-bustirik.

Zer da bizitza? Zerura iristeko igaro behar den sufrimendu bide bat? Gure beldurrak neurtzeko era bat? Zailtasunak zailtasun, lasaitasuna enegana noiz iritsiko den itxarotea besterik ez dut.

Maitea, laster batuko gara berriz, laster.



Iker Miret Atxikallende

BATX. 2. maila

*“Euskaraz idaztea, niretzat, gutxi batzuek daukaten
boligrafo berezia erabiltzea da”*

BIZITZA BERRI BAT

Margorik argienak hartu ditut. Unibertsitateko ate aurrean irudikatzen ditut biak, biologiako apunteak eskuan eta ustekabeko begiradek duten xalotasunean gozo eta deseroso. Aita alkandora mahoi batekin eta gainetik bakero berri batzuk. Ama, loraz apaindutako soineko zuriz, azalaren antzera, zuriz, kolore bereko oinetakoekin zelaia zapaltzen dagoela. Eguzkiak behar luke egon, udaberriko eguzki kikildua, eta honen argitasunak zoko guztiak bedeinkatu, larruazala laztandu eta zuhaitz azpiko itzalpeko toki freskoren bat hor nonbait.

Haizea. Leuna, belar gaztea orrazten duen horietakoa, freskoa. Amaren ileetako bakoitza haizearen atzetik hura harrapatu nahian-edo. Gainerako apaindura, xumea. Zenbait eserleku zuhaitzaren inguruan eta bizikletentzako bide bat urrunxeago. Bakea eta lasaitasuna. Irribarre gazteak bazterreko ikasleen aurpegietan.

Hau izan liteke ezagutu zireneko erretratua, edo beste asko. Edertasunez gainezkako irudia, irreala dudarik gabe, baina sormenak eskeitzen digun abantaila hori ere aprobetxatu beharra dago. Unibertsitatean kokatu ditudan bi horien arteko begiradak gero eta maizagoak izango ziren, argitasuna egunean handiagoa, eta klase amaieran zein hasieran, ate horretantxe, bien arteko distantzia astero murriztagoa, elkarren sudurrak parez pare geratu arte. Kontuak kontu, hortik bederatzi hilabetera edo hamar urtera ni jaio nintzen, bien maitasunaren hazi eta fruitu, eta landa eremuko etxe batean, laztan eta lausenguz elikatua. Aita, ama baino bost urte nagusiagoa, herrian biologo ezaguna jada itsas-biologian, eta amak etorkizun oso esperantzagarria zuen.

Etxe hartako berezko eguzkia zen ama. Ezpain finetan ostatu hartutako irribarreak eztiki akatzen zituen nire gaueko amesgaiztoak eta eztabaidak ere hala isilarazten zituen, aitari nire ttuttuna emango balio bezala. Eta begiak... begi beltzaran haiek islatzen zuten bere arimaren purutasuna, ontasuna, haiek zeukaten ekaitzaren ondorengo eguzki izpien betiereko argitasuna. Ilea marroixka, luzea, mehea, bizkarraren erdia estaltzen ziona eta eguzkiak suspertuko balu bezala, udaberriaren etorrerarekin batera argitu egiten zitzaiona. Txoriek ere berriketari gogotsu ekiten zioten bere aurrean, ogi puskek baino bere presentziak erakarrita; horrela lortu zituen eguneroko ogi bezero fidel bezain alaiak. Inguruko etxeetakoek estimu handitan zuten, eta hasieran sorpresatzat genituen bisitak ohiko egin ziren, sarri, opil edo pastelen bat zekartelarik. Entzuten jakiteak, zein leunki eta goxoki hitz egiteko zeukan berezko dohai horrek lilura eta erosotasuna sortzen zituen, eta mireslerik sutsuena gure aita.

Harmonia hartan idatzi zuen amak bere lehen saiakera Genetika arloan eta denbora gutxian, ustekabea, egunkari nahiz aldizkari guztiak josi ziren bere izen eta idazkiz. Egongela laster bihurtu zitzaigun kamerek argiztaturiko elkarrizketa-gune. Auzokoen poza eta zorion-agurrak are eta sentiberagoak ziren, sentiberegiak. Alderdi guztietatik besarkadak. Musuak. Barreak. Egia eta faltsukeria elkarrekin nahasirik, egoera hauetan gertatzen den legez; deiak telefonora, eta hizketaldiak... bikainetan bikainenak. Han lortzen zuen bere berezko zirraraz eserlekuetako bakoitza eskuratzea, eszeptikoenak ere amore ematea, bere begi eta irribarreen ur geza eta gozoetan hondoratzea. Han txalo zaparradak ziren uholdeen sortzaile, olatuz olatu aretoz areto zeramatenak.

Biologian adituak ez ziren agure zein gazteek gogoz ordaintzen zuten sakeleko ogerleko bakoitza ama hitz egiten ikusteko, ama kontenplatzeko, eta be-

girada bakoitzarekin ezpain haietan musu bat itsasteko egarbera. Aulki honetantxe gogoratzen ditut une haiek, eta nik bezalako gogorapenak dauzka, buruan argi eta aratz, berrogeita hamar orain mende erdi nire aldamenean egondako entzule bakoitzak.

Ama gutxiago agertzen zen etxetik, eta amaren arrakastarekin batera aita ere aldatu zen, apurka-apurka baina etenik gabe. Barreak urriagotuz joan ziren, guztiz desagertu eta iragan urruneko oroitzapen bat balira bezala gogoratzen nituen aste gutxitara. Edozertarako gogoia eta interesa ere galdu zuen, eta bere biologiako ikerketa eta lanek ez zuten aurrera egiten. Adjektibo bat jartzekotan, etsipena. Amarengandik ez ezik, besteongandik ere isolatu zen eta bere etxeko bulegoan itzalpetzen zen, gure presentziak kalte egingo balio bezala. Orduan ere ez zuen eztabaidatzen, horretarako ere indarge, arbolen kimu berriak bezain ahul. Izaera hits hori asteen joanean markatuagoa egin zen, hasierako tristeziaren erroak iraganeko alaitasun-lurra are eta sendoago zulatuz.

Ama hasieran ez zen neurri handian kezkatu. Etxean emandako ordu bakanetan betiko poza eta izaera alaia mantentzen zuen, eta hala, etxean eguna eta gaua batera bizi izan nituen, bateraezinak, ezinbestean. Gehiegi-zko ditxa iluntasun hauskaintz eta irmo batekin parez pare. Elkar ikustean, bazkarian zein solasaldi bakanetan, nabaria zen aitzak gerora aitortuko zidana. Irribarre bakezale hura bakezaleegia zen, ezpainak bustitzen zituen listua distiratsuegia, sudurra tamaina egokiegikoa, azalaren zuritasuna irudikatu dudan soinekoa baino zuriagoa, gorputzaren forma bera, eskuak, bularrak zein hankak, ederkiegi diseinatuak, begien adierazkortasuna, brillua, kolorea eta forma ere xarmangarriak. Perfektuegia zen, politegia, puruegia. Jainkotiarregia.

Etsipena haserre xehe bilakatzen hasi zen, haserre bere lana, biologo arrakastatsua izan beharko zukeen haren lana, bertan behera gelditze-ko arrazoia infernuko begirada eta musu haiek ekarri baitzuten. Errementariaren porrek, ibaiari esker, behin eta berriz inbidia-aren torloju-ia iltzatuko luketen konpasera, horrela handitzen sustraitzen zen bere amorrua. Niri hitz egitean, barnean egun luzeetan sututako odola ur hotzetan epeltzen egiten zituen ahalegin jasangaitzak.

Eta han nengoen ni, aitatxok noiz eztanda egin eta amorruaren berotasun eta indarrez gorituriko ehun bat labana noiz aireratuko itxaroten. Itxaropen gordina, deserosoa baina halabeharrezkoa. Lekuko bakarrak nire panpina

leialak eta biok. Oraingoz behintzat, amarekin egotea ekiditzen zuen indar osoz, hirugarren munduko katu gosetu batek saguarengana hurbildu eta bere sena kontrolatzeko izango zukeen zailtasun berberaz. Sagua bere horretan alai eta izukaitz.

Aurrean dudan marrazkia begiratu eta... nork esango zukeen. Baina aldats baten ostean jaitsiera bat dator beti, eguzki argitsuenaren ondoren gauik ilunena, eta zorion- eta mirespen-aurpegiek bekaitza eta gaitza dute ezinbestez kokotean. Urteak joan, urteak etorri, gure artxibategi pribatua den garunean dokumentu asko birziklatzen dira, baina zenbaitek, gainean hautsa izan arren, barrua garbi eta garden diraute, garden bezain beltz. Aurrera begiratu dut eta konturatu orduko eguzkia itzali da.

Neguko iluntze goibeletako bat zen, izar gabea. Hotz sakona kanpoan eta ohera joateko prest nengoen, pijama jantzita. Ama, hurrengo egunean eman behar zioten sari bat zela-eta, nigana hurbildu zen eta muxu eman zidan masaillean. Bere berotasuna eman zidan azal eroaletik barrena, eta horrexek epeldu ninduen ehun maindire zetatsuk egingo luketen antzera, eta aterantz abiatu zen. Azkenengoz eman zuen buelta eta begietara begiratu zidan, eta hala erantzun nion nik, irribarre bat eskainirik. Leihora hurbildu eta kotxea urruntzen ikusi nuen, argi gorriak, ipurtargiak bihurtu ziren arte. Trena hartu eta Londresera joan beharra zuen.

Ohera sartu nintzen eta panpina hartu nuen eskuetan. Haizea zebilen baldar gure lorategiko sagarrondoei bultzaka, baina aterri zen. Hostoen dantzei begira-begira begiak itxi zitzaizkidan. Dexente beranduago, etxeko giltza aditu nuen sarrailan sartzen. Logelako atea ere irekitzen nabaritu nuen eta korridoreko argi xeheak aitaren irudia proiektatzen zuen, bere itzala hobeki esanda. Haizeak, haserratzean, leiho bitarteko zirrikitu bat gogoz zeharkatzean sortzen duen abistuak belarria, etzuteko bezain gogor. Aitak ohetik altxatzeko eta janzteko esan zidan, amak deitu ei zuen eta guretzat ere hotelean tokia zegoela. Irrikan jarri nituen prakak, eta baita jertsea ere. Alderantziz, gero konturatuko nintzen moduan.

Autoko atzeko eserlekuan etzan nintzen, eta konturatu barik loak hartu ninduen. Begiak ireki nituenerako zelai bat ikus nezakeen kotxetik, aurrez aurre, eta argi leun bat harago. Irten eta ezkerraldean itsaslabar bat zegoela ohartu nintzen. Itsasoa gaizto zegoen, eta olatuen orroa besterik ezin zitekeen entzun. Beste ezer ez zegoen. Animalirik ez. Haizea ere mantso.

Kotxetik irten eta zelaia zeharkatu nuen. Kobazuloa zen argizatutako toki hura, eta bertan, lurrean zerraldo, norbait. Ohikoa baino zuriago, kolore gabe eta unibertsitateko neska haren soineko berberaz. Hurbildu egin nintzen eta hotz zegoen. Hotz, eta marmola bezain gogor. Hitz egin nion eta irribarretsu jarraitzen zuen. Negar egin nahi, baina begiak siku, korrika egin nahi, baina geldi. Hari begira, eta haren begiak, berezko argiaren faltan, bizi gabe, aurpegian itsatsitako bi kanika bezalakoak. Suaren argipean, ez zuen benetako eszena bat ematen inondik inora. Ahuleziatik indar printzaren bat aterata irten nintzen erdi korrika zelaira, eta haratago, urrunago, aita bilatu nahirik, beste norbait bilatu nahirik... hankek ezetz esan eta zekale artean erori nintzen arte.

Denbora batera, minutu batzuk zein ordubete, zutitu nintzen errenka. Ez nuen ezer gogoratzen, autoa hartu eta etxetik urrundu ginelako gogorapena nuen, lanbrotsu. Besterik ez. Ez zen etxerik ikusten inon, hurbilean baso soil batzuk besterik ez, hostorik gabeak. Nekez ikus zitekeen argi batek gidatu ninduen. Urrunetik beste soslai bat ikusi nuen bertan argitasun bizian. Hargiaren usaina sartzen zitzaidan sakon, sudurretik. Hurbiltzean, kobazulo bat. Amaren irudia gogoratzen nuen han, bai.

Aitak begiratu zidan eta irri egin zuen. Aldamenean, putzu purpura bat. Odola. Amarik ez zegoen begi bistan. Lainoak ere arrakalatu ziren bat-batean, eta ilargi beteak argitu zuen inguru guztia, odolak tonalitate gorri bizia hartuz. Eta aitak sutsuki jaten zuen, bizkor, gogoz, norbaitek altxor prezia-tua kenduko ziolakoan. Amaitutakoan, pozez begiratzen zuen zoru odoltsua, amaren irribarrea imitatu nahirik. Biluztu eta suaren alboan zeukan soinekoa jantzi zuen ilargiaren argitan. Haren begiei so geratu nintzen eta airea faltan sentitu nuen. Izua, beldur gorria, eta kobazuloko zoko batean eseri nintzen zangoak elkarbaturik, eta burua bitartean. Eta isiltasun osoa.

Lirain eta panpox itxurak eginez hurbildu zitzaidan. Sua bortizki bizitu zen, eta kobazuloaren sabaia ere erre zuen. Argitasun itsugarria egin zen kobazuloaren jabe, udako egun argitsuenaren antzera, eguzkia laztantzeko distantziara izango banu bezala. Eta intentsitatea galdu zuen pixkanaka, aitaren atzean emakume baten figura utziz. Suzkoa, ukiezina. Ez zitzaion sentimendurik ikusten aurpegian, ez poza, ez tristura eta ezta haserrea ere. Bolada batean aita besarkatu zuen tinko eta trumoi erako oihiak entzun ziren haren ahotik, gauaren isiltasuna urratuz, mamu gorri hark ahoa estali eta parajeak berezkoa zuen isiltasuna berreskuratu zuen, zerbait lapurtu duenak hura bilatzen duen bezalaxe. Haren atzetik ni, itsaslabarrerantz. Haren ertzean

amaitu zuen ibilbidea, niri noiz iritsiko zain-edo. Pauso batzutara gelditu nintzen, nekatuta guztiz, izerdi hotzean. Han begiratu zidan izaki jaioberri hark, ilargiaren izpiek irudia zeharargi pasatzen zutela, eta irribarre hura egin zidan. Eta irribarre egin nion.

Aita ere lasaiago zegoen, bere patua ezagutu eta aldagaitz ikusten duen gizakiaren legez, etorkizuna segurutzat duenaren bakearen irudi. Egindakoaz damuturik, agian. Ez nekien, eta ezingo nuen inoiz jakin. Atxiloa askatu olatu zuriak, bits gazi hark, bustitzen zituen arroken gainean erori zen. Labarraren ertzeraino joan nintzen. Enbidia gorriak margotu zituen, eta hurrengo olatuak garbitu. Itsasoak ere tindu gorria hartu zuen, eta kaio batzuk bertaratu ziren, jaki gozoaren gainean orbita zirkularrak eginez.

Atzera begiratu nuen eta belar artean ikusi nuen dama biluztu bat, akitua, lehertua, begietan gorritasuna galdu eta marroi bihurtu ziren arte. Aurpegiera nasaia zuen eta ile zapa luze batek estaltzen zituen inguruko belarrak. Begiak itxi zituen eta besarkatu egin nuen. Epel zegoen. Bihotzaren taupadak egonkorrak ziren, metronomoaren erregulartasunaren antzera. Gau osoan ezer gertatu ez balitz bezala, han, ilargiaren argitasunpean.

Margotu dudan tela zatia egongelan zintzilikatuko dudalakoan nago, han jotzen baitu eguzkiak gogotsuen. Alboan dudan bizilagunak poztasun aurpegiz begiratzen du, albisteetako herioak eta maitemindutako bikoteak begiratzen dituen bezalaxe, ni begiratzen nauen moduan. Egun hartakoa ez dut gogoratu nahi, ez diot nire amari aitaren irudi hura aditzera eman nahi, unibertsitatean edo kale izkinan ontasun garbi eta bihotz xamur hark hunkitu zuten gizon harena. Orain amaren ile zuria daukat hatzamar artean, zaindu ninduen zaintzen. Ez dut sekula ahaztuko oparitua izan zaidan bigarren bitziz hau.



Usue Kortadi Mejias

BATX. 2. maila

“Sarritan min eman arren, itsasorik gabe ezin dut bizi”

ITSASOAK DARAMANA ITSASOAK DAKAR

Kofradiaren aurreko bankuan eserita nago senarraren zain. Haurrak etxean daude amonarekin. Barruan dudak samina ez zait baretzen eta Pederiko ez da itsasotik bueltatzen. Batelikuarekin irten da, ez dakit bakarrik edo norbaitekin atera den, ez dakit. Nire sabelean estutasun handia sentitzen dut. Ai! Ez ote zaio ezer txarrik gertatu nire Pederikori?

Itsasoa ilun zegoen, baita ortzia ere. Gaualdean sartzeaz gero eta berarekin batera ekaitza. Pankrazi oso nahigabetuta zegoen Pederikoren itzulera zela eta, ez baitzen bere arrastorik itsasoan ikusten. Portua dardara batean zegoen, marea gorantz, eta tiraina handia zen. Batelikoak, itsasontziak, ur gainean zeuden guztiak, mugimendu bizian zeuden. Bateliko batzuk puskatu egin ziren eta beste batzuk hondoratu, beste batzuk urez beterik zeuden.

Oraindik argi bazegoen, gutxi bazen ere eta Pankrazi kairantz gerturatu zen. Iparraldera begira jarri eta batelikuaren arrastorik ez. Aurrera eta atzera

zebilen, oso urduri, ezintasunez. Ana Mariren etxera joatea otu zitzaion ea bere gizona bertan zen edo Pederikorekin itsasoan, galdetu beharra zeukan atsekabea nare zekion.

Ana Mari hemen al dun hire senarra? Eta honek ezetz, itsasoan omen zegoen. Orduan nahigabetuta andereak kairantz abiatu ziren. Gizonak biak omen zeuden Pederikoren batelikuan, Kixkirena kaiari amarratuta baitzegoen. Kofradiako sirena jo zuten herri guztia jakitun egon zedin, eta gizonak, badaezpada, itsasotik zerbait entzuteko aukera izan zezaten. Baina alperrik. Herriko marinela eta hauen andere batzuk hurreratu ziren portura; denak jarri zituzten jakinaren gainean. Gizonak Pankrazi eta Ana Mari lasaitzeko animoak emateari adoretu ekin zioten. Horiek bai gizonak, horiek! Horrelakoak jada gutxi aurkituko ditugu.

Gaua zen, elizako kanpandorrean bederatziak puntuan ziren eta kanpaiak beti bezala bederatzi aldiz jo zuen. Isiltasuna zen herrian nagusi, itsasoa mugimenduan. Pankrazi eta Ana Mari marinelei zerbait egiteko esan zieten, beraien esku zegoen guztia, baina alferrik. Marinelek ezin zuten euren bizia arriskatu ekaitz bortitz harekin itsasora irtenaz. Izan ere, oso arriskutsua zen. *Itxarotea da dugun aukerarik zentzuzkoena*- esan zuen Pellok, marineletako batek. Emakumeek, lasaitu ezinik eta negar malkotan, buruaz baietz egin zuten.

Andre batzuk etxera bueltatu ziren, baita euren senarrak ere. Kofradian Pello, Markel eta Sabino geratu ziren bi emakume arduratuei laguntasuna eskaintzen. Ekaitza gero eta indartsuagoa zen. Haize bolada harroa zekarren eta euria hasi zen. Marinelek lasaitzeari jardun zioten euria zekarrela eta itsasoa baretuko zela esanez. Hala ere, Pankrazi oso gaizki sentitzen zen, Ana Mari bezala. Gaueko hamarrak jo zuten. Berriro entzun zituzten kanpaiak. Itsasotik ez zen inoren aztarnarik ageri, itsasargiak ere ez zuen askorik argitzen gainera.

Gauak aurrera egin zuen heinean, itsasoaren indarrak behera egin zuen. Gaitz erdi! Marea beherantz zihoan. Gauerdiko kanpaiak entzun ziren. Pederikok eta “Kixki”k sei ordu zeramatzen itsasoan galdurik, edo etxera bueltatu gabe behintzat. Kofradian Pello eta bi andere penatuak geratu ziren. Atertu egin zuen bat-batean eta haizea gelditu. Kaira hurbildu ziren berriro hirurak. *Pederikoooo!!!!* – oihukatu zuen Pankrazik eta albotik - *Andoni!!!!!!* - egin zuen txilio Ana Mari. Kixki ezizena zen, etxean bere izenez deitzen zion gizonari, normala denez. Baina ez zuten erantzunik jaso.

Bat-batean itxaropen izpi batek argitu zuen kaia. Pellok zera esan zien andereei: *Pankrazi, Ana Mari, itsasora irteteko moduan gaudela uste dut, saiakera egin beharko dugulakoan nago, behinik behin. Itsasoa lasaitu da pixka bat eta ekaitza urruntzen ari dun mendebalderantz; beraz, nola ikusten duzue? Joango al gaitun zuen senarren bila, berriz ere etxera osasuntsu itzul daitezen?* - Emakumeek, nola ez, baiezko biribila eman zioten Pellori eta horrez gain, musu bana ere eman zioten, esker onaren erakusle.

Arropa aproposa jantzi zuten emakumeek eta Pello ontziak behar zituen konponketak egitera joan zen. Oraingoan batelikua barik ontzi handixeagoa hartzea eta prestatzea pentsatu zuen, zer edo zer gertatuz gero, andreekin zihoan itsasora-eta.

Prestatu ziren erreskatean joateko eta askatu zituzten txikotak kaitik. Ontzian sartu eta portutik itsasorako bidea hartu zuten. Poliki-poliki norabidea jarraitu eta itsasargiaren laguntzaz orientatu ziren. Lehenengoan ez zekiten norantz jo; baina urrunean, pare bat mila ingurura, zerbait zegoela iruditu zitzairen ipar-ekialdean. Bertarantz zuzendu ziren.

Iritsi zirenerako Perikoren batelikua guztiz puskatua aurkitu zuten eta andere biak egonezinean erori ziren. Pello ia-ia larriak jota zegoen, erotu egingo zela uste zuen. Oraindik ilun zegoen, goizaldeko hirurak edo izango ziren, gehiago ez. Marinelak ez ziren inondik ikusten, eta andereak pentsatu zezaketen txarrena pentsatzen hasi ziren. Lehenago agertu izan zitzairen argi izpia itzalia zen zegoenerako. Hala eta guztiz ere, Pellok ez zuen amorerik eman. Bera itsas-gizona zen eta bera bezala Pederiko eta Kixki, eta arrazoi horrexegatik eta bere marinel senarengatik lagun biak urrun ez zituela bazekien. Inguru guztiak miatzen hasi zen, inguru guztia arakatzen, hara eta hona, gora eta behera. Horrek denbora eskatzen zuen eta baita pazientzia ere. Praktika bazeukan, itsaso zabalean ari direnean arrainak topatzen berdintsu dabilta eta. Ordubete igaro zen eta oraindik ez zegoen inolako aztarnarik.

Unetxo batean atsedena hartzea ona izango zela pentsatu zuen Pellok. Bien bitartean, Pankrazik eta Ana Marik senarren izenak lau haizeetara zabaldu zituzten eta ezer ez, ez zegoen erantzunik, ezta ezer.

Konturatu zirenerako lau eta erdiak ziren eta herritik urrun samar zeuden. Beraiek ez zuten etsi, jo ta ke jarraitu zuten andreek senarraren bila eta marinel jakintsua lagun hurkoen bila. Itsasertzerantz gerturatu ziren pixkanaka-pixkanaka, Pederiko eta Kixki bertan egon zitezkeelakoan. Itsasertzetik hurbil

jarraitu zuten ibilbidea eta ontziko argien laguntzarekin gizon bat ikusi zuten, lapatza bateko itsasertzean. Arineketan bertara hurbildu ziren, Kixki zen! Koratiloa zeukan jantzita eta bizirik zegoela zirudien. Itsasertzetik oso gertu zegoen, mareak herrestan ekarriko zuen nonbaitetik. Pello joan zen bere bila eta ontzira igo zuen gizona denborarik galdu gabe. Bizirik zegoen, arnas eskasa zuen baina bizirik zegoen! Ana Mari hainbeste poztu zen non ahoz -ahokoa berak egin baitzion. Kixki bere onera etorri zen. *Pede Pede!!!*-esan zuen eta begiak itxi zitzaizkion, erdi lo zegoen. Pello eta Pankrazi ere asko poztu ziren, baina Pankrazi oso urduri jarri zen, non ote zegoen bere senarra?

Eguna argitzen hasi zen eta eguraldi aparta zekarren, ortzia urdin ikusten zen. Pellok Pederikoren bila jarraitu zuen minuturik galdu gabe. Imajinatu ere ezin zezakeen Pello ez aurkitzea. Inguru horretan egon behar zuela pentsatzen zuen, kosta ala kosta aurkitu behar zuela. Mareak behera ere herrestan eramango zuen, lapatzatik gertu egon behar zuen derrigorrez. Ito ez zen egingo, berak ere koratiloa zeraman soinean eta. Pederiko agertzen ez bazen, familia gizajoa, Pankrazi koitadua. Askok sufritzen zegoen.

Handik gutxira Pellok garrasi egin zuen. Han zegoen Pede, han zegoen!! *Ikusten diat!* Berrehun metro harantzago zegoen, mendebalderago. Bizkor-bizkor abiatu ziren bertara, laguna bizirik aurkitzeko itxaropen osoarekin. Kixki ere itzartu zen, arropa lehorrak jantzita zituen jada eta zauri txikiak sendatuta; ezer gertatu ez balitz bezala zegoen. Marinel biak Pederiko salbatzera joan ziren. Pederiko haitz baten gainean zegoen, buruan zauri bat zuela, bekokian hain zuzen, odol ugari zeukan aurpegian behera, itsasoko ur gaziarekin nahastuta. Harri edo haitz baten aurka joko zuen halako batean. Oso zurbil eta makal ematen zuen. Pellok pultsua hartu zion lagunari eta oso ahula zuen bihotz taupada, baina bizirik zegoen. *Bizirik zegok!.* oihukatu zuten Pellok eta Kixkik. Harrapaladan eramane zuten ontzira eta Pankrazi pozez zorutzen jarri zen eta emozioaren emozioaz negarrez hasi zen. Ez zen esnatu Pederiko. Oso gaizki zegoela zirudien, konortea galduta zuen, ez zuen erantzuten; baina bizirik zegoen. Pankrazi eta Ana Marik gizon gaixoari zauriak sendatzen zizkieten bitartean, herriranzko bidea hartu zuten marinelek; eta portura heldu zirenerako, herriko beste marinel eta andere guztiak bertan zeuden lagunei ongietorria emateko prest. Jada goiz argi zen, goizeko zazpiak pasatxo izango ziren. Galdutako marinel biak bizirik eta andereak irribarretsu ikusi zituztenean, kofradiko sirena jo zuten herritarrek. Askok poztu ziren denak, oso alai ikusten ziren eta ontzitik zaurituak ateratzen lagundu. Eskerrak azkenean ezer larria ez den gertatu!. *Ikaraldian geratu da dena*- esan zuen emakume batek. *Bai, eskerrak*”- esan zuten beste batzuek.

Pederiko etxera eraman zuten Pellok eta beste marinela batek kaiko egurrezko gurdi baten gainean. Bost minututan etxean ziren eta Pankrazi ez zen bere senarraren albotik banandu momentu bakar batean ere ez. Ohean etzan zuten gizona eta atsedena hartzen utzi zioten. Medikuari hots egin zioten Pederiko nola zegoen ikustera etor zedin. Une baten Pederikok begiak ireki zituen eta *Pankrazi, maitea sentitzen dut* esan zion emazteari. Pankrazik *ixil hadi* erantzun zion, atsedena hartzeko unea zela eta ez zedila alperrik nekatu. *Izango dugu hitz egiteko denbora laztana, orain egin esak lo*. Musu bat eman zion zauriaren ondoan eta Pederikok jaramon egin zion emazteari. Berehala lokartu zen eta Pankrazi senarra maindireekin estali zuen goxo-goxo, oso pozik. Egun oso eman zuen bera zaintzen eta medikuak esan zion buruko kolpea ez zela hainbestekoa, pare bat egunetan ondo zela berriro eta ez zegoela ezertaz kezkatzeko arrazoirik.

Hurrengo egunean Pederiko gizon berria bailitzan sentitzen zen eta aurreko egunekoa ametsa izan bailitzan gogoratzen zuen, amets gaiztoa. Pankrazi logelara sartu zen senarrari ohetik jeikitzen laguntzeko eta egongelara joan ziren familia guztiarekin biltzera. Han zeuden hiru seme-alaba txikiak irribarretsu aitaren itzuleragatik, amona ere bertan zegoen alai. Umeak aitaren gainera egin zuten jauzi, hirurak aldi berean, eta aitari inoiz eman zioten besarkadarik indartsuena eman zioten. Pankrazik zaparrada bota zien berehalakoan. Pederikok barre egin zuen; eskua bekokian zeukan, zaurira eramanez.



Irene Ortiz Perez

BATX. 1. maila

“Bizitza, istorioak bizi edo kontatzeko aukeraz beteta dago”

EZ DAGO ZER BEGIRATU

Telefonoak jo zuen, esandakoaren arabera: bost tonuko hiru dei jarraian, hamabost segundoko itxaronaldiarekin dei baten eta hurrengoaren artean. Hura zen seinalea. Hamahiru orduko atzerapenarekin heltzen zen seinalea. Merkantzia Marsellatik aterata zegoen.

Oxanak egun osoan bere esku izerditsuen artean edukitako mugikorraren dardara nabaritzen zuen. Bere atzamar arduratsuen artetik ateratzen zen oihartzunak emakumearen burua eta bihotza hain indartsu ponpatzean, itxarondako tinbre eta isiluneak kontatzen zihoan denbora hartan, bere inguruan denak hartu zuen bere pultsuaren neurria.

Egongelan, alfonbra gainean bere seme txikienarekin egurrezko tren txiki baten bidea muntatzera jolasten ari zen beste emakume bat zegoen. Zurrun jarri zen, bere buruarentzat kontatzen zuen bitartean. Itxarotea bukatu zen.

Oxanak sukaldeko mahai gainean utzi zuen mugikorra, eta hari begira hipnotizaturik zegoela, bere malkoen itoaldia agerian utzi zuen azkenean. Gero, arnasa sakon hartuz, bere semearekin batera barrezka zegoen emakumea bilatzera joan zen. Itziarrek begiak bere semearengandik altxatu eta Oxanari irribarre egin zion, lasaigarri.

Telefono deiaren atzerapenak gau osoan lo egiteko aukera eman zion, eta behar zuen. Bere autoan irtengo zen Gernikatik telefonoak jo eta ordu erdira, bere ordenagailu banaezinarekin eta bidai poltsa txiki batekin. Konpainia egingo zion bakarra GPS berriaren ahots eztsua izango zen, lan egiten zuen enpresak zor zizkion atzeratutako ordainketen diruarekin goiz hartan erositakoa. Gogoko zuen jostailutxoa, baita Bartzelonara bidaiatzea, deskantsaturik zegoela jada. Gainera, bidaiak asteburuarekin bat egiten zuenez, “oraintxe nator” bat bakarrik iruditzen zitzaion. Sobietar Batasuneko probintzia bateko immigrante ilegal baten sarrera prozesuko azken kate-maila.

Diru-zorroan zeukan sartuta Alinaren argazkia, neska gazte horren begirada berde eta nahasiaren erretratua zapi beltz batean markoztatuta. Irudia ezkontza egunekoa zen, bere lehengusina ezkongai soinekoarekin agertzen zen, irribarretsu. Baina denbora gutxi iraungo zion irribarreak ahoan emaztegaiari. Irribarrea eta marfilezko azal leuna, bere senar berriak kiskaliko zizkion sutontziko olio aurreratu botatzean.

Prestatuta zeukan eta identifikatuko zuen kotoizko alkandora zuria hartu zuen, hain gogoko zuena, bakeroak eta tonu urdindun lepo-zapi bat lepoan. Jantzten zen bitartean buruzko kalkulu arin bat egiteari ekin zion. Bederatzietarako bueltan egongo zen; horrela denbora nahikoa izango zuen bere seme-alabak besarkatu eta haiekin afaltzeko. “Espero dut gure gonbidatu berriari patata tortilla gustatzea dastatzen duenean”, pentsatu zuen, etxeko platerik gogoko eta goraipatuena, Oxanari egiten irakatsi ziona hau Errusiako gune Kaukasikoenetik heldu zenean, Pjatigorsketik, familiari ahoskatzen nahiko kostatu zitzaiena.

Oxanaren exodoa tren bati itxaronez hasi zen, Bakuren muturretik, Azerbaijanen, Georgiatik igarotzen zena, eta Tbilisi hiriburua zeharkatzen zuena Kaukasoko barrualdetik Errusian barneratu arte. Tren hori zen egunero entzuten zuena bere hiritik igarotzen, apirileko goiz hotz hartan itxaron zuena. Tren hura hartzen zuen lehenengo aldia. Bera, familiako eskubideetan lizentziatua zena bere hiriko fakultatean. Hiri bereko langilea. Alaba, emazte eta ama leku berean.

Hilabeteak ezkutaturik eta beldurturik konpartitutako gelatxo bateko iluntasun eta hezetasunean eman eta gero, Itziarren etxera heldu zen emakume hura. Halabeharrak eta Elenek, Itziarren hamaika urteko alabak, ekarri zuten etxera, etxeko langile bat bilatzeko elkarriketan dudarik izan gabe esan zuenak “Gurekin geratzen da”. Hitz komunaren faltaz sortu zen afektuaren presentzia adeitsua. Eta kontratu moduan hasi zena elkartasun zintzo eta sendoa bihurtu zen.

Hori dela eta sukaldean jarri zuten Vileda arbel bat. Han gelditu gabe margotu eta idazten zuten Itziar eta Elenek, eta haien ikasle nabarmenari irakasteko edozein aitzakiarekin.

Gero bere historia ezagutu zuten, eta ordurako mundu mapa erraldoi bat zeukaten arbelaren alboan jarrita. Orain, ia hiru urte pasatu eta gero, Jon txikia zen mapan merkantziak egiten zuen ibilbidea margotzen zuena. Mugaldeen esanahiaren ezagun, erraz atzematen zituen mapa hartan “an” guztiak; Tazajstan, Azerbaijan... baita ere “nia” guztiak; Estonia, Letonia... Zaletasun ukaezina zuen hegazkin eta trenak margotzeko, eta bere arrebarekin bidaia agentzietara jolasteko. Helmugarik gogokoena, Paris zen, bere ume begiekin Disneyland moduan ikusten zuena, eta ez maitasunaren hiri bezala. Jonek ez zituen ulertzen Alinaren bidaiaren urruntze eta gerturatzeak bere ibilbidea mapan jartzen zuenean, zergatik zegoen Egipto edo Errumanian, eta batez ere, ez zuen ulertzen zergatik egoten zen hainbeste denbora hotel berean ezkutatuta, bidaia bat bakarrik izanda.

Egunen joan etorriekin eta isiltasun larrien areagotzearekin isilik egoten ikasi zuen, eta horrela telefonoak jo eta bere amak burua altxatu zuen unerako, bazekien amak joan egin behar zuela, eta bueltatzerakoan Alinarekin etorriko zela.

Itziarrek eztiki musukatu zituen bere seme-alabak eta Oxanaren besarkada hunkigarri bat jaso zuen. Poltsa sorbaldan eskegi, gauzak hartu, eta etxe-koei zaintzeko gogorarazi eta gero, kotxearen bila joan zen, jada urte batzuk zituen Renault familiar bat. Umea eskolatik eraman eta ekartzera ohituta, atzeko aulki txikia hutsik ikusteak ezinegon arraroa sortu zion. Bost ordu geratzen ziren topaketarako. Tom-toma jarri zuen martxan. Helmuga: Bartzelonako Autobus Geltoki Nagusia.

Alina betidanik bizi izan zen Sevan laku alboko herrixka batean, Armenian; bere sorterrian. Bere etorkizunari buruzko etxean egon ohi ziren liskar

guztiei arretarik jarri gabe, ez zuen inoiz pentsatu bere zazpi neba-arreba nagusien moduko bizitza edukitzea baino aukera gehiago zeudela, ezkondu eta herrian finkatzeaz aparte. Baina errusiar jatorriko aitak eta aitaldeko aitona-amonak urte asko itxaron zituzten ohitura familiarra berreskuratzeko: seme-alabetatik gazteenak, Alinak, Unibertsitatean ikasiko zuen, eta Georgiako hiriburuan egingo zuen, errusieraz. Bere amaren familia, Azerbaijane-tik etorritako musulman suniak, Alina Tbilisira joateaz gain, emakume batek ikastearen aurka zegoen. Azkenean, karrera atera eta emakume egin zen.

Maleta prestatu zuen herrira bueltatu eta bere senarra izan behar zuen gizona ezagutzeko. *“Adina duzu, hogeita bi urte, eta ezkontza ahalik eta arinen hitzartu beharra dago – idatzi zion amak bere azken gutunean- jada ez zara opari bat, Alina, zaharra, hiritarra eta hezia. Burutik sano dagoen gizon batek ere ez luke zurekin ezkondu nahi. Zortea izan duzu, gogo oneko gizon alargun kementsu bat topatu dizut eta; objektziorik jarriko ez duena baldin eta dote on bat ordaintzen badiogu. Bere seme-alabak zainduko dituzu, eta zureak propioak ere izango dituzu. Bere borondateari men egingo diozu, txorakeria unibertsitario horiei buruz inoiz hitz egin gabe. Hirian irabazi duzun diruaren erdiarekin zure senarra izango denari ordaindu, eta gainerakoa niri emango didazu. Horrela izan behar da eta horrela izango da”*.

Hala ere, bere lehengusina Oxanarekin idatzi zuen korrespondentziaz bete zuen maleta. Herrialdetik aterako zuten “artekari” batzuen zerbitzuak kontratatuta zituen. Bere aitarentzako gutun maitekor bat idatzi eta gero, ametsez beteta prestatu zen bere lehengusinak kontatu zion bidaia ezezagunerako. *“Bakarrik egongo zara- esan zion- eta ezer baino gutxiago izango zara”*.

Eta horrela sentitzen zen bidaiariak ere garraiatzen zituen autobus baten azpi faltsu ilunetan, beste zortzi gorputz zikinen alboan etzanda, haien okada eta txizez lohituta. Arnasteko leku faltak itotzen zuen. Une labur batzuetan konortea galtzen zuen, asfixia zela eta, baina ez zion bere buruari eztul egiten permititzen. *“Hori inoiz ez, eta gutxiago geldirik gaudenean... hobeto hilda!”* esan zien gidariak. Errusiar gizon handi bat zen, eta taldeko emakumeak izutzea gustatzen zitzaion, kokotsetik hartu eta bere irribarrerik onena jartzen, urrezko haginak erakutsiz.

“Zure helmugara iritsi zara” esan zuen GPS-aren ahots gozoak. Aparkatzea ez zen izaten Itziarrentzat arazoa, beti uzten zuen kotxea justu-justu hel-du nahi zuen lekua ate aurrean. *“Gustatuko litzaidake, bai, arazo guztiak aparkatzea bezain errazak balira”* esaten zien bere lagunei, haiek inbidiatsu

baina pozik, bere zortea gogorazten ziotenean. Horrela, Erdiguneko Auto-bus Geltokiko hesiaren aurrean aparkatu zuen autoa, eta kalkulatu eta gero, berrogei minuturako jarri zuen aparkalekuko ticketa.

Hasierako aldapa jaitsi zuen eta eskailera mekanikoan jarraitu zuen etorre-ra internazionalen kartela aurkitu zuenera arte. Geltoki horrek aireportu erral-doi bat ematen zuen, bizitza osoan ikusitako handiena zen, dudarik gabe, eta Bilbokoa ez zuen kontutan hartu aireportu moduan. Amsterdametik bueltan Frankfurten eskala egiterakoan galdetu zion behin bere seme txikiak, hango aireportuak ikusita, ea non zegoen Gernika inguruan benetako aireportua...

Ez zekienez Alinaren autobusaren jatorria, argidun taulan begiratu zuen oso ziur egon gabe. Etorrerako orduaren arabera, hiru eta erdietan aurreiku-sita, Bruselako edo Vienako autobusa izan zitekeen, Lyonetik Marsellara jait-siz Bartzelonara heltzen zena. Tauletan autobusak aparkatuta zeuden nasak iragartzen ziren. Nasa horiek ibiliaz, denboraren joanaz eskailerak igo eta jaisten zituen bitartean (etorrera eta irteeretarantz), autobus geltokiaren pisu zikina hasi zen sentitzen, gasolio usaina, kanpoko gizonen begirada zan-tarrak, topera zeuden paperontzi berdeen inguruan pilatzen zen taberneta-tik ateratako zaborra, dendetako zikinkeria, geltokia infernua balitz moduan populatzen zutenak. Jendearen etengabeko mugimendu geldiezina eta nasen gunean maleten soinuak zoruaekin jotzean ateratzen zuen zarata jasangai-tza egin zitzaion.

Alinaren argazkia atera zuen bidai internazionaletako hainbat gidariri erakusteko, informazioko andereñoi eta geltokiko zaintzaileei. “*Neska ho-nen bila nabil*”. Geltoki hartan bizi zenaren antza zeukan aguretxo zahar eta marmarti bati ere erakutsi zion argazkia, bere erosketako karro betea alboan zuena. Eta argazkia gorde zuen arineketan Poliziaren eta haien txakur fidelen albotik igaro zenean. Azken batean, herrialdean egon beharko ez zukeen ba-ten bila ari zen. Oxana ezin izan zen etorri, ezin baitzuen lepoa jokatu ilegal moduan harrapa zezaten, bere lehengusinarekin bila.

Ez zion Oxanari deitu nahi izan. Informazio berririk bazuen, bera izan-go zen kontaktuan jartzen zena. Hasierako andenera itzuli zen. Alkandora txukundu eta txirikorda bat egin zuen zapi urdina ondo ikus zedin. Eta itxa-ron egin zuen. Zenbat gustatuko litzaiokeen zigarro bat edukitzea, zigarro bat edo hogeia. Zer axola zion ke apur batek bere birikietan, izaten ari zen nerbio eraso horren aurrean? Ziur aski bere medikua ez zen ados egongo. Eta zer, bere medikua ez zen Bartzelonan egongo “inor” topatzeko. Ai, ‘ene bihotze-

ko' armeniarra!- pentsatzen zuen- Ager zaitez, eta zin egiten dizut ez dudala bizitzan gehiago erreko...

Autobusak etengabe ailegatzen ziren, baina batetik ere ez zen jaisten berak itxaroten zuen neska. Izerditan, andenetan zebilen alde batetik bestera, astiro, toki itxi eta zikin hartatik pasatzen zen jendea saihestu gabe. Lurrazpiko hiri hartako horma batetan jarri zen, pizzeriako bi langileei begira. Zein zorori bururatuko litzaioke zabor poltsak bide erdian uztea? Txerri halakoak! Ez al dute ikusten hemendik ez dela sartzen ezta kotxe bat ere?...

Kotxe bat! Nirea. Orain dela orduak ticketaren denbora agortu zaidala. Mesedez, mesedez, garabi batek ez hartzea.... Multa bai, multa bai –esaten zuen bere bururako, korridoreetatik korrika ari zen bitartean, begiak itxita ere egin ahalko zuena. Eta multa izan zen. Ordaindu eta, itota, bere jesarlekuan jesarri zen. Autobusak...- esan zuen bere bururako. Berde koloreko autobus hamarkadek hiria zeharkatzen zuten.

Geltokian, bere hilkutxa barruan zaborrontzian, begi berde ikaratu batzuek alkandora zuria eta zapi urdina janzen zituen keinu adeitsudun emakume bat ikusi zuten korrika alde egiten. Irteteko zorian egon zen, baina berriro ere helitzen ziren gizonak poltsekin. Ez zegoen seguru. Eta indar gabe jarraitzen zuen. Arnasa hartu ezinik sartu zuten zaborrontzitik irteteko, hilik zegoela uste zutela, “Guk bete dugu agindutakoa, Bartzelonako geltokian zaude. Ondo ibili”.

Ordenagailua piztu zuen. Nork esan zuen erdiko geltokian egongo zenik? Inork ere ez. Autobusez etorriko zela, hori bai, baina nora? Zer autobus mota zen? Bidaiariena? Autobus geltoki guztietan begiratuko zuen. Bilatzailea. Bartzelonako autobus-lineak. Jainkoarren! Berrogeita zortzi. Lehenengotik hasiko zen, geltoki guztietatik pasatu arte. Aurkituko zuen! Iluntzen hasia zen. GPSa martxan. Giltza kontaktuan jarri zuen mugikorra hartu aurretik Oxanari deitzeko. Ez zuen bere lehengusina Alina topatu, baina topatuko zuela esan zion, eta bere plana kontatu zion emakume kezkatuari, bere ahots nekatuan animoa islatu nahian.

Eta hasi egin zen, nekaezin. Bide guztietatik pasatzen eta markesina guztietan geratzen. Maniabrak egiteko lekua kentzen zien humore txarreko gidarien txistuak eta irainak jasaten. Neska baten bila zebilela esatera heldu zen. *“Zoraturata al zaude? Deitu mugikorrera- erantzuten zuten denek- kendu paretik. Ez dauka mugikorrik. Nongoa da, ba, Martitzekoa?. Ez, errusiarra – esaten zuen laburtzeko-. Hemen errusiar neska guztiak leku berean daude”*.

Hitz haiek bere buruan forma hartzen hasi ziren goizeko lauretan taberna zikin batera sartu zenean txiza egin, garagardo bat hartzeko, eta bere ordenagailua kargatzen saiatzeko, ez baitzeukan nora joan. Bere ibilbidea bukatua zegoen. Bartzelonako autobus geltokiren batean neska armeniarrik bazen, noski, ez zen berak bilatzen zuena.

Ordaindu eta kanpora irten zen tabernako gizon guztiek egin zioten korridorearen erditik. *“Zeren bila zabilta? Etorri nirekin...”* Ez ziren izango gau hartan lehenengo biderrez entzuten zituenak. Hemen errusiar neska guztiak leku berean daude. Amorrur guztia zuen eztarrian.

Ramblasera helduta, beherantz jaitsi zen autoz, ezagutzen zuen kale bate-tik. Astiro. Kanean “lan egiten” zutenak hurbildu zitzaizkion leihora. Batzuei argazkia erakusten zien, ea neska ezagutzen ote zuten galdetzen zuen bitartean, Alina seinalatuz.

Eguna argitzen hasia zen bi gizonen kotxeko aurreko atea ireki eta kolpeka atera zutenean. *“Gehiegi galdetzen duzu. Nork bidali zaitu? Neska hau ari naiz bilatzen. Nork esan dizu nire kaleetan bilatzeko? Ez dago zer begiratu- eta atzerako ispiluak apurtu zizkioten-. Ez dago zer begiratu, ulertzen?”* Bat kotxean sartzen zen bitartean, besteak Itziar hartu eta hurbilen zegoen kalezulora eraman zuen, autoa atzetik zetorrela. Bestea kotxetik irten zen, eta lurrera bota zuten, ukabilkadak eta ostikoak ematen. Bere alkandora zuritik hartu eta lurretik arrastaka eraman zuten auto alboraino.

Kalea isilik geratu zen. Itziarrek takoi batzuk entzun zituen, urrunean. Ahalik eta arinen joan zaitez... berriro takoiaren soinua, oraingoan korrika, aldentzen.

Eta joan egin zen. Noraezean, autobus geltokira heldu zen. Lurrean jesarri zen, horma baten kontra eta, han, negar egin zuen. Autobusak joan eta etorri bitartean eta jendeak agur esaten zuen bitartean bera negarrez ari zen. Negarrez, leku berean zeuden neska guztiengatik. Emakume guztien zorteagatik ari zen negarrez. Bere umeak besarkatu behar zituelako ari zen negarrez. Ezagutzen ez zuen emakumearen faltarengatik egiten zuen negar.

Isiltasuna apurtu zuen ahots bat atera zen ezerezetik, bere burua izendatzen. Hitz bat, ahots guztiak zena. Alina.



Lexuri Gabiola Aranguena

BATX. 2. maila

“Zaindu maita duzun hori!”

NOLA LITEKE...

*Nola liteke begiak itxita ikustea?
 nola, ikusten dudana zu izatea?
 suposatzen dut hau dela maitatzea
 beltza dena berde begitantzea,
 konturatu gabe leku guztietan zure izena idaztea
 lau haizetara maite zaitut oihukatzea
 zu gabe zoriontsu ez izatea.
 Nola liteke nirea zarela sentitzea?
 nola, betidanik ezagutzen zaitudala pentsatzea?
 ene ametsetan,
 lotsarik gabe izkina guztietan musukatzea
 zurekin burua hain erraz galtzea
 ero eta bero gorputza izatea
 larru gorritan izarren azpian
 gure gorputzak desiratzea
 Beldurtuta nago,
 zer egin ez jakinik,
 zure izena buruan bueltaka darabilt nonahi
 ez dakit zergatik, ez dakit zer edo zer
 azaldu ezin dudan sentimendua da*

*baina zu ikustean kilima ugari tripetan darrai
Begiak malkoz beterik
ezinegon eta urdurasuna nabarmen
sentipen arraroak gorputzean
bihotza lur-jota
burua engainatuta
eta ni neu ahulduta*

*Nola liteke maitasun biktima bat sentitzea?
nola, maitasun hitzak umil eta samurrak izatea?
suposatzen dut maitasuna ez dela dirudien modukoa
ene irribarrea galtzea
esperantza faltsuaren zain egotea
eta helburu bat,
noizbait desio hau egi bihurtzea
Nola liteke burua eta bihotza hain banandurik egotea?
nola, aurkariak izatea?
buruak ezezkioa dio
bihotzak baiezkoia
zuri eta beltz
zeru eta infernu
bi hitzetan esanda, amesgaizto hutsa.*

*Itsututa nago
sentipen guztiak barnean,
ingurukoak arduratuta
nire ahoa mutu,
begietan distira
eta hitz artean dardara*

*Bi hile joan ondoren,
zer egin dezaket?
erantzunik ez
lehen eguna bezala,
bera kolean ikusi
eta tentsioa nagusi
Jada itxaropenik ez
emozioa eta ilusioa nonbait galduta
bihotza lapurtuta
ni haren menpe
eta esamoldeak dioten bezala,
irtenbide bakarra; nire penak alkoholean itotzea.*

Berak maite ninduen,
nik bera ere bai.
Oraindik oroitzen naiz
bere begietan.

Nere zai egoten zan
zugaitz lore artean
eta esaten zizkidan
maitasun hitz politak.

Maitasun hitzak umil da xamurrak,
besterik ezekin hain gaztea zan;
etzuen munduan gaixtoa ikusten,
oraindik ametsak bizi zituan.

Hiru gauz bakarrik zekizkin esaten:
antziñako ipuin xarmagarriak,
maitasun istori, poeten abesti.
Besterik ezekin, hain gaztea zan!

Urteak joan ta gero,
nabaitzen detanean
bakardade haundi bat
nere bihotzean.
Oraindik oroitzen naiz
nola lore artean
berak esaten zizkidan
maitasun hitz politak.

Maitasun hitzak umil da xamurrak,
besterik ezekin hain gaztea zan;
etzuen munduan gaixtoa ikusten,
oraindik ametsak bizi zituan.

Zure izena, buruen bueltaka darabilt nonahi, ez dakit
zergatik, ez dakit zer edo nor,
Azaldu ezin dudan teori bat da, baina ikusi zintudanetik
kilima honek nire tripetan darrai
ez naiz, ez azkar, ez altu, ez polit ez modelo, baina inork
kenduko ez didan gauza bat daukat, beti nago alai
Lotsak, beldurra, nekeak, tristurak
gainezka egin naute

...eta zer, buruari kasurik ez badiot egin nahi
...ez al da, bihotzari, udaberriko Mikel Laboaren balada bat bailitzan,

entzuteko garai?

Zure izena, buruan bueltaka darabilt nonhai, ez dakit zergatik, ez dakit
nola, ez dakit zer edo nor, azaldu ezin dudan gauza bat da, baina ikusi
zintudanetik kilima honek nire tripetan darrai.

Ez naiz, ez azkar, ez altu, ez polit ez modelo, baina
inork kenduko ez didan gauza bat daukat, beti nago alai
Bihotzak agintzen du.

Baina bai gorputzak bai buruak badute zerikusia
..."eta nik, txoria nuen maite" zioen mikelek, baina guzti hau
idatzi ondoren, pentsatzen dut nire baitan. ez ote
dit txori honek niri, egingo kalte??
... ez, itxeon, kanbise, baze 2. pertsonan gabiz idazten eta?
e plan, bihotza lapurtu didazu.. zuk.. orduen jarri: ez ote didazu,
txori maite horrek, egingo kalte?
jarri bixotza ta burue dekozuzela, pelikulatan
alde baten deabrue ta bestien aingerue agertzen dizen modun,
bakotza geuza bat esaten, ta iñoiz eztakigula zer aukeratu

Zure izena , buruan bueltaka darabilt nonahi
Ez dakit zergatik, ez dakit zer edo nor
Azaldu ezin dudan teoria bat
Baina ikusi zintudanetik kilima ugari tripetan darrai
Nola da posible begiak itxita ere ikusi ahal izatea?
Nola da posible itxita ditudanean zeu
izatea ikusten dudana?

Nola liteke begiak itxita ikustea?
Nola, ikusten dudana zu izatea?
Suposatzen dut hau dela maitatzea,
beltza dena berdea begitantzea,
konturatu gabe leku guztietan zure izena idaztea,
lau haizetara maite zaitut oihukatzea,
lotsarik gabe izkina guztietan musukatzea...



Lander Madariaga Agirreamalloa

BATX. 2. maila

“Paperezko txoriak ere bustiz gero ezin du hegan egin”

GAU BAKARTI BATEKO POESIA

Nire sendagaia, nire kalterako

Pozik egon ezin mundu honetan
barruan laino bat dut argi oro estaltzen
paradisua aurrean edukita ere
ezerk ez nau pozten

Egon ezin honekin
neure burua joan da zulora
nire bihotzean sortzen ari da
egundoko lurrikara

Ez dakit ezin egon hau
nola egingo dudan baretu
honen sendagaia aurrean nuenean
eskatzera ez nintzen ausartu

Nire kaltearen sendagaia hain da ederra ze,
begiratzeaz batera arima ninduan urratu
berarengatik aldentzeaz batera
nire poza zen bukatu

Sendagaia kalte bihurtuaz batera
nik aurrera ezin dut jarraitu
neure buruaz beste egitea alferrik da
horrelakorik beste munduan ere ezin daiteke aurkitu

Orain ez dut atzera bueltatzerik
ez nengoke honela sendagaia lortuko banu
duela denbora asko egindakoaz
orain nahiz damu

Ezin dut arnasarik hartu
jada ez dut ezertarako indarrik
zutik ezin eutsita
hilko naiz bakarrik

Barnean dudan lainoak
hartu dit bihotza
orain ez naiz gai ezer sentitzeko
nire barnean soilik aurki daiteke hotza

Noraezean nabil batetik bestera
azala bizirik baina barrua hilda
bat-batean norbait
nigana hurbiltzen ari da

Sendagaia etorri da nigana
aurkitu nau behingoz
nire barnean lainoaren ordezt
eguzkiak distiratzten du gogoz

Nire barrena lasaitzeko behar nuena
jada lortua dut
nire sendagaiari esan beharreko bakarra,
behar zaitut

Zapaldutako herria

Lehen baso sakonetik azken haraneraino
bai Bizkaiko itsaso eta Arabako mendia
sentitzen dut nirea
hau baita nire aberria, Euskal Herria

Ezin liteke izan
milaka urte zutik eta iraun duen herria
borroka eta bakean harroak
jasaten ari den zoria

Gure lurrak zapalduaz batera
jarri zuten beraien legea
barru-arte sartu eta indarrean
hartu zuten gurea

Gazte eta zahar, gizon zein emakume
mendira joan ziren borrokatuz
alperrik izan zen guzti hau
dena amaitu zuten hauek zapalduz

Horrela hartu zuten
izatez gurea zena
guda gotzon beltzez baliaturik
suntsitu zuten dena

Gazte zahar, gizon zein emakume
egin zenutena ez da alperrik
berriro askatuko dugu herri hau
beste bide batzuetatik abiatu

Euskaldun orok eskertu behar luke
zuen ausardia
zuengatik ez balitz hau ez litzateke berdina
hau baita euskaldunon aberria, Euskal Herria

Euskara

Bada zerbait berezia
beste inon aurkitzen ez dena
bakarrik gure hizkuntzan
ager daitekeena

Sentimendu hori dut
euskararekiko
bertan zerbait berezia
nabaritzen delako

Asko irrikaz daude
hizkuntza zaharra noiz suntsituko
guk hitz-eginez gero
hau ez da galduko

Beste askok uste zuten
hau ez zela erabilgarria
guk geuk bihurtu dugu
hizkuntza eredugarria

Euskara da guztiaren gainetik
mantendu behar genukeena
Euskara baita
euskaldun egiten gaituena



Mikel Retozala Etxebarria

BATX. 2. maila

*"Poesia gabe bizitzea, begiak itxita bizi eta irekiteko
ahaleginik sekula ez egitea da"*

"...ihes ederra zilegi balitz, urra ahal baledi katea..." (X. Lete)

"DOINU BAKO KANTAK"

Hona hemen hitz batzuk bizitzaren gazi-gozoei.

Puzzle bat bailitzan, hizki bakoitza bere esanahiarekin;
ahapaldi hauei poema forma ematen saiatzen diren hizkiak, alegia,
erraietatik bueltaka dirauten bizipen eta sentimenduen azaleratze
ahalegina.

SOILIK ERRUTINA

Iratzargailuaren soinuarekin uzten dut zortzi ordu inguruko hilkutxa,
bi munduen arteko konexio bailitzan hartzen dut dutxa,
leihora hurbildu eta, hara, goizeko lehen eguzki izpien aurpegi harroputza,
egunak joan, egunak etorri, errutina hutsa.

Gorrotatzen hasia naiz iratzargailuaren abestia,
 etxetik irteterakoan, begiak erdi itxita, ilea bustia,
 urrretxindorraren lehen kantuaz alaitua etxeondoko hariztia,
 espabilatu nahian daramat tren geltokirako bide guztia,

Zortzi eta erdiak, dudarik gabe oso ordu alaia,
 Sokrates, Platon eta maieutikaren esanahia,
 Napoleonen lorpenak eta algebraren gaia,
 arratsaldeko hirurak, txirrina, hau bai lasaia!

Denak korrika, erlojuaren kontrako aroan,
 izango ote du honek ondoriorik geroan?
 Azkenean etxean, norberaren txoko beroan,
 hilkutxara bueltan, bihar ere argituko duen esperoan.

BILATZEN

Bakardade bortitza,
 isiltasunaren hitza,
 baldintzatuaren baldintza,
 bitxia mutuen mintza,
 zoriontasunaren gazteluko
 ate erraldoiko giltza,
 burdin zati txiki horren bila
 eman behar da bizitza,
 non ote dago, ez dugu aurkitzen
 zoratzekotan gabiltza,
 udaberri politenean ere
 nagusitu daiteke hitsa,
 jakin nahi nuke noiz hasiko den
 zorion bilatze ekintza.

SUSTRAIAK LURRARI LOTUZ

Zuhaitz gaztea naiz;
 Auskalo zein lorategi, oihan edo basotan sustraiak finkatuko,
 oraindik nago errotzeke,
 bizitza izeneko gurdibide luze honetan nahitaez pasatuko
 poz aunitz eta zoritxar zaku bete

Udaberrian indartsu, uda aldean alai,
udazken arratsaldeetan lehertu,
negu hotzean zeharo aspertu,
berriz kolorez janzteko zain

Zuhaitz zaharra naiz;
Loreak zaizkit zimeldu, orain neguaren ihesi,
izua da nagusi nire sentimendu biltegian
beldurrik ez dudala esango nuke agian,
baina gezurti hitza ez da ageri nire hiztegian

Urtarrileko egunsenti hotz batean izartu naiz,
aspaldi erori zitzaizkidan azken loreak,
biluzik nago, baita ere nirekin ditudan hiru semeak,
ordua heldu zaidala pentsatzen dut maiz

BASAMORTUKO ARRAINA

Itsasoaren erdian, noraezean dagoen
arrain bakartia nauzu
iparra galduta, korronteari jarraituta,
ur arrotzetan dena sartu
buruan bizirautea baino ez duen
igerilari trebea nauzu
bart, zutaz oroitzen nengoela sare
erraldoi batek ninduen hartu

Basamortuaren erdian, egarriak hiltzeko zorian
dagoen iheslaria nauzu,
elkarrekin igarotako momentuen tamainaz
umezurtz geratu dena.
mirarietan sinetsi ez arren, noizbait nitaz oroitzea
espero duen otoizlaria nauzu
abuztuko iluntze haiek berriro igarotzeagatik
edozer emango lukeena.

IHESETAN JOAN HINTZANA

Diktadura garaiko mutil koxkor hari,
hainbat euskalzalerekin hamahirugarren malefizioa ukatu zuenari,

erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi zituen poeta tristeari,
irrifar bakoitzean gaztetasun hondarrak galtzen zituenari,
haizea iparraldetik datorrela erakutsi zigun gizon bakartiari,
amets handirik ez zuen langile baten semeari,
errota zahar maite hartarako bidean jarri zigunari,
Urepeleko artzainari eskainitako lerro xume haiekin euskaldun oro
beregianatu zuenari,
izarren hauts bihurtuta mendi hegaletan gora ihesetan joan zenari,
euskaldun ororen bihotzetan bizirik iraungo duen Oiartzundarrari.

Xabier Leteri, agur eta ohore



Maria Isabel Uriarte
HHI-EPA

GABONETAKO BIDAIA

Gernika, 2010eko urriaren 4a

Kaixo Jone,

Hasteko, gauza bat kontatu behar dizut. Gabonetako oporrak laster etorriko dira eta egun horiek ez ditut batere gogokoak. Hori dela eta bidaia bat prestatzen ari naiz eta pentsatu dut zurekin joatea. Badakit zuri ere ez zai-zkizula egun hauek gustatzen, beraz ea zer deritzozun bidaia hori egiteari. Nik uste dut oso ondo pasatu ahal dugula. Abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra arte izango litzateke. Biok badi-tugu lanean egun berdinak oporretan hartzeko. Xehetasun guztietaz arduratu naizela argi dago, ezta?





zunez, oso prezio ederra da. Horrela opor guztiak ondo aprobetxatuko genituzke.

Begi bistan dago oso polita dela, nire ustez behintzat. Egon nintzenean txundituta geratu nintzen benetan. Edinburgo da hango lekurik garrantzitsuena, gazteluz inguratuta. Euskal Herria aparte, nire bizitza osoan ikusi dudana herririk ikusgarriena da. Ipui-netan bezala euria egin arren, oso lasai eta baketsu sentitu nintzen. Jende atsegina topatu nuen, eta nahiko irekia ingeles aldean.



burutik gauza piloa pasatu zitzaidan. Dena magikoa izan zen. Kafetegi batean jezarri nintzen, apunte batzuk hartzeko, nire pentsamendu guztiak gordetzeko asmoz geroago ez ahazteko.

Eskoziara joan gaitezke. Leku paregabea da. Orain dela urte bazukhan egon nintzen. Zoragarria iruditu zitzaidan. Ordudanik beti errepikatu nahi izan dut bidaia hori. Orain oso momentu egokia da horretarako, prezio erakargarriak ikusi baititut interneten. Edinburgora joan-etorria eta hamar egun hotelean 400€ pertsonako izango lirateke. Ikus dezake-

Han egon nintzen bitartean nire irudimena askatasunean utzi nuen. Bostehun urte lehenago hango gazteluak poderio osoz egongo ziren. Zelan biziko zen jendea? Erregeak, printze eta printzesak, nobleak, soldaduak... Zaldi gainean boteretsuak edo dirudunak, beste gainontzekoak oinez... Arropa dotoreez edota oso pobreez ibiliko ziren. Boterea lortzeko grinaz gatazka itzelak egongo ziren, baina jaiak, dantzak eta musika ere bai. Nire

Benetan bidaia hau oso ideia ona dela ikus dezakezu. Horregatik eta ahalik eta arinen tiketak baieztatu egingo ditut, gustokoa izango duzulakoan.



Beno, Jone agur esateko ordua iritsi zait, baina primerako oporrak pasatuko ditugula zihurtatu ahal dizut. Besarkada handia hartu eta gero arte. Marisa.

**Josebe Villa**

HHI-EPA

SAGUTXO TALDE MAKALA

Bazen behin amonatxo bat bere baserrian bizi zena. Baserria oso polita zen, zuhaitzez inguratuta, errekatxo bat, zubi bat errekatxoaren gainetik pasatzeko eta jakina, txabola txiki bat, egurra gordetzeko neguan hotz handienari aurre egiteko. Zer esanik ez, etxeko piztiak ere han zituen amonatxoak, astotxo bat, oiloak, ardiak, untxiak, bi txakur, bi katu eta, bukatzeko, sagutxo talde bat.

Astotxoak bazekien sagutxo bakoitza nor zen, bere lagunak zirelako, eta honela deitzen zien:



- Txatxali, Mirurgi, Motxina, Txorri eta Zazkali!

Katuak ere hor zeuden Katta eta Misina. Honek biak inoiz ez ziren sagutxoaren atzean ibiltzen. Ondotik pasa eta kasu tutik ere ez. Horregaitik gehienetan edo ia beti, bai Txatxali, Mirurgi, Txorri, Motxina eta Zazkali barreka eta olgetan ibiltzen ziren eurek nahi zutena eginez.

Amonatxoa astean behin edo bitan herrira joaten zen irina saltzen astotxoaren laguntzaz. Beraz herrira joan aurretik, goizean goizetik altxatzen zen bere betebeharrak egiteko. Esaterako untxiei eta oiloei jaten eman, baita txakurrei eta katuei, ardiak kortatik kanpora atera eta segituan irina prestatzen zuen. Zakuetan sartu eta astoaren gainera altxatu, gero herrira eramateko. Honela ba, herritik bueltatzerakoan astotxoa pozik egoten zen bazekielako bere betebeharrak eginak zituela eta sagutxo lagunkideak han aurkituko zituelako bararekin jolasteko.

- Non zaudete sagutxoak? – esaten zien batzuetan. Bestetan – Txatxali, Mirurgi, Txorri, Motxina, Zazkali!! – bakoitzaren izenekin deitzen zien.



Bestalde, bazituen bere pentsamenduak gure astotxoak, hain zuzen amonak ez igartzea zorroak pisu gutxiago zutela. Horregaitik beti esaten zien sagutxoei, neurri batean jateko irina, baina batzuetan jaramonik egiten ez ziotenez, astotxoa horren beldur izaten zen.

Egun batean, amonaxoa bere irina saltzen ari zela konturatu zen zaku batek korotz batzuk zituela. Beste batean begiratu eta

– *Ene bada!*- Zaku guztiak zeuden korotzekin. – *Beno beno ! Honela ezin da!* – esan zuen amonaxoak. – *Orain-txe bertan beste katu pare bat ekarri behar dut, behar diren modukoak eta amaitu txarrikeri honekin.*



Hurrengo egunean a zelako sorpresa hartu zuten Motxina eta Saskalik. Misina eta Kattaz gain beste bi ikusi zituztenean, korrika bizian hasi eta gelditu barik joan ziren izkutazen nora edo hara.

Mirurgi, Txatxali eta Txorri konturatu zirenean ziz-zaz deasagertu eta astotxoaren gainera igo ziren belarri atzean izkutatzeko. Astotxoak ondo hartu zituen bere gainean sagutxoak, baina zeozer pentsatu behar zutela esan zien beldurrez ez ibiltzeko.

Arratsalde horretan, sagutxo guztiak elkaturik, zera pentsau zuten

– Goazen pankarta eta guztiz manifestatzera, ze gu hemendik ez goaz ino-
ra. Hori bakarrik falta da, betidanik hemen bizi izan bagara! – Eta horrela egin zuten.



Hurrengo egunean “Katurik ez!” “ Katurik ez!” garrasika irten ziren zuloetatik. Pankartak ere eraman zituzten, baita kornetak eta txirulak, zarata handia ateratzeko. Astotxoa ere manifaren atzean joan zen arrantza egiten, “Ji-ja, ji-ja, ji-ja”.

Bat batean, amona siestatik esnatu zen eta:

Amona – Baina zelako iskanbila dabil hor kanpoan, banoa ikusten zer den. Ze demontre zabiltzate zuek horrenbeste zarata ateratzen!

Sagutxoa – Ba, guk hemen bizi nahi dugu eta katu bi horiek ez gaituzte uzten bakean.

Amona – Hau bai komeria, orain katu barri biak falta dira, astrapalada guzti honekin alde egin baitute. Pozik egongo zarete ezta?

Astotxoak eta sagutxoak, beraien tramankuloak utzi eta arreta handiz zer esaten zuenari begira gelditu ziren, belarriak gorantza ipinita eta adi-adi.

Amona – Ba orduan gauza bat esango dizuet; korotzak nahitaez kaka lekuan egingo dituzue eta ez beste inon. Bestela dozena bat katu ekarriko ditut eta akabatuko zaituztete. Entzun didazue ondo!

Hurrengo egunean a ze sorpresa hartu zuen amonatxoak. Den dena garbi-garbi, gauza bakoitza bere tokian eta korotzik bat bera ere ez.

Amona – Oso ondo, oso ondo!. Honela izatea espero dut betirako eta nere urtebetezea denez, Txindokiraino astotxoaren gainean eramango zaituztet.

Ordutik aurrera sagutxoak zoriontsu bizi ziren, amona eta astotxoa lagun zituztelarik.



